



eraberean

**TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA**

**RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN**

*Sarearen jarduerari
buruzko 2015eko
txostena*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2016ko iraila

Ale-kopurua:

40 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinu eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazio Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Itzulpena:

Lete itzulpenak

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Errepografia Zerbitzua

L.G.:

VI 671-2016

aurkibidea

HITZAURREA	5
ERABEREAN: DISKRIMINAZIOAREN AURKA DIHARDUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO IKUSPEGI-BATERATZEA ETA LANKIDETZA	7
• <i>Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta beste erakunde batzuek diskriminazioaren aurkako borrokan betetzen duten zeregina.</i> Manuel Lezertua Rodríguez, Arartekoa.	9
• <i>Ijitoen ikuspegia.</i> Oscar Vizarraga Muñoz, Kalé Dor Kayikó.	13
• <i>Migratzaile eta errefuxiatuen aurkako diskriminazioaren alderdi gizagabea.</i> Rosabel Argote Veá, CEAR-Euskadi, eta Mikel Mazkiaran López de Goikoetxea, SOS Arrazakeria - Gipuzkoa.	16
• <i>LGTBlen ikuspegia: galderak eta zergatiak.</i> Elena Olaortua González, Aldarte, eta Jesús Estomba Olasagasti, Gehitu.	22
1. AURKEZPENA	27
1.1. Aurrekariak	29
1.2. Definizioa, indarrak eta helburuak	33
1.3. Osaera eta antolamendua	35
1.4. Txostenaren testuingurua	36
2. DISKRIMINAZIOAK EUROPAN, ESTATU ESPAINOLEAN ETA EAE-N DUEN EGOERARAKO HURBILKETA	39
2.1. Zehaztasun terminologikoak	41
2.2. Diskriminazioaren eta gorroto-delituen pertsekuziorako zailtasunak	47
2.3. Diskriminazioaren eta gorroto-delituen biktimak	50
2.4. Diskriminazioaren egoerarako hurbilketa: Estatu espainolean eta Europar Batasunean	51
3. ERABEREAN SAREAREN JARDUERA 2015EAN	59
3.1. 1. lan-ardatza: prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa	61
3.2. 2. lan-ardatza: arreta, laguntza eta aholkularitza.	67
4. ESPERIENTZIA POSITIBOAK, TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKOAK ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKOAK	85
5. ONDORIOAK ETA ERRONKAK	103
6. ERANSKINAK	111

hitzaurrea

José Javier Miguel de La Huerta

Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako zuzendaria
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Eusko Jaurlaritza


Eraberean sareak 2015. urtean egindako lanaren berri ematea da memoria honen xedea.

Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen sustapen eta babesaren inguruko funtsezko konpromisoa eta erantzukizuna hartu du –eta hartzen du– bere gain, Euskadi barruan zein nazioartean, eta pertsonak eta haien duintasuna dira gure politiken arretagune nagusia, betiere giza eskubide guztien errespetuan oinarrituta, diskriminaziorik gabe.

Joan den urtean, antenak zabaldua eduki genituen, eta aukeratu genuen ereduak eta sarearen koordinazio orokorrerako baliabideek emaitza onak izan zituztela frogatu genuen. Izan ere, informazio eta dokumentazio espezializatua, hasierako eta etengabeko prestakuntza eta arlo juridikoko eta arau-arloko aholkularitza eman genuen, eta, horretarako, beste erakunde eta sare batzuekiko antolaketa bultzatu genuen.

Eraberean sareak zuzeneko arreta eskaini die pertsoneri, harreman hurbil eta zuzenekoan oinarrituta eta irizpide eta protokolo, esperientzia eta zerbitzu eta jarrera eta errealitate desberdinak konbinatuta. Azken batean, kausa komun bat (hots, pertsonak jasaten duten tratu-desberdintasuna eta diskriminazioa) duten hiru kolektibo desberdinen ikuspegiak batzea eta bateratzea lortu dugu.

Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzak balioespen positiboa egin du Eraberean sareak lehen urtean egindako ibilbidearen inguruan, eta, dagoeneko, ezarritako erronketarako soluzioak praktikan jartzen ari gara, ziur baikaude desberdintasunetik abiatuta elkarri begietara begiratzeko eta duintasun bereko pertsona gisa onartzeko gauza garela.



eraberean:

**irabazi-asmorik gabeko
elkarteek eta beste
erakunde batzuek
diskriminazioaren aurkako
borrokan betetzen duten
zeregina**

irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta beste erakunde batzuek diskriminazioaren aurkako borrokan betetzen duten zeregina

Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

Besteak beste generoagatik, etniagatik, sexu-orientazio edo sexu-identitateagatik, jatorri nazional edo etnikoagatik, desgaitasunagatik edota gizarte-bazterkeriagatik diskriminazioa jasaten duten pertsonak errealitate dira gaur egun, eta ezin dugu errealitate hori alde batera utzi.

Errealitate horren jatorria, nolana ere, pertsonen eta kolektiboen arteko mendetako desberdintasun orokorra da. Giza eskubideek eta oinarrizko askatasunek konstituzio-ordena juridikoan eta nazioarteko ordena juridikoan lehentasuna eskuratu ahala, neurri handiagoan geratu dira agerian botere publikoentzat zein herritarrentzat, eta horiek guztiek jakin badakite **diskriminazio-jokabideak portaera onartezinak eta adierazitako eskubide eta oinarrizko askatasunekiko bateraezinak direla**.

Herrialde demokratikoetako herritarrak pertsonen eta kolektiboen aurkako diskriminazio-tratuaren kausa eta ondorioez jabetzen direnean, ez dira ezer egin gabe geratzen. Aitzitik, mobilizatu egiten dira eta aktiboki jarduten dute tratu horiek erabat desagerrarazteko.

Helburu hori lortzeko modurik onenetako bat desberdintasuna giza duintasunaren eta munduaren ikuspegi demokratikoaren aurkakotzat hartzen duen pertzepzio komuna duten pertsonekin elkartzea eta taldeak osatzea da. Elkartzeko askatasuna oinarrizko giza eskubide bat da, eta diskriminazioaren aurkako borrokaren eremuan **era bakanean edo interseksionalean** tratu desberdin eta diskriminatzailearen biktimak diren **pertsonen eskubideak defendatzen dituzten** erakunde, elkarte, fundazio eta abarretan antolatzeko aukera ematen die pertsonari. Elkarte horiek gizarte-zerbitzuak eta gizarte-prestazioak lortzeko eta gizaki orori datzekion eskubide eta askatasunak baliatzeko zailtasun ugari dituzten pertsonari eta kolektiboari laguntzen diete. Azken batean, gizarte-ongizatea lortzen laguntzen diete pertsona horiei.

Azken hamarkada hauetan, herrialde industrializatuetan nabarmen ugartu da hainbat modalitatetan eta hainbat jardun-eremutan diharduten gizarte-erakundeen kopurua, eta, oro har, aktibismo politiko

handiagoa hartu dute. Gizarte-erakundeek ekintza sozial eta politikoari egiten dioten ekarpena erabakigarria da, berritzeko gaitasunagatik, komunikabideetan eta eztabaida publikoan parte hartzeko duten ahalmenagatik eta **botere publikoekin hitz egiteko duten gero eta ahalmen handiagoagatik**. Parte-hartzean oinarritutako eta askotariko elkarte-sare zabal eta plural bat egoteak demokrazian sakontzeko eta eztabaida publikoan aktiboki parte hartzeko aukera ematen dio gure gizarteari. Ildo horretan, sare horren **ekintza ezinbestekoa da guztion ongiarekiko gizarte-konpromisoari eta erakunde demokratikoekiko atxikipenari eusteko**.

Berdintasunaren alde diharduten elkarten ezaugarrien artean, azpimarratu beharra dago ekimen pribatuko erakundeak direla, gizartea hobetzeko eta eraldatzeko esku-hartze soziala bultzatzen dutela, kudeaketa-autonomia, irizpide-independentzia eta ekintza-independentzia dutela eta parte hartzeko borondatea duten herritarrez osatuta daudela. Beste erakunde batzuekin alderatuta, beren oinarritzko helburua ez da irabazi-asmoa, ezta bazkideen artean etekinak banatzea ere. Aitzitik, diskriminazio motaren bat jasaten duten hirugarrenen aldeko lan eskuzabala da nagusi erakunde horietan. Definitzen dituzten elementuak honako hauek dira: **elkartasuna, parte-hartze zibila, erantzukizun demokratikoa, eta ez elkartzeko eta erakunde horiek uzteko askatasuna**.

Elkarte horien helburu eta jardun batzuk administrazio publikoek Zuzenbide Estatu Sozial eta Demokratiko batean garatzen dituzten edo garatu beharko litzuketenen antzekoak dira, hau da, inguruabar zehatzak sustatzea gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen, ordenamendu juridikoak bermatutako eskubide eta askatasunak erabat baliatzea eragozten edo zailtzen duten oztopoak kentzea, eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere (Espainiako Konstituzioaren 9. artikulua). Jakina, **ezin dute ekintza publikoa ordeztu**, baina administrazio publikoen jardunetan lagundu eta parte har dezakete, eta jardun horiek osa ditzakete, herritar guztiengana irits daitezen. Elkarteek pertsona kalteberak babesten eta defendatzen dituzte eztabaida publikoan, eta agerian uzten dituzte kolektibo jakin batzuen zailtasunak eta premiak. Zenbait kasutan, kolektibo babestu horiek ez dute pertsona kopuru handirik. Hala ere, elkarteek funtsezko zeregin bat betetzen dute: **pertsona horiek badaudela, sentitzen eta sufritzen dutela, eta haien giza duintasuna bermatu behar dela gogorarazten digute denoi**. Pertsona horien gabeziak eta pairamenak detektatzea eta botere publikoak eta gizarte osoa pertsona horien eta dituzten premien inguruan sentsibilizatzea ezinbesteko lehen urratsa da, gutxienez, premia horiei erantzun egoki bat emateko.

Elkarteek eta beste erakunde batzuek ekintza **malguago eta pluralago baten** ekarpena egiten diote kudeaketa publikoari. Eskaintzen duten hurbiltasunari esker, defendatzen dituzten pertsonen eskariak bideratzen dituzte, eta beste lurralde batzuetako eta beste estatu eta kontinente batzuetako beste gizarte-erakunde batzuekin lankidetzan jardun dezakete. Lankidetzatza transakzionala ohikoa da helburu berak dituzten erakundeen artean, eta ez dute "protokolo diplomatikorik" bete behar (protokolo horien ondorioz, zenbaitetan esku-hartze publikoak luzatu egiten dira, eta ez dira inguruabarrei erantzuteko bezain eraginkorrak). Elkarre horiek gero eta neurri handiagoan eta gero eta imajinazio handiagoarekin erabiltzen dituzte komunikazioaren teknologiak, eta, horri esker, sektore publikoko erakundeek baino modu biziagoan funtzionatzen dute (sektorerik kontserbadoreenetako erakundeek bederen).

Aurrerapen handiak egin badira ere, **desberdintasun- eta diskriminazio-arazo** larriak daude gure gizartean. Agente publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak lehentasunezko helburu izaten jarraitu behar du, pertsona guztiek aukera berak izan ditzaten, gizartean, ekonomian, politikan eta kulturaren aktiboki parte har dezaten, eta bizitza duina izateko baldintzak lor ditzaten.

Gizarte-kohesioa, aniztasuna, berdintasuna eta justizia balio ukaezintzat hartzen baditugu, saihestu egin behar dira etnia- eta genero-arrazoiengatiko eta arestian adierazi ditudan arrazoiengatiko diskriminazio-zantzu nabarmenak agertzen dituzten gizarte-bazterkeriako prozesuak. Hori guztia dela-eta, erakunde horiek pertsonak gizarteratzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko egiten dituzten jardunak funtsezkoak dira gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko, eta sektore publikoak egiten dituen jardunen osagarriak izan behar dute. Hortaz, lankidetzaren eraginkor eta biziak lehentasunezko helburua izan behar du zerbitzuen kudeaketan bikoizketarik izan ez dadin. Aldi berean, **kudeaketaren gardentasunak** oinarrizko eskakizuna izan behar du erakunde edo elkarte ororentzat, edozein irregulartasunek ahuldu egiten baitu herritarrek lortu nahi diren helburuetan izan behar duten konfiantza.

Gaur egun, **lege-esparru** egoki bat ematen ari zaio errealitate horri. Ildo horretan, Hirugarren Sektorearen Estatuko Legea onartu da, eta esparru hori finkatzen lagunduko duen Euskadiko Hirugarren Sektorearen Legearen proiektuaren izapideak aurreratuta daude.

Berdintasun formala gure Konstituzioan jasota badago ere (atzerritarrei dagokienez izan ezik, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Organikotik eta hura garatzen duen arauditik ondoriozta daitekeenez), gizarte-desberdintasunek eta generoari, sexu-orientazioari, etniari eta abar lotutako diskriminazioak beren horretan diraude. Eskubide ekonomikoak, gizarte-eskubideak eta kultura-eskubideak gainerako oinarrizko eskubide eta askatasunetatik bereizi ezin direla aldarrikatzen duen tesiaren aldeko egungo doktrina eta jurisprudentziaren zati handi baten arabera, eskubideen zatiezintasuna oinarrizko premisa da. Beraz, **gogoeta sakona egin behar dugu oraindik jatorri nazioanalagatikiko lege-desberdintasunei eustea justifikatzen duten arrazoiei eta eskubideen zatiezintasuna bermatuko duten tresna berrien premiari buruz.**

Gizarte-erakunde gehienek **diskurtso aurrerakoia** dute giza eskubideen baliatze unibertsalaren eta berdintasun materialaren printzipioaren inguruan. Hau da, gizakiok batzen gaituen eta partekatzen dugun horren inguruan. Ildo horretan, bidea irekitzen dute **gizarte-kontzientziaziorako eta, horren bidez, gizarte-eraldaketarako**. Erakunde horien proposamenek agenda politikoaren lehentasunak ezartzen dituzte askotan.

Azken batean, gizarte-erakunde askok egin dute aurrera berdintasunaren defentsa aktiboan eta haren eskakizun etiko, juridiko eta sozialean, eta oraindik ere badirauden desberdintasunen salaketan. Gizartearen zati batek beste jatorri nazional batzuetako pertsonen harremanaren ikuspegi instrumental eta utilitarista bat eta ijitoekiko arbuio atabiko bat du, genero-harreman desberdinak ezartzen ditu, eta ez du aniztasuna ulertzen eta onartzen identitatea edo sexualitatea adierazteko garaian. Zer den egokia edo zer baimendu daitekeen zehazteko garaian, oraindik ere badago harreman pertsonalak eta familia-

harremanak mugatzen dituen eta nortasunaren garapena eta kolektiboen dimentsio sozial, kultural eta ekonomikoa kaltetzen duen ikuskera bat. Ikuskera horren arabera, pertsona bati bere larruazalaren koloreagatik lokal batean sartzeko eta etxebizitza bat alokatzeko aukera edota lan-eskaintza bat ukatzea legitimatzen da, adibidez. Jarrera horiek agertzen dituztenek pertsona jakin batzuei zerbitzurik edo prestaziorik ez emateko eskatzen diete botere publikoei, merezi ez dituztelako edo desberdintasunak harmonizatzerik ez dagoelako. Jarrera atzerakoi horiek dituztenak ez dira konturatzen **gizarte-eraldaketako prozesu atzeraezinak daudela**, eta prozesu horien aurrean elkartze-elementuak bilatu beharko lirakeela, gizarte-kohesioa lortzeko. Halaber, ez dute ulertu eta barneratu Nazio Batuen Batzarrak 1948. urtean onartutako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 1. artikulua: *“Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute”*.

Asoziazionismoa premia bera zuten pertsonen gizareratzea errazteko bideetako bat izan da. Izan ere, elkarrekin soziazioa propioko guneak eta baliabide pertsonalen iturri dira, eta eskubideak, zerbitzuak eta prestazioak eskuratzea ahalbidetu dute, sektore publikoarekin lankidetzan. Gainera, kontsultarazketetan administrazioekin hitz egitearen bidez, ekintza politikoa egiten dute. Bestalde, xedapen orokorrak lantzen eta interes orokorreko administrazio-egintzak prestatzen parte hartzen dute. Halaber, administrazio-prozeduretan, administrazioarekiko auzien prozesuetan eta beste ekintza judizial batzuetan parte har dezakete. Ildo horretan, beren eskubide edo interes legitimoen errespetua lortzeko prozedura administratibo eta judizialak has ditzaketen eta prozedura horien parte izan daitezkeen eskubide-subjektuak dira.

Egiten dituzten jardunek dimentsio hirukoitza dute. Alde batetik, kalteberatasuna, desberdintasuna edota gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonen behar dituzten baliabide, zerbitzu eta prestazioen inguruko informazioa, soziazioa eta kudeaketa. Bestetik, elkarriketa politikoa eta ekintza administratibo eta judiziala. Azkenik, salaketa, sentsibilizazio eta kontzientziazio soziala.

Beraz, elkarrekin eta beste erakunde batzuen parte-hartzea funtsezkoa da beharrezkoak diren adostasunak lortzeko. Adostasun horiek, nolahi ere, gizarte-kohesioaren eta **bizirik dagoen gizarte zibilizatu eta erabat demokratiko** baten oinarriak dira. Erakunde horiek, gainera, **ezinbesteko agenteak** dira desberdintasunak errespetatzen dituen gizarte demokratiko inklusibo batean.

diskriminazioa ijitoen ikuspegitik

Óscar Vizarraga Muñoz
Kalé Dor Kayikó

"Konpondu gabeko arazo" esatea gutxi esatea da dagoeneko, baina egia da. Gutxi dirudi denak, errepikakorra dirudi, film bat ikustera joan eta hasi bezain laster **"Ba, hau ikusita daukat!"** esaten duzunean bezala.

Sortzetiko edo eskuratutako patologiak, ikasgeletako indarkeria, immigrazioa, sexu-orientazioari lotutako gaiak... Ijitoon kasuan, gure aldarrikapenek zentzua izan dezaten eta, besterik gabe, kultura gisa ditugun premiei buruz hitz egiteko aukera planteatzen badin, badirudi gizarteko sektore batzuen eta, askotan, erakundeen gaitzespena, arbuioa eta indarkeria fisikoa eta/edo hitzezkoa jasaten duten beste errealitate paralelo batzuekin batera aztertu behar direla.

Hori dela-eta, erabateko zentzua du tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sare bat sortzea eta edukitzea, eta horixe da, hain zuzen ere, Eraberean. Sare horren barruan, errealitate desberdinak bizi baditugu ere gaitzok gu ez garelako, inori kalte egiten ez diogula, gizartean oker dabilen eta dagoeneko ezer ez dela homogenea ikustea eragozten duen zerbait badagoela, aniztasunean aberastasuna dagoela, diskriminazioarekin, tolerantziarik ezarekin edo tratu txarrekin aberastasun horri uko egiten zaiola eta uko egiten zaionean aukerak galtzen direla eta krispazioa sortzen dela sentitzen dugun pertsonak, kolektiboak edo, gure kasuan, herriak elkarrekin egon gaitzke eta esperientziak parteka ditzakegu.

Krispazio hori ez da ingurunerik hurbilenean isolatuta dagoen gauza estatiko bat. Aitzitik, gizartearen eremu guztietara zabaltzen da: eremu politikora, mediatikora, komunitariora, eta, beraz, mundu sistemiko batean gaudenez gero, familia-eremura ere bai. Giza harremanek ere gizartearen "pandemia" hori jasaten dute, eta ez dakigu pandemia hori benetan tratatu edo sendatu nahi den, besteak zure kidekoak direla eta zure eskubide eta betebeharrak dituztela onartzearekin hasten baita tratamendua.

Ez ditugu inola ere gutxietsi nahi sarean sartuta dauden gainerako kolektiboetako kideek egunero jasaten dituzten erasoak, edozein motatakoak direla ere, baina egia da, eta onartu beharra dago, guztien artean ijito-herria dela historian jazarpenik, tratu txarrik eta erasorik handienak jasan dituen eta gehien erdeinatu dena.

1.000. urtearen inguruan Indiatik irten ginenetik izan dugun ibileran milaka ijitok edo, hobe esan, ehunka mila ijitok jasan dituzten jazarpen, erbesteratze eta heriotzek odoleztatu egin dute gure banderan dagoen gorpila, eta, bandera horren bidez, haien guztien oroimena iraunarazi nahi dugu, inork ahaztu ez ditzan honaino iristeko eta ijito izaten jarraitzeko bizi izan ditugun nekeak.

Askotan aipatzen dira, adibidez, Bigarren Mundu Gerran Hitlerren armadak hil zituen milioi-erdi juduak, baina gutxitan aipatzen dira, noizbait aipatzen badira, nazien kontzentrazio-esparruetan sarraskitu zituzten ijitoak (600.000 baino gehiago). Jakina, historiak errekonozitu egin ditu kontzentrazio-esparru horietan sarraskitutako pertsonak, eta diru kopuru handiak jarri ditu pertsona horien omenezko monumentuak jasotzeko, era horretan haien familiei nolabaiteko kalte-ordaina ematearren eta haien oroimen historikoa berrezartzearren, baina juduenak baino ez, ikusi besterik ez dago; berriz ere, ijitoak erdeinatu egin gaituzte, baita heriotzan ere, intelektual oportunistek.

Gure herriaren nomadismoa edo ageriko ibiltaritza, gure ustezko mundu-ikuskeran eta bidaiatzeko gogoan oinarritua, faltsukeria handia da inondik ere, ez baitago munduan lekurik gure herria ongi hartu duenik, eta ihesa izan da gure biziraupenaren berme bakarra.

“Jardunbide egokien” garaiak ere izan dira, hala nola XV. mendean Espainiara erromes iritsi ziren lehen ijitoei bizi izan zuten 74 urteko ongialdia, penintsulan finkatzeko asmoa jakinarazi zuten arte. Handik aurrera, asimilazio-prozesua hasi zen eta ijitoen aurkako legeak edo pragmatikak sortu ziren. Horien arabera, “ijito izateari eta gure hizkuntzan hitz egiteari utzi” behar zitzaion, 100 zigorkada jasotzeko, belarriak edo mingaina mozteko edota bizitza osoan galeretara eramateko zigorra ezarrita. Nolanahi ere, betebeharrak bere horretan jarraitzen du gaur egun ere, ezartzen dizkiguten basakeriak aldatuta eta basakeria horien ezarpena nolabait ere baimenduta.

Paperak dena onartzen du, baina ezin dugu esan ijito-herria gizartearentzako mehatxua denik, inondik ere. Esaniezadazue bestela: ba al dago ijitoen mugimendu iraultzaile, integrista edo terrorista bat duen herrialderik? Ba al dago Estatuko, probintziako, eskualdeko edo herriko gaietan presioa edo agintea ezartzeko boterea lortu nahi duen ijitoen alderdi politikorik? Neuk esango dizuet: EZ DAGO halakorik. Izan ere, gure familia da funtsa ijitoontzat; gure gizartea piramidala, patriarkala eta patrilineala da, adin-talde batzuetan antolatutako familia zabaletan banatua. Talde horietako bakoitzak rol bat dauka, eta ahal bezain ongi bete behar du rol hori bizitza osoan, ijito bakoitzaren bizi-ibilbidearen arabera hartuko baitu komunitateak errespetuzko gizon edo emakumetzat. Eta pertsona horiek dira, hain zuzen ere, beren familian dauden adin-talde guztietan agintea dutenak. Gainera, beste familia batzuek kontsulta egiten diete sortzen diren gaztazkak konpontzen lagun diezaieten.

SAREAREN JARDUERARI BURUZKO 2015EKO TXOSTENA

Hori guztia aldatu egin behar da. Horretarako eta horregatik gaude sare honetan sartuta, eta horregatik elkartu nahi dugu gure ahotsa eta gure indarra hau dena aldatzeko gogoia duten beste pertsona batzuen ahots eta indarrarekin; eta are gehiago: parte aktibo izan nahi dugu aldaketa horretan, eta MUNDU HOBEA utzi nahi diegu gure seme-alabei eta gainerakoenei.

migratzaile eta errefuxiatuen aurkako diskriminazioaren alderdi gizagabea

Rosabel Argote Ve

CEAR-Euskadi

Mikel Mazkieran López de Goikoetxea

SOS Arrazakeria Gipuzkoa

Diskriminazio adeitsua

Eraberean sareak kontuan hartzen dituen diskriminazio-arrazoen artean, arrazakeria izango da, seguruenik, gizartean arbuiorik handiena sorrarazten duena. Pertsona talde osoak suntsitzeko ahaleginei lotutako arrazoi historikoengatik baino ez bada ere (Armeniako genozidioa, Holokaustoa edo, berrikiago, antzinako Jugoslaviako eta Ruandako gatazkak), inori ez zaigu gustatzen arrazistak garela entzutea. Hala ere, arrazakeria eta xenofobia gure eguneroko paisaiaren parte dira.

Diskriminatzen duen bakoitzean –eta askotan diskriminatzen du– larriki zauritzen duen gizarte batean bizi gara. Gure auzoko atzerritarren duintasuna zauritzen du, bidezko gizarte gisa bereizten gaituen balio unibertsalen sistemaren osotasuna zauritzen du, eta gizarte-sarearen osasuna zauritzen du sustraieetatik hasita. Izan ere, diskriminatzen den bakoitzean zapaltzen diren giza eskubideen lurrean landatuta daude sustrai horiek.

Zauri horien zornearen usainak goragalea eragiten du herritarrengan, oro har, eta diskriminazio-ekintzen biktima bakoitzarengan, bereziki.

Arrazakeria biologikoaren garaia gainditu ondoren, eta terminoaren definiziorik akademikoenak alde batera utzita (arrazakeria biologikoa, sinbolikoa, kulturala eta abar), Fernando Rey Martínezen “arrazakeria likido” terminoa aukeratuko dugu guk, definiziorik egokiena baita balio ahulen gizarte arin honetan. Fernando Reyk berak azaldu duenez, arrazakeria likido hori guztiz okerrekoa da moralaren, gizartearen, kulturaren eta legeen ikuspuntutik herritar gehienentzat, baina ideologikoki zapaltzen den aldi berean, behin eta berriz agertzen da etxebizitza bat alokatzean, beloa daraman emakume batenaren ondoko eserlekua hutsik geratzen denean, abizen arabiarrek dituen pertsona baten curriculumaz baztertzen denean eta abar.

2015. urtean arrazakeriari eta xenofobiari dagokionez jaso diren kasuak oso lotuta daude gizarte-harremanetan gero eta neurri handiagoan normalizatzen ari den arrazakeria bigun horrekin. Eta kasu asko ez badira ere, haien jarraipena egiteak aukera eman du "bazterkeria adeitsuko" arrazakeria hori jasan duten pertsonen frustrazio- eta amorru-sentimendu horiek ezagutu ahal izateko.

Arrazakeria jasaten duten pertsonen zer pentsatzen duten jakitea funtsezkoa da erantzun-ekintzak egiteko. Euskal Autonomia Erkidegoan, ez dago gaiari buruzko azterlan zehatzik, baina Atzerriko Etorkinen gaineko Inkestaren (AEI) 2014ko edizioak gai horri buruzko datu batzuk ematen ditu. Adibidez, Senegaletik iritsitako pertsonen % 23,5ek adierazi dute arrazakeriari lotutako arazoren bat izan dutela, eta % 8,2k larritzat hartu dute arazo hori. Senegaldarren atzetik, Boliviatik iritsitakoek % 23,4k eta Kolonbia, Ekuador eta Perutik iritsitakoek % 21,1ek adierazi dute arazoren bat izan dutela. Magrebetik eta Errumaniatik etorritakoak ere antzeko proportzioetan daude (% 20,7 eta % 19,7, hurrenez hurren). Arrazakeriari lotutako arazoren bat jasan izanaren pertzepzioari dagokionez, adierazitako kolektiboan artean Magrebekoak 3 puntutan egin du gora 2010. urtearekin alderatuta, eta ehuneko berean egin du behera, 2010. urtearekin alderatuta, arazo horiek oso larritzat hartzen dituztenen kasuan.

Arazo mota zehazteko garaian, erdiak baino gehiago irain, jarrera, aurreiritzi edo iruzkin arrazista edo xenofobo orokorrak (% 32,6) eta erasoak, jazarpena, tratu txarrak edo indarkeria (% 20,5) izan dira. Azken talde horren proportzioa ia erdira jaitsi da 2010. urtearekin alderatuta, eta irainek eta iruzkinek, berriz, 3 puntutan egin dute gora. Erljioari lotutako arazoak Magrebeko pertsonen jasan dituzte batez ere, eta erasoak, berriz, Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak eta Senegaletik iritsitako pertsonen, antzeko proportzioan.

Diskriminazioaren ehun eta laurogeita hamabost mila abizenak

Atzeritarrek arrazakeriagatik jasaten duten diskriminazioa kuantifikatzean kontuan hartu beharreko alderdi bat diskriminazioa jasan izanaren pertzepzio subjektiboaren eta objektiboki halakotzat hartutako diskriminazioaren arteko desberdintasuna da. Arraza Berdintasunerako Kontseiluaren 2011ko Txostenak datu interesgarri bat ematen du horren inguruan. Inkesta egin dutenetako askok barneratu egin dute beren inguruko irudi negatiboa, eta propio, natural edo normal gisa onartu dute. Ildo horretan, lautik batek baino gehiagok ez daki zer esan nahi duen "etnia/arrazagatiko diskriminazio" kontzeptuak. % 32,7k adierazi du diskriminazio-egoera bat bizi izan duela azken urtean, biktima edo lekuko gisa (Saharaz hegoaldekoek eta ijitoek neurri handiagoan: % 48k eta % 38k; eta India/Pakistangoek neurri txikiagoan: % 12,3k), baina halako egoerarik bizi izan ez zutela erantzun zutenen % 64k jasan egin zuten diskriminazio motaren bat (inkestan jasotakoek arteko bat). Eta, bestalde, biktimek errezeloak izaten dituzte diskriminazioak ondorioak izan dituela onartzeko (pena edo ondoeza, gehiengoaren gizartearekiko mesfidantza handiagoa, beldurra edo isolamendua jasan dutela adierazten badute ere). Bestela esanda, alde handia dago diskriminazio objektiboaren eta zer eskubide dituen ez dakien biktimak diskriminazio horretaz duen pertzepzio subjektiboaren artean.

Eta gai honen inguruan ikusi ditugun, baina sarean dauden gainerako ikuspegietara eta, oro har, diskriminazio-jardunetara zabal daitezkeen berezitasunekin jarraituz, salaketa kopuru txikia aipatu beharra dago. Diskriminazioa Desagerrarazteko Kontseiluak "Biktima potentzialek arraza edo etniगतिको diskriminazioaz duten pertzepzioari" buruz egindako Txostenaren 2013ko datuen arabera, azken urtean diskriminazio-egoera bat bizi izan zutela adierazi zuten guztien (36 pertsona) % 10,2k aurkeztu zuten kexa, erreklamazio edo salaketaren bat zerbitzu publikoren batean, elkarte edo GKEren batean, Arartekoan edota, zuzenean, polizia edo epaitegian.

Txosten horren beste atal batean, salaketa kopuru txiki horren arrazoï posibleak jasotzen dira. Horrela, beraz, hemen hautatu ditugun kasuak arazoari lotutako kasurik nabarmenenetako batzuk baino ez dira. Nolanahi ere, erakundeen eta etorkinen kolektiboen ahalegin handiagoak behar dira arazoari aurre egiteko.

Atzerritarrek diskriminazioa nola hautematen duten ikusi dugu orain arte. Arrazakeriaren argazkia osatzeko, bertako herritarrek atzerritarrak nola ikusten dituzten aztertu behar dugu. Horretarako, Ikuspegik estereotipoek (hots, talde bateko kideen inguruko orokortze edo sinesmenei) buruz egindako 2015eko barometroaren datu batzuk aipatuko ditugu. Estereotipoek aurreiritziak sortzen dituzte, eta, askotan, diskriminazio-ekintzaren aurreko fasea dira aurreiritzi horiek. Euskadiko herritarren % 54,2k uste dute etorkinek neurri handiegian baliatzen dutela gizarte-babeseko sistema, eta % 26,4k kontrakoa pentsatzen dute. Euskadiko herritarren erdiek (% 51,9k) diotenez, etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi dira, eta % 44k uste dute immigrazioarekin matxismoak eta genero-indarkeriak gora egiten dutela. Datu horiek 2014ko Barometroaren aldean izan duten bilakaera alde batera utzita, estereotipoak aurreiritzira daramaten bidezidor mentalak baino ez dira. Eta era horretan sortzen den aurreiritzi zoliak artikulu honen hasieran aipatu dugun arrazakeria likidoa sorrarazten du. Arrazakeria hori, terminoaren formulazio akademikoago batean, honako arrazakeria mota hauetan islatzen da: arrazakeria sinbolikoa (arrazakeria tradizionala baztertzen da, baina desberdina denarekiko aurreiritziak agertzen dira, zeharka bada ere), arrazakeria anibalentea (arraza-talde estigmatizatuenganako sentimendu positiboek eta negatiboek arteko gatazka emozionala eragiten da), arrazakeria modernoa (arrazakeria okerreko hartzen da, baina, aldi berean, arraza-gutxiengoak desberdintzat hartzen dira), edota arrazakeria abertsiboa (berdintasun-printzipioetan –hala nola arraza-berdintasunean– sinesten da, baina arraza-gutxiengoenganako abertsio pertsonala sentitzen da).

Kategorizazio horiek guztiak arrazakeriaren ikuspegitik txosten horretarako hautatu diren kasuetako batzuetan aurki daitezke. Adibidez, boutique batean arropa erostera sartzen den eta dendariak lapurra izan daitekeelakoan disimuluz (edo disimulurik gabe) zelatan dituen gizon magrebtar batek maiz bizi dezakeen egoera aipa daiteke. Beste adibide bat gaztelaniaz ongi ez dakien, enplegu bila dabilen eta enpresa batera enplegu-eskaintza bati buruz galdetzeko deitzen duenean eskaintza bete gabe egon arren beteta dagoela erantzuten dioten (Eraberean sareak kasu batean egiaztatu zuenez) atzerritar batena izan daiteke.

Estatistika ofizialak ez dira diskriminazioaren isla (ezta gutxi gorabeherakoa ere), eta esan dezakegu azken batean migratzaile eta errefuxiatuen kolektiboaren kontrako diskriminazioak gure lurraldean bizi diren migratzaile eta errefuxiatu adina aurpegi dituela. Hau da, ehun eta laurogeita hamabost mila abizen ditu zehazki, gaur egun Euskadin bizi diren eta, salbuespen gutxirekin, diskriminazio-ekintzen biktimak edo balizko biktimak diren atzerritarrenak, alegia. Kopuru horretan, ez ditugu kontuan hartu bigarren edo hirugarren belaunaldiak, hau da, nazionalitatea eskuratu duten eta atzerritarren estatistiketan sartzen ez diren, baina beren aurpegieragatik edo beste ezaugarri batzuegatik diskriminazio-ekintzen biktimak izan daitezkeen pertsonak. Horren arrazoia egungo gizarte-testuinguruari lotuta dago. Izan ere, testuinguru horretan ez dago tratu-berdintasunik pertsona guztientzat, jatorri nazionala, etnikoa edo arrazakoa, hizkuntza, erlijioa, identitatea eta abar edozein izanik ere.

Aterpe-gizartea?

Pertsona guztienganako tratu-berdintasunik ezaren eta diskriminazioaren testuinguru horretan, diskriminazio-ekintzak gertatzen dira tamalez, ondorio penalik ez dutenak eta badutenak (azken horiek gorroto-delituak dira). Ekintza horietan, ezin kalkulatzeko eragina duten kalte fisiko eta/edo emozionalak eragiten zaizkie biktimei. Duintasuna eta oinarrizko eskubideak urratzen edo laidoztatzen dituzten jarrerak, portaerak edo adierazpideak jasaten dituzte biktimek uko egin ezin dieten ezaugarriak (ezaugarri fenotipiko jakin batzuk) edota uko egin nahi ez dieten ezaugarriak (erlijio-sinesmenak) edukitzeagatik. Hainbat arrazorengatik beren herrialdetik alde egin eta Euskadira bizi-proiektu batekin iriste hutsagatik baztertu, bereizi eta zigortzeko ekintzen biktimak dira. Diskriminazio-ekintza horiek min ematen dute, odola ateratzen dute eta Euskadin ditugun askotariko jatorri kultural/etniko/nazionalako auzokoen osotasuna urratzen dute. Diskriminazio horiek, berez, sortzen dituen eta askotan beren ondorio zitalen aurrean isilik geratzen den gizartearen alderdirik zikin eta gizagabeena uzten dute agerian.

Azken batean, gure sistemak beheagoko mailako pertsonatzat hartzen ditu larruzalaren kolore, erlijio-sinesbide, kultura-identitate edo etnia desberdina duten pertsonak, eta horregatik zuzentzen da diskriminazioa pertsona horien aurka batez ere. Diskriminazioak ez du kontuan hartzen pertsona guztiak berdinak garela, baina duintasun eta eskubide berdinak ditugula ezartzen duen oinarrizko printzipioa.

Horren guztiaren ondorioz, diskriminazioa gure gizarte-sistemaren gaitzik handi eta gaitzesgarrienetako bat da oraindik ere. Eta gure gizarte-sistemak ez du behar adina aurrera egiten diskriminazioaren eta gorroto-delituen biktimak errekonozitzeko eta erakunde-babesa emateko zereginean. Ez du behar adina aurrera egiten diskriminazio-ekintza eta delitu horien zigorgabetasuna ahalbidetzen duten guneak desagerrarazteko zereginean. Laburbilduz, oraindik ere gertatzen diren diskriminazio-kasuei eta gorroto-delituei lotutako prebentzioaren, jardunaren eta biktimen erreparazioaren arazoak konpondu gabe jarraitzen du.

Eraberean sareak ondorio penalik ez duten eta harreman pribatuen eremuan gertatzen diren diskriminazio-ekintzetan dihardu nagusiki. Izan ere, diskriminazio-ekintza horiek gaur egun falta zaigun arau integral bat behar dute lehenbailehen. Ondoren labur-labur aipatuko ditugun kasuetako asko aurreiritzietan oinarritutako jarreraren isla dira. Izan ere, ez dugu ahaztu behar aurreiritziei bidea libre uzteak gure auzokoa, supermerkatuan dagoen gazte magrebtarra eta abar diskriminatzea dakarrela.

Lanbideren ikastaro bat utzi behar izatea kideen iruzkin arrazista eta gutxiesgarriak jasanezinak direlako oso esperientzia gogorra da. Duintasun eta adore handia behar da probokazio horiei indarkeriaz ez erantzuteko. Egunero entzuten den "lana kentzen diguzue" iruzkina –edo antzekoak– eraso arrazista da, eta seguruenik ez du ondorio judizialik (eta, izango balu, isun txiki bat ezarriko litzateke gehienez). Baina pertsona baten bizitza zapuztu dezake.

Gauza bera gertatzen da auzokoen arteko gatazka batzuetan, jatorri nazionala edo kultura salaketa funsgabeen xede bihurtzen direnean, auzoko errumaniar batzuei Gasteizko etxebizitza-bloke batean gertatu zitzaizen bezala.

Are adierazgarriagoa da neska dominikar batzuek bizi izandako esperientzia desatsegina. Joan nahi zuten etxebizitza batera iristean okerreko txirrina jotzea izan zen haien "delitua". Aurreiritziz betetako auzoko batek poliziarri deitu zion, eta poliziak gaiari garrantzia kendu ordez, bertaratu eta neskei dokumentazioa eskatu zien. Gasteizko Udaltzaingoaren jokabide hori aurreiritzien ikuspegitik baino ez dago ulertzerik. Pentsa dezagun pixka batean geu garela parke batean seme-alabekin gaudenak eta polizia-agente bat hurbildu eta dokumentazioa eskatzen digula.

Edota Gasteizko saltoki batean erosketak egiten ari garela eta establezimenduko kutxazainak lapurtu egin dugula edo, besterik gabe, lapurtzeko asmoa dugula esaten digula. Ondorengo desenkusak ez dira nahikoak eragindako kaltea zuzentzeko.

Aurreko guztiak Eraberean sareak 2015. urtean aztertu dituen hamabi kasuetako batzuk baino ez dira, eta ongi erakusten dute XXI. mendean oraindik ere diskriminazio-ekintza gaitzesgarriak egiten direla (delitu gisa tipifikatuak edo tipifikatu gabeak) eta "doakoak" izan daitezkeela, hau da, diskriminatzailea zenbaitetan zigorrik gabe geratzen dela.

Doakotasun hori onartezina da, are gehiago une politiko eta historiko honetan, herritarrek eta hainbat siglatako ordezkari politikoek Euskadiko hiri eta herri batzuk "aterpe-udalerriak" izateko asmoa adierazi dutenean.

Izan ere, Euskadiko elkartasun-espirtua bete-betean mobilizatu da Siriako gatazka areagotu denean. Eta erakundeek eta gizarte zibilak euskal probintziak errefuxiatuentzako harrera-lurralde izateko eskatu dute publikoki (Siria, Eritrea, Irak eta Afganistango herritarrek jasaten duten krisi humanitariotik ihes egin duten errefuxiatuentzat zein munduko beste leku batzuetan ahaztuta baina aktibo dauden beste gatazka askotatik iritsitako errefuxiatuentzat). Eraberean sarean, funtsezko

galdera bat planteatu dugu, hau da, errefuxiatuak gure artera iritsi ahala gure gizarte-sistema gai izango ote den errefuxiatu horiek tratu-berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko esparru batean hartzeko. Izan ere, zalantza dugu pertsona horiek urrun dauden bitartean haien giza eskubide unibertsalak defendatzeaz gain jakingo ote dugun pertsona horiek defendatzen, babesten eta bermatzen hemen ditugunean.

LGTBI-en ikuspegia: galderak eta zergatiak

Elena Olaortua González
Aldarte
Jesús Estomba Olasagasti
Gehitu

Zergatik nik ez? Zergatik ezin naiz egon parkeko eserleku batean nire mutilarekin eskutik helduta, inork hori desegokitzat har dezakeen beldur egon gabe? Zergatik... inork ezer aurpegiratu, iraindu eta ondoren jo gabe? Erantzunak behar dituzten galderak dira, edozein gaztek edozein hiritan, baina ez edozein garaitan egin ditzakeen galderak. Oraingo galderak oraingo gertaeren aurrean.

Ez lukete gertatu behar, baina gertatzen dira: zentsuratutako adierazpenak, zigortutako afektuak. Gure ingurune hurbileko gazteekin berriki egindako ikerketa batzuetan¹ agerian geratu da aspaldiko kontua dirudien, baina tamalez oraindik ere badirauen errealitatea. Ikerketa horietan lortutako datuen arabera, garbi dago sexualitateen ordena hierarkiko batek zehazten duela zer den edo zer ez den egokia, eta, beraz, afektuak eta portaerak programatzen dituela. Barne-bizipenei jarraikiz, espazio publikoetan egiten diren adierazpen afektiboen onarpen-maila askoz txikiagoa da sexu bereko pertsonen kasuan sexu desberdinekoen kasuan baino. Aurrean dugun errealitatea da, eta bereziki nabarmena da adierazpen horien egileak eta ikusleak mutilak direnean.

Zergatik nik ez? Zergatik ezin dut beste edonorenaren antzeko bizitza bat izan, nire sexu-orientazioagatik agiraka egiten didaten eta iraintzen nauten gazteen etengabeko jazarpena jasan behar izan gabe? Zergatik planteatu behar dut jaio nintzen eta beti bizi izan naizen udalerritik alde egiteko aukera nire duintasunari eusteko?

Luzaroan iraun duen egoera bat bizitzeaz nekatuta dagoen pertsona heldu baten galderak dira. Edonork edozein hiritan, baina ez edozein garaitan egin ditzakeen galderak. Oraingo galderak oraingo gertaeren aurrean, berriz ere.

¹ Aniztasun afektibo-sexualaren aurreko jarrerak. 2013-2014 ikasturtea. Berdindu 2014.

Arestian aipatutako iturriek agerian uzten dute gazteen imajinarioan oso maiz eta oso erraz ezartzen direla arauzkoak ez diren sexualitateen inguruko asoziazio peioratiboak, azaldutakoa bezalako egoeren oinarri kaltegarriak direnak. Iturri horiek agerian uzten dute, halaber, hori guztia bereziki nabaria dela gizonezkoen homosexualitateari dagokionez (beste errealitate batzuk –lesbianismoa edo transexualitatea, adibidez– imajinario kolektiboan neurri txikiagoan ezarrita daudelako beharbada). Kasu honetan, Barne Ministerioak joan den urtean eta 2014ko datuei dagokienez argitaratu zuen txostena aipatuko dugu. Txosten horren arabera, sexu-orientazioa da aldi horretan Estatuan jasotako salaketan arrazoi nagusia².

Zergatik nik ez? Zergatik ezin dut egin beti atsegin izan dudana eta beti egin izan dudana kirola nire pertsonari eta nire sentitzeari jarraikiz dagokidan kategorian? Zergatik egin behar diot uko horri? Itxuragatik zenbaitek kontrakoa pentsa dezakeen arren beti emakumea izan den pertsona baten galderak dira.

Bistakoa da generoak maila pertsonal eta sozialean egituratzen gaituela. Patroi zurrun eta zorrotz batzuek nolabaiteko sare funtzional bat osatze dute, baina ez dator bat errealitatearekin, edozein kategoriak ezar dezakeena baino aberatsagoa eta askotarikoagoa baita errealitatea. Patroi horiek, edonola ere, norbaitek ameskeria agerian utzi eta oreka faltua salatzen duen arte funtzionatzen dute. Gizarte-ordena hierarkiko, estanko eta partzial bat, errealitatearekin bat ez datorren eta aniztasuna kontuan hartzen ez duen ordena bat osatzen duten patroiak dira. Nolanahi ere, gutxi dira aniztasun horri erreparatu diotenak, eta ezer gutxi erakutsi digute aniztasun horri buruz. Adierazitakoaren ondorioz, egitura horrek kanpo geratzen diren pertsonen kontrako diskriminazioa sustatzen eta errazten du.

Eta puntu honetara iritsita, zergatik ez dugu ikusezintasuna aipatzen? LGTBI pertsonen ikusezintasunak bizirik dirau oraindik, eta askatasun osoz garatzea eragozten die pertsonari. Egia da lege-aurrerapenak eta gizarte-aurrerapenak egin direla, baina egia da, halaber, LGTBI pertsona asko beldur direla, oraindik ere, beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea publikoki adierazteko.

Gaur egun, oraindik ere, taldeetara joaten direnean ingurukoei nora doazen esaten ez dieten pertsonak ikusten ditugu gure lanean, edota besteek esango dutenaren beldurragatik bizitza bikoitza daramaten pertsonak eta bullyngaren biktimak izatearen beldurragatik mutil edo neska bat gustuko dutela esatera ausartzen ez diren gazteak.

Ikusezintasun hori bizitzaren eremu guztietan gertatzen da, eta oso lotuta dago LGTBI pertsonen diskriminazio-egoerak bizitzeko eta haiei aurre egiteko duten moduarekin. Ondoren, lan-eremuari lotutako eta “Lesbianak legez eta bidez” azterlanetik³ ateratako adibide batzuk emango ditugu:

² Espainiako gorroto-delituei lotutako gertakariei buruzko txostena. Barne Ministerioa, 2014.

³ Lesbianak legez eta bidez. Begiratu bat: EAEko gizarte-baliabideei dagokienez, emakume lesbianek dituzten aukerak eta erabilerak. Aldarte, Emakunde Beka, 2013.

"Esango banu, aldaketa ikaragarria izango litzateke, tratua eta guztia. Orain ze jatorra eta ze guay dioten lekuan, piperropil eta tortillera esatera pasako lirateke. Bizitza osoa aldatuko litzaidake, okerrera baina. Zazpi hilabete daramatzat han, eta argi daukat ez dudala lesbiana naizela esango".

Bizipen erabatekoa eta suntsitzailea, lan-eremuari lotutako honako testigantza hau bezalakoa:

"Ez nien esan lesbiana nintzela horrek nire lanpostua arriskua jar zezakeelako".

Ikusezintasun diogu, baina, azken batean, eskubideez ari gara, oinarritzko eskubideak baliatzeko ezintasunaz. Egia da azken urteotan lege-aurrerapen handiak egin direla LGBTBI pertsonen eskubideen arloan, baina lege-berdintasuna ez da berdintasun erreala.

Pertsona asko ez dira ausartzen beren eskubideak baliaraztera, horrek agerian geratzea baitakar. Izan ere, horrek ondorio txarrak ditu askotan, eta eskubideak baliatzeari uzteko erabakia hartzen dute.

"Une honetantxe, eta nagoen lanean egonda, ez dut izatezko bikote egin eta egun libreak eskatzeko inolako asmorik. Aurreko lanean eskatuko nituzkeen, baina oraingoan ez".

Uste sendo bat eta uko argi bat erakusten du horrek: oinarritzko eskubide bat baliatzeari uztea horrek ondorio negatiboak izango dituelakoan. Eta ez dira kasu irrealak edo bakanak. Jakin badakigu pertsona asko direla beren sexualitatea askatasun osoz bizitzera ausartzen ez direnak, errepresalien, arbuioaren eta, azken batean, diskriminazioaren beldur. Edota diskriminazio-egoerak jasan izan arren, adierazitako guztiagatik egoerari aurre egitera ausartu ez direnak: homofobia-erasoak jasan dituzten eta familiak gayak zirela jakingo zuelako edota ezertarako balio izango ez zuen sentsazioa zutelako eraso horiek salatzea ausartu ez diren pertsonak, lesbianak izateagatik etxebizitza jakin bat alokatzerik izan ez duten eta hori salatzea ausartu ez diren pertsonak, edota establezimendu publiko batean beren dokumentazioa aurkeztu dutenean diskriminazioaren biktimak izan diren eta zer egin zezaketen edo nora joan zitezkeen ez zekitelako ezer ez egitea erabaki duten transexualak.

Ikusezintasuna isolamendu-sentsazio bati lotuta dago sarritan, diskriminazio-ekintza bati aurre egiteko nora eta norengana joaterik ez dagoen edota horretarako aukera izanik ere ezer lortuko ez den sentsazioari, alegia.

Orain arte azaldutakoa errealitatearen isla da, LGBTBlen eremuan agertzen diren egoeren adierazlea. Egoera horiek, jakina, beren berezitasuna dute, baina beharbada ez dira beste pertsona batzuek beste arrazoi batzuegatik bizi dituztenen oso desberdinak. Azpian dauden elementuei dagokienez bederen. Izan ere, arreta bazterkeria-mekanismoetan jartzen badugu, patroi komun bat aurkituko dugu seguruenik, testuinguru eta kasuistika desberdinetan agertzen den ardatz bera, alegia. Eta patroi horrek, gizarte-ordenaren printzipioan babestuta, errealitatea zurrundu eta mugatu egiten du, eta gizarte-ordena hori neurri handiagoan edo txikiagoan zalantzan jartzen duen pertsona oro diskriminatu, baztertu, laidoztatu edo gutxietsi egiten du.

Eraberean sarea horren guztiaren jakitun da, baita sare horretan LGBTBlen ikuspegiaren ekarpena egiten dugun erakundeok ere. Mekanismo komunak badaude, zergatik ez dugu lan komun baten bidez

jarduten? Idazki hau, hasieran adierazi dugunez, zergatia bilatzen duten galdera eta egoeren laburpen bat da. Baina beharbada hori ez da egia, zergatiak nabariak baitira. Seguruenik egokiagoa izango da soluzioa behar duten gaien laburpen bat dela esatea. Izan ere, hainbat mailatan eta lan komun baten esparruan ordena berri bat sortzen lagunduko duten soluzio poliedrikoak behar dira. Ordena berri horretan, berdintasuna –hain kontzeptu erabili hori– ez da utopia izango, errealitate baizik.

Eta horixe da Eraberean, *tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea*. Sarea, beraz, oso ekimen garrantzitsua da guretzat, bizi duen egoeran ulertua izateko gune bat eta babes, bere eskariaren erantzuna eta diskriminazio-egoerei (sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioei, gure kasuan) aurre egiteko profesionaltasuna eskaintzen baitio pertsonari.

Gure esperientziari jarraikiz, sareak legitimatu egiten du laguntza jasotzen duten pertsonen salaketa, eta hainbestetan aintzat hartu ez diren eskubideen bermatzailea da pertsona horientzat.

Horixe da mugitzen gaituen espiritua eta gure gain hartu dugun erronka.



1 . kapitulua aurkezpena

1. kapitulua. aurkezpena

1.1. Aurrekariak

Euskarazko era berean esamoldeak, gertaera baten modua ez ezik, gertaera horren denbora ere adierazten du. Bigarren adiera horrek *aldi berean* edo *batera* esan nahi du. Nolanahi ere, bi adierak datoz bat sarearen zentzu, eginkizun eta helburuekin. Lehena tratu-berdintasuna aldarrikatzen duelako, eta bigarrena aniztasunaren arloan diharduten gizarte-erakundeek adierazitako indar-ideia bat islatzen duelako (aniztasuna eta berdintasuna aldi berean daudela eta biak neurri berean aldarrikatzeko modukoak eta uko egin ezinezkoak direla dioen indar-ideia, alegia).

Simplifikatzeko asmoz, berez bi hitz direnak hitz bakar batean elkartzea erabaki da, eta forma hori sarearen izen bihurtu da.

Eraberean sarea Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzaren (Zuzendaritza, aurrerantzean) bitartez bultzatutako ekimena da, honako premia hauek egiaztatu zituen diagnostiko bat egin ondoren bultzatutakoa, hain zuzen ere:

- Politika publikoetan tratu-berdintasunaren printzipioa eta diskriminazioaren aurkako borroka txertatzeko aukera sustatu eta areagotzea.
- Zuzendaritzaren eskumen-esparruaren (migrazioak, ijito-herriaren sustapena eta LGTBI kolektiboak) barruko arrazoiengatik gertatutako diskriminazioari aurre egiteko mekanismo partekatuak zehazten aurrera egitea. Eskumen-erreferentzia horiek sarearen hiru ikuspegiak osatzen dituzte, hau da, sareak diskriminazioaren aurka egiten duen lanaren xede diren hiru kolektibo nagusiak. Hiru ikuspegi horiek bi diskriminazio-arrazoiren ondorioz sortzen dira (jatorria, etnia eta nazionalitatea alde batetik, eta sexu-orientazioa eta genero-identitatea bestetik). Eta, hori guztia, sarea osatzen duten erakunde eta agente guztiek erabakitzen dutenean sarearen lanaren xede diren diskriminazio-arrazoiak zabaltzen joateko aukera galarazi gabe.
- Bereziki eremu pribatuan gertatzen diren diskriminazio-gertakariei edo diskriminazio-tratuei erantzutea, eremu horretan baitaude babes-mekanismo gutxien. Nolanahi ere, harreman-

testuinguru eta harreman mota ugari (lana, kontsumoa, etxebizitza eta aisia, besteak beste) biltzen dituen eremua hartu behar dugu eremu pribatutzat. Eraberean sarearen planteamenduari jarraikiz, eremu pribatuan gertatzen diren diskriminazioen aurrean eremu publikoaren erantzuna antola daiteke, betiere giza eskubideak babesteko xedez.

- Mekanismo horiek antolatzea eta sendotze- eta osagarritasun-sinergiak ezartzea, beste diskriminazio-arrazoi batzuetarako (sexuagatiko diskriminazioaren kasurako, adibidez) daudenekin zein gizarte zibileko erakundeek historikoki garatutako ekimenekin.

Premia horiek egiaztatzean egin zen apustu politikoa barne-mailan bideratu zen hasiera batean, Zuzendaritzako eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren titulartasunpeko zerbitzu eta egitura espezializatuetako langileek osatutako gogoeta-talde baten bitartez: Berdinu, gay, lesbiana, bisexual, transexual eta intersexualen arretarako Euskal Zerbitzua; Biltzen, Integrazioarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Kontseilua aurrerantzean) Idazkaritza Teknikoa.

Gogoeta-talde horrek sarearen tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren (TBDE, aurrerantzean) arloko lana zehazteko oinarritzko zenbait elementu identifikatu, eta oinarritzko erreferentziak zehaztu zituen. Horietako bat, garrantzitsuena beharbada, hirugarren sektoreko erakundeekiko lankidetzaredu batean aurrera egitea izan zen, erreferentzia garrantzitsua baitzen adierazitako arrazoiengatiko diskriminazioaren biktimak izan zitezkeen pertsona eta taldeentzat, betiere sarearen hiru ikuspegiekin zuzenean lotuta.

Gogoeta egiteko eta premiak detektatzeko lehen fasearen ondoren, eztabaidan parte hartzea eta, erakunde bakoitzaren erabakiaren arabera, sarean lan egiteko lankidetz-ekimen horri atxikitzea gonbidatu zen hirugarren sektoreko ordezkariak adierazgarri bat bigarren fasean.

Bigarren fase horren emaitza Autonomia Erkidegoko lan-sare bat eratzeko adostasuna izan zen, esku hartzeko eredu partekatu batekin eta 12 gizarte-erakundek eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak (haren Zuzendaritzaren bitartez) hartutako atxikipen-konpromisoarekin.

2014ko abenduaren 26an, sarearen lehen aurkezpen publikoa egin zen, garai hartan Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua zen Juan Maria Aburtok eta sarean ordezkariak zeuden hiru ikuspegietako (migrazioak, ijito-herria eta LGTBI) gizarte-erakundeei lotutako pertsonen komunikabideen aurrean egin zuten agerpen baten bidez¹.

¹ *Aburtok tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Eraberean Sarea aurkeztu du.* www.irekia.euskadi.eus/eu/news/23836-aburto-presenta-red-eraberean-para-igualdad-trato-discriminacion?criterio_id=906276&track=1

el correo • 2014/12/27

El Gobierno vasco y doce ONG crean una «red» para luchar contra la discriminación



DAVID S. OLABARRÍ

✉ dolabarrí@elcorreo.com

Las organizaciones actuarán de «antenas» para detectar vulneraciones de derechos de origen racial, étnico o sexual

BILBAO. «La Red nos hace más fuertes». El Gobierno vasco y doce organizaciones que trabajan en favor de la integración social de los inmigrantes, los gitanos y las personas con opciones sexuales distintas han puesto en marcha una iniciativa que persigue unir esfuerzos para luchar contra la discriminación que sufren estos colectivos. El proyecto Eraberean tiene reservado para el 2015 una dotación presupuestaria de 80.000 euros con el objetivo de empezar a actuar ya como una «antena» que, gracias a la conexión de los distintos colectivos implicados, permitirá detectar situaciones discriminatorias y atender a las personas que vean vulnerados sus derechos.

La Red para la Igualdad de Trato y no Discriminación fue presentada ayer en Bilbao por el consejero de Empleo y Asuntos Sociales, Juan María Aburto, y algunos representantes de las entidades que forman parte del programa. Entre los mismos figuran Cruz Roja, Cear Euskadi, Gao Lacho Drom, Gehitu, Aldarte, Kale Dor Kayiko, Nevipen, Errezpetuz, Cite-CCOO, Ehgam, Agifugi y SOS Racismo Gipuzkoa.

El consejero Aburto aseguró que esta malla se ha puesto en marcha tras un año de reuniones y que, en todo caso, está abierta a nuevas incorporaciones en el futuro. La idea es disponer de los mecanismos necesarios para promover y orientar las políticas específicas en esta materia a fin de integrar, desde un ámbito institucional, el principio de no discriminación en las políticas

sectoriales. También se busca desarrollar herramientas de información y asesoramiento –además de coordinar los recursos ya existentes para evitar duplicidades–, de modo que los ciudadanos puedan «hacer valer sus derechos cuando estén siendo vulnerados por un trato discriminatorio».

A nivel organizativo, Eraberean se articulará en una secretaría técnica que dará soporte al trabajo cotidiano de las entidades que forman la red. En segundo plano se establecerá un grupo «motor» que orientará sus actividades. Y, finalmente, tres grupos de trabajo que dinamizarán el funcionamiento del proyecto y cuya labor abarcará di-

versos campos como la atención jurídica, la formación y sensibilización, y la documentación.

«Son pocos y asustados»

Aburto desvinculó ayer esta iniciativa de la polémica suscitada por el PP alavés en torno a las ayudas sociales que perciben los inmigrantes. Según dijo, sería «un error ligar» esta red «con lo que está ocurriendo en Vitoria». «Nuestro trabajo no es reactivo a lo que a alguien en un momento determinado se le puede ocurrir. Es algo serio», apuntó. Esta red, proclamó, «no se hace contra nadie», sino «a favor de las personas», y busca edificar «una sociedad inclusiva

en la que todos vivamos con normalidad».

El próximo candidato del PNV a la Alcaldía de Bilbao insistió en que el objetivo es trabajar, «a corto, a medio y a largo plazo», en clave «preventiva, en clave pedagógica y, sobre todo, en clave de transformación social y cultural». Un trabajo para el que serán de utilidad las conclusiones extraídas del diagnóstico «compartido» trazado por las distintas organizaciones sociales.

La directora de Cear Euskadi, Patricia Bárcena, explicó que esta red nace por un problema básico que sigue sin ser solucionado. «Hay discriminación por razón de origen, de diversidad, de preferencias se-

xuales, de raza, de etnia» en el País Vasco; «una lacra» frente a la que se debe «trabajar conjuntamente» para lograr eliminarla de «la manera más rápida posible».

El director de la asociación gitana Gao Lacho Drom, Pascual Borja, advirtió de que la lucha contra la discriminación «no es una lucha pretérita» a pesar de que los «racistas son pocos y están asustados». El responsable de la Asociación de Gays y Lesbianas del País Vasco Gehitu, Jesús Estomba, lamentó que «el prejuicio sexual sigue vigente» también entre los jóvenes, que son además «importantes emisarios» de estas discriminaciones en ocasiones, víctimas.



El consejero Juan María Aburto (en el centro de la imagen) presentó ayer la red Eraberean junto a colectivos sociales. :: TELEPRESS

noticias de álava • 2014/12/27



El consejero Aburto junto a los representantes de las entidades adheridas a la red Eraberean, presentada ayer en Bilbao. Foto: Borja Guerrero

EUSKADI SUMA ESFUERZOS CONTRA LA DISCRIMINACIÓN

● El Gobierno Vasco y doce entidades activan Eraberean, un marco de trabajo en común en favor de la igualdad de trato para detectar casos de vulneración de derechos y atender a los afectados

✎ J. Fernández

BILBAO— Porque cuatro ojos ven más que dos, el Gobierno Vasco —a través de su Departamento de Empleo y Políticas Sociales— y una docena de entidades sociales han tejido durante este último año una red que actuará como *radar* para detectar situaciones discriminatorias, atender a las personas afectadas y en el caso de que sea necesario, acompañar en el proceso judicial y ofrecer el amparo de los servicios de atención a la víctima.

Eraberean, nombre con el que esta iniciativa ha sido bautizada, garantizará la atención en el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca gracias a la implicación y el compromiso de esas organizaciones sociales que ya vienen trabajando de mane-

ra significativa en el ámbito de la inmigración, la promoción del pueblo gitano y de los colectivos LGTB (Lesbianas, Gais, Transexuales, Bisexuales) y cuyas visiones particulares sobre la desigualdad en el trato confluyen ahora y se materializan en este proyecto que trabajará, como expresó el consejero Juan Mari Aburto, en clave de transformación social y cultural.

El objetivo principal de esta red —que en 2015 contará con un presupuesto de 80.000 euros— es potenciar la presencia del principio de igualdad de trato y la no discriminación en las políticas públicas y en la sociedad civil vasca promoviendo, tanto a nivel institucional como social, discursos y prácticas inclusivas, y activando agentes y recur-

sos para hacerlo efectivo”, subrayaba Aburto al tiempo que desvinculaba esta línea estratégica de trabajo en común a corto, medio y largo plazo de la polémica avivada en Gasteiz por el PP en torno al colectivo inmigrante.

“Sería un error ligarlo”, describió el consejero para agregar a renglón seguido que la labor fundamental de esta *cooperativa* “no es reactivo a lo que a alguien en un momento determinado se le puede ocurrir por lo que fuere. Es un trabajo serio, que lleva un año y que quiere poner en valor a las personas, sea cual sea su situación”, resumió. “No se hace contra nadie, sino a favor de las personas y de lograr una sociedad inclusiva donde de todos vivamos con normalidad”, agregó Aburto.

Y es que, más allá de desarrollos normativos específicos para la atención y protección de cada colectivo, el Gobierno Vasco y esta docena de organizaciones —Añifugi, Aldarte, CEAR-Euskadi, CITE-CCOO Bizkaia, Cruz Roja, Ehgam, Errespetuz, Gao Lacho Drom, Gehitu, Kale Dor Kayiko, Nevipen, SOS Racismo— han querido avanzar hacia un discurso armonizado en cuanto a la necesidad de ampliar el alcance de los

mecanismos y de las políticas de lucha contra la discriminación de toda índole. “Todos entendimos que era pertinente una reflexión y un diagnóstico compartido”.

MIRADAS CRUZADAS Es decir, combinar criterios y protocolos, experiencias y servicios, actitudes y realidades diferentes. En definitiva, sumar e integrar las visiones de tres colectivos distintos que tienen una causa común: la desigualdad en el trato y la discriminación de las personas. “Son miradas que quieren cruzarse con las miradas de la sociedad. Que desde la diferencia seamos capaces de mirarnos a los ojos y de reconocernos como personas, todas con la misma dignidad”, apostilló el consejero Aburto.

La red Eraberean es una iniciativa abierta e integradora cuya actividad girará alrededor de una Secretaría Técnica y un equipo que, a modo de motor, se encargarán de la dinamización y orientación de tres grupos de trabajo —atención jurídica, formación y sensibilización, e información y documentación— que coordinarán las actuaciones y procedimientos necesarios para desplegar políticas de igualdad de trato y no discriminación.

Y es que, como lamentó la directora de CEAR-Euskadi, Patricia Bárcenas, “si esta red se conforma es porque hay discriminación en nuestro país y eso es una lacra. Debemos trabajar conjuntamente por eliminar esa lacra de la manera más rápida posible”. Una idea y un sentimiento compartido por el vicepresidente de la Asociación Gao Lacho Drom, Pascual Borja, quien en representación del pueblo gitano subrayó que “com-

“Si esta red se conforma es porque hay discriminación, una lacra que debemos eliminar”

PATRICIA BÁRCENAS
CEAR-Euskadi

“La lucha contra la discriminación e igualdad de trato está muy presente”

PASCUAL BORJA
Gao Lacho Drom

“El prejuicio sexual sigue presente en los jóvenes, víctimas e importantes emisarios del mismo”

JESÚS ESTOMBA
Gehitu

partimos una misma realidad, la discriminación y la desigualdad en el trato por cuestiones que en algunos casos uno ni siquiera ha elegido”.

Jesús Estomba (Gehitu) resaltó la importancia y el valor que la red Eraberean asume para atajar comportamientos discriminatorios gracias a “la complementariedad de esfuerzos. Hablamos de lo mismo con distinto lenguaje. El prejuicio sexual sigue presente en nuestros jóvenes, que se configuran como importantes emisarios del mismo, y en ocasiones víctimas”.

2015. urtean, Eraberean sareak bi dimentsiotan jardun du nagusiki:

- Barne-dimentsioa: funtzionamendu- eta koordinazio-egitura bat, diskriminazioaren biktimei laguntzako jardun-protokolo bat, kasuak kudeatzeko tresna batzuk eta alderdi estrategiko, operatibo eta finantzariarako plangintza bat ezarri du.
- Kanpo-dimentsioa: zabalkunde-plan bat egin du, eta, horretarako, hirugarren sektoreari zein diskriminazioaren arloan diharduten beste agente eta egitura batzuei (Arartekoari - Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideen babesleari, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeari, Biktimari Laguntzako Zerbitzuari, Justizia Sailari eta Segurtasun Sailari, besteak beste) aurkezteko ekintzak egin ditu eta diskriminazio-tratu edo diskriminazio-gertakarien eta gorroto-delituen biktimak izan diren pertsona eta taldeei lagundu die.

Txosten honen bidez, Eraberean sarearen lehen urtean –2015ean– egindako lan guztiaren zatirik esanguratsuena jaso nahi da.

1.2. Definizioa, indarrak eta helburuak

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako eta migrazioen, ijito-herriaren sustapenaren eta LGTBI kolektiboen eremuetan ibilbide luzea egin duten hainbat agentek eta gizarte-erakundek osatutako sarea da Eraberean. Sarearen jardunaren oinarria jatorri, etnia, nazionalitate, sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko diskriminazioa da, eta gorroto-delituei lotuta dauden eta diskriminazio-arrazoi bat baino gehiago dituzten kasuak (hau da, diskriminazio anizkoitzeko kasuak) lantzen ditu bereziki. Horretarako, beren jarduera diskriminazio-eremu horietan garatzen duten beste erakunde batzuekin koordinatuta lan egiten du.

Lurralde-eremuari dagokionez, sareak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE, aurrerantzean) lurralde osoan dihardu, diskriminazio-kasuak detektatzeko eta horiei erantzuteko antena gisa lan egiten duten bertako hainbat erakunderen bitartez.

Sarearen indarren artean, honako hauek aipa daitezke: bereziki sentsibleak diren bi diskriminazio-arrazoiri lotutako hiru ikuspegiren bateratzearen berritasuna, diskriminazio anizkoitzeko kasuak detektatzen laguntzen duena; beste diskriminazio-arrazoi batzuen inguruan lan egiten duten beste agente batzuekin sarean lan egiteari ematen zaion garrantzia; lidergo partekatu baten aldeko apustu irmoa eta lidergo hori erantzukizun publikoa zein gizarte-ekimena kontuan hartuta antolatze modua, lankidetzan oinarritutako lan-eredu batetik abiatuta; eta, azkenik, esku-hartzearen ikuspegi bikoitza, alde batetik prebentzioan eta sentsibilizazioan eta, bestetik, diskriminazioaren biktimak diren pertsona

eta taldeentzako zuzeneko arretan oinarritua.

Izan ere, honako funtsezko helburu hauekin sortu zen Eraberean sarea:

- TBDEaren arloko politika espezifikoak sustatu eta bideratzea –jatorri, etnia, nazionalitate, sexu-orientazio eta genero-identitategatik sortzen diren kasuetan– eta politika sektorialetan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa txertatzea.
- Informazio, aholkularitza eta orientaziorako mekanismoak eta tresnak herritarren zerbitzura jartzea, diskriminazio-tratu baten biktimak eta, nolana ere, gorroto-delitu baten biktimak izan diren pertsonen edo taldeen beren eskubideak baliatu ahal izan ditzaten.
- Eraberean sarearen baliabideak EAEko lurraldean (Arartekoa, Emakunde, Segurtasun Gorputz eta Kidego Publikoak, Fiskaltza eta operadore juridikoak, besteak beste), Estatuan (Herriaren Defendatzailea, Arraza edo Etnia Diskriminazioa Desagerrarazteko Estatuko Kontseilua eta Tolerantziarik Ezaren aurkako Mugimendua, besteak beste) zein nazioartean (Solvit eta Oinarrizko Eskubideen Europako Agentzia, adibidez) beste diskriminazio-arrazoi batzuei lotuta dauden edota lan osagarria edo elkar sendotzekoa egiten duten beste baliabide batzuekin antolatzea.
- Eraberean sarea osatzen duten erakundeetan eta arlo horretan sarearekin lankidetzaren harreman bat izan duten beste erakunde batzuetan laguntza jaso duten kasu guztien datuak biltzea (diskriminazio-

zantzuak agertzen dituzten edota gorroto-delitu bati lotuta dauden kasuenak bereziki).

1.3. Osaera eta antolamendua

Sarearen oinarri diren ikuspegi dagokienez adierazitakoari jarraikiz, eta sarea EAEda dela kontuan hartuta, ikuspegi horiek berdintasunez ordezkatzeko dituzten eta hiru Lurralde Historikoetan banatuta dauden 12 erakundek osatzen dute Eraberean sarea gaur egun:

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<p>GURUTZE GORRIA Gaztelako Atea, 52 01007 Gasteiz 945 222 222 paisvasco@cuzroja.es</p>	<p>CITE-CCOO BIZKAIA Uribitarte, 4 48001 Bilbo 94 424 34 24 citebizkaia@euskadi.ccoo.es</p>	<p>SOS ARRAZAKERIA Peña y Goñi, 13 – 1 20002 Donostia 943 321 811 eraberean@mugak.org</p>
<p>ALDARTE Zapatari kalea, 39 - behea 01001 Gasteiz 945 257 077 aldarte@aldarte.org</p>	<p>ERRESPETUZ Benidorm, 1 – oinartea, ezk.-esk. 48015 Bilbo 675 459 317 errespetuz@hotmail.com</p>	<p>EHGAM Anoeta pasealekua, 28 20014 Donostia 667 435 570 ehgam@yahoo.com ehgamgipuzkoa@gmail.com</p>
<p>CEAR EUSKADI Bueno Monreal, 10 - behea 01001 Gasteiz 945 266 805 era.berean@cear-euskadi.org www.cear-euskadi.org</p>	<p>KALE DOR KAYIKO Ondarroa, 18 - lonja 48004 Bilbo 691 674 414 eraberean@kaledorkayiko.org</p>	<p>GEHITU Kolon pasealekua, 50 20002 Donostia 943 451 722 infasis@gehitu.org info@gehitu.org</p>

<p>GAO LACHO DROM Paula Montal, 26 - behea 01010 Gasteiz 945 225 039 gao@gaolacho.co</p>	<p>NEVIPEN Gorte kalea, 22 – esk. lonja 48003 Bilbo 94 652 69 89 pisekalo@nevipen.org</p>	<p>AGIFUGI Baratzategi kalea, 3 - behea 20015 Donostia 943 248 086 asociacion@agifugi.org eraberean@agifugi.org</p>
---	--	--

12 erakunde horiek osatzen dute Eraberean sarea, Zuzendaritzako, Biltzen eta Berdinu zerbitzuetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoko kideekin batera, eta honako funtzionamendu-egitura hauek ditu:

- Talde Eragilea: Zuzendaritzako, Biltzen eta Berdinu erakundeetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoko kideek osatzen dute. Honako oinarritzko funtzio hauek ditu: sarea politikoki bultzatzea, baliabideak bilatzea eta sarearen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Idazkaritza Teknikoa: sarearen koordinazioa eta funtzionamendua erraztea du oinarritzko eginkizun; Zuzendaritzak espresuki eskuordetuta, Biltzen zerbitzuari esleitzen zaio.
- Osoko Bilkura: Talde Eragilearen, Idazkaritza Teknikoaren eta sarea osatzen duten erakundeen arteko topagunea.
- Batzordeak: Sarearentzat interesik handienekoak diren eremuei lotutako langune espezializatuak. Gaur egun, hiru Batzorde daude, eta erakundeetako, Talde Eragileko eta Idazkaritza Teknikoko pertsonak hartzen dute parte:
 - Informazioa eta Dokumentazioa.
 - Prestakuntza eta Sentsibilizazioa.
 - Diskriminazioaren biktimentzako Arreta, Aholkularitza eta Laguntza.

1.4. Txostenaren testuingurua

Txosten hau urteko ekitaldiei buruzko txostenetako lehena da, eta honako helburu hauek ditu:

- TBDEaren arloko informazioa eta, denborarekin, EAEko errealitate horren ahalik eta ikuspeirik osatuena eskaintzea.

Sarearen lehen urtean gaudela kontuan hartuta, sarea osatzen duten erakundeek egindako jardunei buruzko datuak gutxi dira oraindik, baina sarearen erronka da jatorri, etnia, nazionalitate, sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko EAEko diskriminazio-kasuen detekzio eta arretari dagokionez gero eta indar kuantitatibo eta kualitatiboa izatea.

- Sarearen erronken eta lan-ildoen identifikazioa erraztea.

Izan ere, EAEko diskriminazioaren errealitatearen ikuspegi estatikoa eskaintzeaz gain (ondorengo zenbaketa gisa), hurrengo urratsen xede izan behar duten jomugak zehaztu behar dira.

Hori dela-eta, Europar Batasuneko, Estatu espainoleko eta EAEko diskriminazioaren testuingurua eta Eraberean sarearen jarduerari buruzko datuak aztertzeaz gain, jomugak identifikatzeko erreferentziak eskain ditzaketen esperientzia positiboen ekarpena egin da arlo horretan.

- Etengabeko hobekuntza.

Jardueraren urteko datu-bilketa egiteak ezarritako helburuak bete diren egiaztatzeko aukera ematen du. Bestalde, datuak argitara emateak gardentasunez jokatzeari dakar, eta, azkenik, sarearen lana euskal gizartearen errealitatera eta herritarren premietara pixkanaka egokitzeak aukera ematen du.

- Hedapena.

Azkenik, sarearen lana ezagutarazteko eta sareak diharduen eremuetan EAEko erreferentzia gisa sendotzeko funtzioa ere betetzen du urteko txosten honek.

Azken batean, hainbat helburu dituen txostena da, eta helburu horiek beren testuinguruan esplizitu egitean, euskal gizarte osoarekin hartutako konpromiso bihurtzen dira, baita, era osagarrian, sarearen bilakaerak –oro har– eta txostenak –bereziki– helburu horiek lortzen laguntzen duten etengabe ebaluatzeko betebeharrak ere, Gobernuarentzat eta sarea osatzen duten erakundeentzat.



2 . kapitulua

diskriminazioak Europan, Estatu espainolean eta EAEn duen egoerarako hurbilketa

2. kapitulua diskriminazioak Europan, Estatu espainolean eta EAEn duen egoerarako hurbilketa

2.1. Zehaztasun terminologikoak

Diskriminazioa

Diskriminazioaren definizio bat egitean, kontuan hartu behar da hainbat adiera har ditzakeela testuinguruaren arabera (lagunartekoa, psikologikoa, juridikoa eta abar).

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 18. Ohar Orokorrak nazioarteko esparruan oinarrituta definitzen du diskriminazio terminoa:

"(...) helburu jakin batzuetan oinarrituta dagoen (arrazak, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, irizki politikoa edo bestelakoa, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein gizarte-egoera) eta pertsona guztien giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak berdintasun-baldintzetan errekonozitu, gozatu edo baliatzeko aukera deuseztatu edo kaltetzeko xedea duen edo emaitza hori lortu nahi duen bereizketa, bereizkeria, murrizketa edo lehentasun oro".

Beraz, diskriminazioa pertsonen edo taldeen berezko ezaugarrietan oinarrituta haien arteko bereizketak egitean datzala, eta haren ondorioa pertsona edo talde horiei beste batzuek dituzten eskubide eta aukera berak galaraztea dela esan daiteke.

Europako esparruan, diskriminazioaren definizio juridikoa diskriminazioaren aurkako Europako zuzentarauak ematen dute: 2000. urtean Europar Batasunak onartutako arraza-berdintasunari buruzko zuzentarauak (2000/43/EE Zuzentarauak) eta enpleguko tratu-berdintasunari buruzko zuzentarauak

(2000/78/EE Zuzentarauak). Zuzentaru horiek zerga, administrazio eta gizarte-arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bitartez aplikatu ziren barne-zuzenbidean.

Ondoren, arestian adierazitako diskriminazioaren aurkako Europako zuzentaruetan bilduta dauden definizio batzuk berrikusiko ditugu, txosten honetan jasotako kasuak hobeto ulertzen lagunduko baitigute.

Zuzeneko diskriminazioa: pertsona batek babesaren xede diren arrazoietako batengatik (arrazoia, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzia publikoa edo bestelakoa, jatorri nazionala edo soziala eta abar) egoera berdinean dagoen beste pertsona batek baino tratatu okerragoa jasaten duenean, jasan duenean edo jasan dezakeenean gertatzen da.

Zeharkako diskriminazioa: itxuraz neutroa den jarrera, irizpide edo praktika batek pertsona bati edo batzuei diskriminazio-arrazoiren batengatik beste pertsona batzuekiko desabantaila eragiten duenean edo eragin dezakeenean gertatzen da, jarrera, irizpide edo praktika hori helburu legitimo bat kontuan hartuta objektiboki justifika daitekeenean izan ezik.

Asoziazio bidezko diskriminazioa: pertsona edo talde bat indarrean dagoen legerian zerrendatutako arrazoi babestuetako batengatik diskriminazioa jasaten duen pertsona batekin edo batzuekin duen harremanean oinarrituta diskriminatzen denean gertatzen da.

Diskriminazio anizkoitza: aldi berean bi diskriminazio-faktore edo gehiago agertzen dituen diskriminazio-egoera dela esan daiteke.

Gorroto-delitua

Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundearen (ESLA) esparruan, gorroto-delituaren honako definizio hau erabaki zen 2003. urtean: "edozein arau-hauste penal, pertsonen edo jabeagoen aurkako arau-haustea barne, non biktima edo arau-haustearen helburua aukeratzeko benetan edo ustez lotura, begikotasuna, filiazioa, babesa edo kidezia duelako talde batekin". Gainera, definizio horretan zehazten denez, osatzen duten pertsonen ezaugarri komun baten arabera definitzen da talde bat (benetako edo ustezko sexu-orientazioaren edo sexu-identitatearen arabera, adibidez).

Definizioak ez du delitu espezifiko bat aipatzen, delitu edo fenomeno mota bat baizik.

Ezaugarri propioak dituen gorroto-delituaren bat "gorrotoaren diskurtsoa da". Europako Kontseiluaren Arrazakeriaren eta Tolerantziarik Ezaren Aurkako Europako Batzordeak (ECRI) honela definitu zuen gorrotora bultzatzea Ministroen Batzordearen R (97) 20 Gomendioan:

«[...] arraza-gorrotoa, xenofobia, antisemitismoa eta tolerantziarik eza oinarri duten beste gorroto mota batzuk (hala nola nazionalismo oldarkorrek eta etnozentrismoak agertzen duen

tolerantziarik eza eta gutxiengoen, etorkinen eta immigrazio-jatorriko pertsonen aurkako etsaitasuna) zabaldu, bultzatu, sustatu edo justifikatzen duten adierazpideak».

2016ko martxoaren 21ean, ECRik Gorroto Diskurtsoari buruzko Gomendio Orokor berri bat onartu zuen (Politika Orokorri buruzko 15. zenbakiko Gomendioa). Gomendio horretan, gorroto-adierazpenei laster erantzutearren pertsona publikoengana jotzeko, baliabideen autoerregulazioa sustatzeko, gorroto-adierazpenen ondorio arriskutsuen berri emateko, gorroto-diskurtsoa aktiboki erabiltzen duten alderdi politikoei laguntza oro (finantzarioa edo bestelakoa) kentzeko, adierazpenik muturrekoenak zigortzeko eta, aldi berean, adierazpen-askatasuna errespetatzeko eskatzen da.

Gorroto-delituak, beraz, zigor-ondorio bat duten diskriminazio-jokabideak dira. Dena dela, Barne Ministerioak arau-hauste administratiboak ere sartzen ditu kategoria horren barruan.

Edonola ere, zehaztu beharra dago gorroto-delitu guztiak diskriminazio-jokabideak direla, baina badirela, halaber, diskriminazio-jarduntzat har daitezkeen, baina gorroto-delituak ez diren jardunak. Izan ere, jardun batzuetan diskriminazio-elementua ez da espresuki adierazten, hala nola ijito bat kontratatzen ez denean elkarriketaren fasea gainditu ez duela argudiatuta, edota saltoki batean bikote homosexual bati jaramonik egiten ez zaionean.

Arrazakeria eta xenofobia

Arrazakeria oso kontzeptu abstraktua da, eta arrazak ez ezik, etniak eta kulturak ere hartzen ditu kontuan. Arrazakeria, orenen gainetik, alderdi psikologiko garrantzitsu bat duen ideologia bat da. Izan ere, ez dugu ahaztu behar antropologiak, biologiak, genetikak eta soziologiak garbi erakutsi dutela arrazaren nozioak ez duela zentzurik, gizakia bat eta zatiezina baita. Talde batek beste bat baino gehiago dela uste izatea dute oinarri diskriminazio-sinesmen eta diskriminazio-jarrerak horiek.

Europako Kontseiluak honela definitu zuen arrazakeria terminoa ECRik 2002ko abenduaren 13an onartutako politika orokorreko 7. Gomendioaren bidez:

«Arraza, sexu, kolore, hizkuntza, erlijio eta nazionalitate edo jatorri nazional edo etnikoagatik pertsona batenganako eta talde batenganako erdeinua justifikatzen duen ustea hartuko da arrazakeriatzat» eta «arraza, kolore, hizkuntza, erlijio eta nazionalitate edo jatorri nazional edo etnikoagatik ematen den eta justifikazio objektibo eta zentzuzkorik ez duen tratu bereizi oro hartuko da zuzeneko arraza-diskriminaziotzat».

Arrazakeria xenofobiari hertsiki lotuta egoten da, eta xenofobiarekin nahasten da, hau da, «atzerritarrekiko gorroto, higuin edo etsaitasunarekin». Hala ere, bi kontzeptu horiek ez dira berdinak. Adibidez, arrazakeria nagusitasunean oinarritutako ideologia bat da, eta xenofobia, berriz, arbuio-sentimendu bat. Bestalde, arrazakeria ez bezala, xenofobia atzerritarren aurka baino ez da bideratzen.

Gertaera arrazista terminoaren definizioari dagokionez, ECRIren politika orokorreko 11. zenbakiko Gomendioak (2007ko ekainaren 29koak, polizia-eremuan arrazakeriaren eta diskriminazioaren aurka jarduteari buruzkoak) honako definizio hau ematen du: “biktimak edo beste edozein pertsonak arrazistatzat hartzen duen gertaera oro da gertaera arrazista bat”.

Sexu-orientazio edo sexu-identitateagatiko diskriminazioa

Sexu-orientazioa pertsona baten nahien arrazoiari lotuta dago; pertsonaren sexualitatearen adierazpen bat da. “Pertsona bakoitzak bereaz bestelako generoko, bere genero bereko edo genero bat baino gehiagoko pertsonenganako erakarpen emozional, afektibo eta sexual sakona sentitzeko duen ahalmena eta pertsona horiekin harreman intimoak izateko ahalmena adierazten du”.

Sexu-identitatea, berriz, sexu batekoa edo bestekoa izatearen errekonozimenduari lotuta dago, hau da, norbera gizon edo emakume gisa errekonozitzeari, generoa edo sexu-orientazioa edozein izanik ere. Transexualitatea sexu-identitateari lotuta dago.

Sexu-orientazioagatiko diskriminazioak eta sexu-identitateagatiko diskriminazioak elementu komun batzuk dituzte. Izan ere, biek dute abiapuntu sexu/genero sistema, eta emakumeen mendekotasuna ezartzen dute (horixe da, hain zuzen ere, sexu-diskriminazioaren arrazoi nagusia).

Romafobia edo antigitanismoa

Europako Kontseiluaren Arrazakeriaren eta Tolerantziarik Ezaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) honela definitzen du antigitanismoa: “arrazakeria mota espezifiko bat, arrazaren nagusitasunean oinarritutako ideologia bat, diskriminazio historiko batek bultzatutako gizagabetze eta erakunde-arrazakeria mota bat, besteak beste honako adierazpen hauek dituena: indarkeria, beldurraren diskurtsoa, esplotazio eta diskriminaziorik agerikoena; azpimarratu beharra dago antigitanismoa arrazakeria mota bereziki iraunkorra, bortitza, errepikaria eta hutsaldua dela, eta fenomeno horri maila guztietan eta baliabide guztiekin aurre egin behar zaio”.

noticias de gipuzkoa • 2015/03/26



Esta imagen del asentamiento rumano del Urumea tomada ayer muestra las chabolas reconstruidas después de la inundación.

El asentamiento rumano de Astigarraga se reduce a la mitad

Actualmente residen 60 personas de las 150 que comenzaron a ocupar el campamento.

✎ Alicia Zulueta
 📍 Ruben Plaza

DONOSTIA – La Diputación Foral de Gipuzkoa espera que el asentamiento del Urumea esté “totalmente desalojado” para el año 2016, gracias al proyecto interinstitucional de integración social que se viene llevando a cabo desde 2012. Así lo explicó el diputado de Política Social, Ander Rodríguez, que compareció ayer en Juntas Generales a petición del PNV. Afirmó que el proyecto avanza “a un ritmo superior al previsto”, puesto que de las 91 familias que habitaban en el asentamiento cuando se inició el programa, en la actualidad quedan 23 familias, y no 34 como se anticipó.

En este proyecto colaboran los ayuntamientos de Hernani y Astigarraga, la Diputación y el Gobierno Vasco, además de la asociación Romi Bidean. Su objetivo es la socialización de las casi 100 familias que entonces residían en el campamento del Urumea y el posterior desmantelamiento del mismo. El responsable foral insistió en que no se trata de un proyecto de ordenación territorial, sino de derechos. En ese sentido, anunció que se aplican “los mismos protocolos de desalojo, sea población inmigrante o no inmigrante”. Aseguró que de las 150 personas con las que se comenzó a trabajar, quedan en este momento 60, de las cuales 18 son menores.

Asimismo concretó que la labor de inserción se aborda desde una perspectiva integral. Se trabaja en el ámbito educativo, sanitario, jurídico administrativo, laboral, de la vivienda, económico familiar y de participación social. Esto se traduce en que “el 100% de los niños están escolarizados y el 100% de los adultos están dados de alta en Lanbide”, afirmó. Además, el 97% de las personas se encuentran regula-

Según el diputado de Política Social, el poblado estará “totalmente desalojado” para el año 2016

rizadas y el 93% tiene plena cobertura sanitaria. “Los resultados obtenidos en las diferentes áreas y objetivos del proyecto educativo conducen a valorar positivamente el proceso que se está llevando a cabo con las familias”, apuntó el diputado.

DIFÍCIL ACCESO A LA VIVIENDA No obstante, admitió que el acceso al empleo y la vivienda no son fáciles. “El proceso de pasar de la chabola a una vivienda conlleva muchas dificultades”, comentó. En muchos casos con las ayudas que este colectivo recibe “no pueden pagar el alquiler” o hay ocasiones que “los propietarios no quieren alquilar a gitanos rumanos”, defendió.

Por esta razón, Rodríguez anunció que desde Diputación se ha realizado una solicitud al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco para tres familias concretas que siguen residiendo en el asentamiento “a pesar de estar preparadas en todos los ámbitos para poder salir y continuar con su proceso de socialización”. Sin embargo, por el momento no se ha recibido respuesta.

Por su parte, el resto de partidos presentes en las Juntas se mostraron satisfechos con los avances del proyecto. Xabier Ezeizabarrena, portavoz del PNV, siguió la línea de Rodríguez, puesto que “hay que dar una salida a ese problema con los plazos que sean necesarios”. La portavoz popular, Asun Guerra, no obstante, admitió que le preocupan las condiciones en las que está el asentamiento ya que se encuentra “fuera de ordenación, sin cumplir las normas de edificabilidad y sin los permisos correspondientes”, además de ser “incontrolado e ilegal”. “Si las personas que tienen casas normalizadas en Martutene han pasado por una dura situación, no puedo imaginarme lo que se puede encontrar este colectivo cuando intente volver a las chabolas”, detalló.

Mónica Guitera, voluntaria de Romi Bidean, admitió que esta vez el agua tuvo fuertes consecuencias al dañar “gran parte” de las chabolas de las familias residentes. Se reconstruyeron chabolas secas, “porque ahí no se podía retornar y menos con menores”, aseguró, ya que “la humedad y la situación eran insostenibles”. Finalmente, las condiciones en las que las familias retornaron tras la inundación fueron adecuadas.

Por último, Rodríguez no descartó ampliar este proyecto “pionero” si en el futuro se dan situaciones parecidas. “Creo que los resultados avalan la manera de intervención que se ha realizado por parte de las instituciones y de Romi Bidean. Lo tomamos como guía a seguir ante futuras problemáticas similares”, sentenció. ●

hernaniko kronika • 2014/03/22


■ URUMEAKO ASENTAMENDUAREN PROIEKTUA

Errumaniarren kanpamenduko proiektua hasi da emaitzak ematen

Astigarraga eta Hernaniko errumaniar ijituaren asentamenduari erantzuteko eta bertako bizilagunen integrazioa bultzatzeko, proiektu bat jarri zen martxan 2012an. Proiektuari buruzko azalpenak eman dizkiote Kronikari Andoni Gartzia Astigarragako alkateak eta Monica Guitera Romi Bidean elkarteko koordinatzaileak.

SORINA Lunca Hernaniko pisu batean bizi da bere senar eta alabarekin, irailaz geroztik. Andrea Sas zubi lana egiten duen etxebizitzan bizi da, bere bi alabekin. Bi hilabete darazkitez bertan. Vasile Barcea eta Bianca Barcea senar-emazteak, berriz, inserzio etxebizitza batera joateko zorian dira. Hiru seme-alaba dituzte, eta jaiotzeaz da laugarrena.

Astigarraga eta Hernaniko errumaniar ijituaren kanpamenduetako hiru errealitate dira. 2012tik martxan dagoen proiektuak eman dituen emaitzetako batzuk, hain zuzen. Aurten, 17 familia kanpamendutik aterako direla aurreikusten dute proiektuaren arduradunek, hau da, Romi Bidean elkartek, Astigarragako eta Hernaniko Udalek, Gipuzkoako Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak.



Balta Txuriko txabola batzuk. Txabola bakoltzak bere zenbakia dauka.

2.2. Diskriminazioaren eta gorroto-delituen pertsekuziorako zailtasunak

Zailtasun ugari daude pertsonenganako abertsio irrazionalagatik eta gorrotoagatik egindako delituak ikertu eta epaitzeko. Gertakari eta biktima horien ezaugarri batzuk prozesuan esku hartzen duten pertsona guztiek ezagutu beharko lituzkete.

Salatutako gertakarien inguruko ezjakintasuna diskriminazioaren eta gorroto-delituen eremuan ditugun arazo nagusietako bat da, haien dimentsio kuantitatiboa eta kualitatiboa ezagutzeko oso estatistika-datu gutxi baitaude argitaratuta.

Estatu espainoleko gorroto-delituen erregistro ofizial bakarra 2015eko "Espainiako gorroto-delituei lotutako gertaeren bilakaerari buruzko txostena" da, Barne Ministerioak argitaratu duen hirugarrena, alegia. Txosten horretan, Autonomia Erkidegoetako polizia-kidego guztien polizia-atestatuak daude jasota. Estatistika-datuek 2015eko 1.328 gertakari biltzen dituzte. Honela daude banatuta:

<u>Arrazakeria eta xenofobia:</u>	<u>505</u>
<u>Ideologia:</u>	<u>308</u>
<u>Desgaitasuna:</u>	<u>226</u>
<u>Sexu-orientazioa edo sexu-identitatea:</u>	<u>169</u>
<u>Erljio-sinesmenak edo erlijio-jardunbideak:</u>	<u>70</u>
<u>Generoagatiko diskriminazioa:</u>	<u>24</u>
<u>Aporofobia:</u>	<u>17</u>
<u>Antisemitismoa:</u>	<u>9</u>

"Antisemitismoa" eta "sexu-orientazioa eta sexu-identitatea" delitu-eremuak salbuetsita, SECen jasotako gainerako guztiek gora egin dute aurreko urtearekin alderatuta. "Gorroto-delituei" lotutako gertaera gehienak "arrazakeria/xenofobia" eta "ideologia" izeneko eremuetan gertatu dira. Bi eremu horietan, ezagutzen diren gertaera guztien % 61,2 daude bilduta.

SAREAREN JARDUERARI BURUZKO 2015EKO TXOSTENA

Ezagutzen diren gertaeren kopuruari dagokionez, EAE bigarren tokian dago, Kataluniaren atzetik. Honela daude banatuta, delitu motaren arabera:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Arrazakeria edo xenofobia	8	89	32	129
Sexu-orientazioa edo sexu-identitatea	6	14	7	27
Ideologia	6	14	6	26
Erljio-sinesmenak edo erlijio-jardunbideak	1	5	6	12
Desgaitasuna	0	2	0	2
Antisemitismoa	1	2	0	3
Aporofobia	1	0	0	1
Sexu edo generoagatiko diskriminazioa	0	0	1	1
GUZTIRA	23	126	52	201

2014. urtean, 117 kasu erregistratu ziren. Dena dela, kontuan hartu behar da 2015eko txostenak bi gorroto-delitu mota berri hartu dituela kontuan, "ideologiari" eta "generoari" lotuak. Ideologia: gizarteko sektore batek politika, zientzia, ekonomia, kultura eta moralari lotutako alderdien inguruan dituen oinarrizko ideiek eraginda pertsona edo kolektibo batzuen aurka egiten diren gertakariak biltzen ditu. Doktrina-sektore batzuek eremu politikoarekin lotzen dute ideologia: eskuin-muturreko taldeek ezker-muturreko taldeei –edo alderantziz– egindako erasoak. Sexu edo generoagatiko diskriminazioa sexu edo genero jakin batekoa (gizona/emakumea) izateagatik eragindako tratu diskriminatzaile edo laidoztagarri batean edota zigor-ondorioa duen gertakari batean oinarritutako gertaera oro da. Diskriminazio mota horretan, ez dira sartzen genero-indarkeria eta biktimaren sexu eta/edo generoko orientazio eta identitatearen (lesbiana, gaya, transexuala, bisexuala eta intersexuala) aurkako gertakariak.

Sarearen hiru ikuspegiak kontuan hartuta, honako aldakuntza hauek gertatu dira 2014. urtearekin alderatuta.

	2014	2015	Gehikuntza %
Arrazakeria eta xenofobia	89	129	% 44,9
Sexu-orientazioa edo sexu-identitatea	14	27	% 92,8

Barne Ministerioak eskainitako datuen inguruko gogoeta batzuk: lehenik eta behin, antigitanismoari lotutako gertakariak arrazakeriari buruzko atalean sartuta daudela suposatzen dugu. Bestalde, hainbat gorroto- edo erdeinu-jarrerak eragindako delitu-jardun bakarra agertzen duten diskriminazio anizkoitzen kasuak ez daude islatuta, eta horren falta igarri dugu. Era berean, ezin da ondorioztatu mota horretako indarkeriazko ekintzak EAEn gainerako Autonomia Erkidegoetan baino proportzio handiagoan gertatzen direnik. Aitzitik, EAEn gainerako Autonomia Erkidegoetan baino salaketa gehiago aurkezten direla esan dezakegu.

Izan ere, salatutako gertakarien kasuan bezala, aipatu beharra dago gertatzen diren eta salatzen ez diren gertakarien inguruan dagoen ezjakintasuna. Hainbat arrazoi daude biktima batek salaketa aurkeztu nahi ez izateko edo aurkeztera ez ausartzeko. Askotan, diskriminazioa biktimen eguneroko bizitzaren parte da, eta biktimek diskriminazioa normalizatu eta bizitzako gauza naturalizat hartzen dute. Halaber, segurtasun-indarrek salaketei erantzuteko beharrezkoak diren ekintzak egingo ez dituztela uste dute biktimek. Gainera, homofobiaren edo transfobiaren biktimak badira, ez dute izaten konfiantzarik poliziarekin edota poliziaren beldur dira, eta gorroto-delitu baten biktimak izateaz lotsatzen dira. Izan ere, beren buruari leporatzen diote errua, eta gizartearen estigmatizazioa jasateko eta beren sexu-orientazioa jakitera emateko beldur dira. Gauza bera gertatzen zaie atzerritarrek diren eta bizileku-baimenik ez duten biktimekin, administrazio-egoera irregular batean daudenez gero ez baitira ausartzen polizia-etxe batera joatera eta bertan beren egoera salatzeri, herrialdetik kanporatuak izateko arriskua baitute. Delitu mota horren biktimek badute beste beldur mota bat ere. Izan ere, salaketa aurkezten badute, egileak errepresaliak har ditzake biktimen edo haien senideen aurka. Azkenik, bereziki kalteberak diren biktimak daude, hala nola etxebizitzarik ez duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran daudenez gero zigor-arloko legeen berri ez dutelako salaketarik aurkezten ez duten pertsonak (biktima gehienek ez dakite badaudela babesten dituzten legeak, eta ez dakite nora jo delitu horiek salatzeke).

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) Europar Batasuneko herritarrak eta etnia- edo arraza-gutxiengoetako kideak eta etorkinak diren 23.500 pertsonari egin zien eta 2009ko abenduan jakitera eman zuen inkestak agerian utzi duenez, elkarrizketa egin zuten pertsonen % 12k beren herrialdeko legeriaren arabera arau-hauste penala zen gertakari bat jasan zuten azken urtean. Horietatik, % 82k ez zuten salaketarik aurkeztu, eta, horien artean, % 64k ezertarako balio ez zuela pentsatzen zutelako ez zuten aurkeztu.

Beste arazo bat ikertzeaz edo epaitzeaz arduratutako pertsonak gertakariak txikiagotzeko duten joera da. Horrelako delituak jasaten dituzten biktimen kopuruaren zifra errealei buruzko informaziorik ez izateak arazoaren larritasunaren berri ez edukitzea dakar, eta oztopo handia da prebentziorako neurri egokiak diseinatzeke garaian. Segurtasuneko kidego eta indar publikoak eta operadore juridikoak (fiskalak, epaileak, abokatuak eta abar) gorroto-delituaren detekzioan prestatu behar dira, delitu horiek epaitzeko beharrezkoak diren tresna guztiak edukitzeko eta salatutako gertakariei larritasuna ez kentzeko eta arau-hauste arintzat ez hartzeko.

Delitu-tipologia horri buruzko jakintza urriaren ondorioz, ohikoa izaten da biktimei eskainitako arreta, informazio eta orientazioari lotutako arazoak agertzea. Ohikoa izaten da, adibidez, polizia-etxean biktimari arreta eskaintzen dion pertsonak arazoa okerreko zerbitzu batera bideratzea; pertsona baten

kasuan, arrazoi arrazistengatik ez zioten establezimendu batean sartzen utzi, eta oinarrizko eskubideen aurkako delitu batek eragindako zigor-prozedura izapidetu orde, kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako informazio-zerbitzura bideratu zuten auzia. Gorroto-delituen motibazioaren identifikazio egokia egitea segurtasuneko indar eta kidegoen prestakuntzari lotuta badago ere, oso kontuan hartu behar da biktimaren testigantza kalitatea, informazio osatugabeak nahasmendua eta okerreko esku-hartzea eragin baitezake. Halaber, biktimarekin hitz egiten duen pertsonaren (hots, segurtasun publikoko agentearen) portaera oso garrantzitsua da testigantza osatua bermatzeko eta ahalik eta kontraesan gutxien jasotzeko.

Arestian adierazitako arazoez gain, azpimarratu beharra dago prestakuntza handiagoa behar dela epailertzan, fiskaltzan, idazkaritza judizialean, auzitegiko medikuntzan, segurtasuneko indar eta kidegoetan eta segurtasun pribatuko langileengan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren jakintzari dagokionez, ezjakintasun horrek zaildu egiten baitu diskriminazio-kasuak detektatzeko eta, beraz, biktimentzako neurri eta alternatiba egokiak eskaintzeko zeregina. Arrazakeriaren eta Tolerantziarik Ezaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) nahitaezko prestakuntza ezarri du operadore juridikoentzat zein segurtasun-operadoreentzat.

2.3. Diskriminazioaren eta gorroto-delituen biktimak

Gorroto-delituen barruan, biktima funtsezko elementua da, abertsio irrazional baten edo kolektibo jakin batekin lotzen duten ezaugarri batzuen ondorioz aukeratzen baitu egileak. Ezaugarri horien artean, jatorri nazional edo etnikoa, sexu-orientazioa edo generoa aipa daitezke.

Ikuspuntu kronologikotik, eraso egiten duen pertsonaren ezaugarri bereizgarria biktimak edo hark ordezkatzeko duen horrek sentiarazten dion gorroto irrazionala da, hau da, biktimaren identitatearekiko abertsioaren adierazpena. Delitu mota horren funtsezko elementua larderiako mezua da; mezu horren bidez, ez da ausazko biktima bat bilatzen, gizarte-esanahi espezifiko baten adierazgarria den biktima bat baizik. Hori dela-eta, egileak lortu nahi duena zera da, gizartearen aurrean bere ustez talde horiei dagokien tokia erakustea eta, aldi berean, gainerakoekiko nagusitasuna berrestea (Dunton, 1997). Horrelako erasoak egiten dituzten pertsonak itxura fisikoagatik, ideologia edo sinesmenengatik, jatorri nazionalagatik, sexu-orientazioagatik edo pertsona horiengandik erabat bereizten dituen eta inolako baliorik gabeko bizitza baten adierazgarri den beste edozein arrazoiengatik aukeratzen dituzte beren biktimak (Jacobs, 1996).

Biktima askok ez dute sinesten segurtasun-indarrek edo operadore juridikoek aurkeztutako salaketei erantzuteko beharrezkoak diren ikerketak edo lege-ekintzak egingo dituztenik. Biktima horien ustez, jasan dituzten gertakariak ez dute interesik, eta beren testigantza ez dute sinetsiko. Gure herrialdean bizitzeko baimenik ez duten atzerritarren kasuan bezala, biktimak nekez hurbiltzen dira polizia-etxe batera, kanporatzeko gobernu-espedita bat irekiko dieten beldur.

Biktima batzuek pena eta lotsa sentitzen dute gorroto-delitu baten biktimak izan ondoren. Salaketa

aurkezteko oztopo gisa, lotsaren gaia bereziki esanguratsua izan daiteke sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik aukeratu diren biktimen kasuan. Arestian azaldu dugunez, gorroto-delitu bat salatzeak sexu-orientazioa edo genero-identitatea jakitera ematea dakar homosexual, bisexual eta transgeneroentzat, hiri txikietan edo landa-eremuetan bereziki.

2.4. Diskriminazioaren egoerarako hurbilketa

Diskriminazioaren arloko oinarritzko kontzeptuak ezarri eta horrelako kasuak salatzeko eta biktimarengana hurbiltzeko garaian praktikan detektatutako arazo batzuk azaldu ondoren, 2015. urtean gertatu diren eta diskriminazioak Estatu espainolean eta Europar Batasunean duen egoeraren argazkia egiten lagun diezaguketen gertakari batzuk azalduko ditugu orain. Eremurik hurbilena –Euskal Autonomia Erkidegoa– txosten honen hainbat ataletan garatuta dago.

▪ Estatu espainolean

Zigor Kode berria jarri da indarrean. 2015eko uztailaren 1ean, indarrean jarri zen 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena. Beste berritasun askoren artean, goitik behera aldatu zuen 510. artikulua, gorroto bultzatzeko delituari buruzkoa. Erreforma egin ondoren, Zigor Kodearen 510.1 artikulua edukia zabaldu egin da nabarmen. Agindu berriak “genero-arrazoiak” aipatzen ditu diskriminazio-arrazoien artean, eta hiru letratan banatuta dago:

Lehen letran (a), “gorrotoa, etsaitasuna, diskriminazioa edo indarkeria sustatu edo bultzatzeko” jokabideak daude tipifikatuta. Bultzatzea aginduaren aurreko idazkuntzan jasotako probokazioaren baliokidea izango litzateke. Sustapena, berriz, gorrotoa dakarren jokabide zeharkakoagoa da. Jokabide horiek guztiak zuzenekoak edo zeharkakoak izan daitezke, eta, nolana ere, publikoki egindakoak izan beharko dute. Erreformarekin, garbi geratu da delitua eta Zigor Kodearen 18. artikuluan aurreikusitako deliturako probokazioa autonomoak direla prestaketa-ekintza zigorgarri gisa. Erreformaren aurretik ez bezala, kolektibo bat ez ezik kolektibo hori osatzen duten pertsonetako bat ere izan daitezke jokabidearen xede.

Bigarren letran (b), (a) letran aurreikusitako jokabideetakoren bat egiteko material egokiaren produkzioa, egitea, edukitza (banatzeko edo hirugarrenei lortzeko aukera emateko), banaketa, hedapena edo salmenta daude tipifikatuta. Letra berrian, errazago sartuko dira, adibidez, Europa eta Kalki liburu-denden kasuak, hau da, Bartzelonan epaitu zituzten bi liburu-denda neonazienak; hainbat gorabehera juridikoren ondoren (konstituzio-kontrakotasuneko auzi bat Europa liburu-dendaren kasuan), absolutzio-epaiekin amaitu ziren kasuak.

Azkenik, hirugarren letran (c) genozidio-delitua, gizateriaren aurkako delitua edo, gatazka armatuaren kasuan, pertsonen edo ondasunen aurkako delitua ukatu, larriki tribializatu edo gorestegatiko delituak

zigortzen dira. Letra horren barruan, besteak beste, erreformaren aurretik Zigor Kodearen 607.2 artikuluan aurreikusita zeuden jokabide batzuk daude tipifikatuta; beraz, Zigor Kodearen 510. artikulua berrian geratu dira txertatuta. Bi aginduen artean dagoen funtsezko desberdintasuna zera da, agindu berrian ez dela justifikazioa kontuan hartzen, eta tribalizazioa eta gorespina jasotzen direla. Gainera, Zigor Kodearen 607.2 artikuluan jasotako genozidioari lotutako jokabideak ez ezik, gizateriaren aurkako delituak eta "gerrako krimen" deitutakoak ere zigortzen dira letra berrian.

510. artikulua adierazgarrietako bat bada ere, ez dugu ahaztu behar Zigor Kodean agindu gehiago daudela "gorroto-delituen" kategoriaren barruan, hala nola Zigor Kodearen 22.4 artikuluan jasotako erantzukizun penalaren inguruabar astungarria (delituak diskriminazio-arrazoiengatik egiten direnean aplikatzen dena), agente pribatuek (512. artikulua) edo publikoek (511. artikulua) prestazio bat ukatzea, kolektiboei zuzendutako mehatxuak (170.1 artikulua), osotasun moralaren aurkako delitua (173.1 artikulua), laneko diskriminazioa (314. artikulua), erlijio-sentimenduen aurkako delituak (522-526. artikulua), zilegi ez den elkarte (515.4 artikulua), genozidioa (607. artikulua) eta gizateriaren aurkako delitua (607 bis artikulua).

Polizia Nazionalak gorroto-delituei buruzko lehen jardunaldiak antolatu ditu Malagan. Ekainaren 28an, Gayen Harrotasunaren Eguna, Malagako Polizia Nazionalak gorroto-delitu homofobikoen inguruko barne-prestakuntza bat antolatu zuen, tolerantziarik ezaren aurkako borroka gizateriak aurrean dituen erronka handietako bat dela azpimarratuta. Jardunaldien helburua tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta aniztasunaren kudeaketaren eremuan kontzientziatzea eta sentsibilizatzea izan zen, 2014. urtean Andaluziako Autonomia Erkidegoan Estatu osoko gorroto-delituen proportziorik handiena erregistratu zela kontuan hartuta.

Barne Ministerioak beharrezkotzat hartu du gorroto-delituak "lehen mailan" jartzea. 2015eko urrian, Segurtasuneko estatu-idazkari Francisco Martínezek adierazi zuen beharrezkoa zela gorroto-delituak "lehen mailan" jartzea, beste indarkeria mota batzuen kasuan bezala (hala nola genero-indarkeriaren kasuan bezala) gorroto-delituen biktimek gertakari horiek salatzea ahalbidetuko zuten mekanismoak sendotzea eta, beste zenbait tresnaren artean, gizarte-solaskidearen figurara jotzea. Ildo horretan, adierazi zuen beharrezkoa zela prestakuntzan aurrera egitea, komunikabideak delitu horien tratamenduan kontzientziatzea eta delitu horiek jakinarazi eta erregistratzeko garaian erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. Estatu-idazkariak begi onez ikusi zuen 2014. urtean Barne Ministerioak delitu horiek ikusarazteko eta desagerrarazteko abian jarri zuen polizia-jardunaren protokoloa.

Arraza edo Etnia Diskriminazioaren Biktimentzako Laguntza eta Orientazio Zerbitzua aurkeztu da. Azaroaren 30ean, Arraza edo Etnia Diskriminazioaren Biktimentzako Laguntza eta Orientazio Zerbitzua aurkeztu zen Gurutze Gorriak Madrilen duen egoitzako ekitaldi-aretoan. Sekretariado Gitano Fundazioak, zerbitzuaren koordinatzailea izaki, zerbitzuaren berrekitea aurkeztu zuen zerbitzua osatzen duten zazpi gizarte-erakundeekin batera: Accem, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR), Espainiako Gurutze Gorria, CEPAIM Fundazioa, Tolerantziarik Ezaren aurkako Mugimendua, MPDL Bakearen aldeko Mugimendua eta ACOGE sarea.

Biktimei Laguntzeko Zerbitzua Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Emakumearen eta Aukera Berdintasunerako Institutuari atxikita dagoen Arraza edo Etnia Diskriminazioa Desagerrarazteko Kontseiluaren mende dago. Aurkezpenean, zerbitzua osatzen duten erakundeek aldi berrirako (2015-2017) egitura berria azpimarratu zuten. Izan ere, 87 bulego izango ditu Estatuan (20 bulego ofizial eta 67 bulego laguntzaile). Zerbitzua osatzen duten zortzi erakundeek erabiltzen duten metodologia jardun komunerako protokolo batean eta diskriminazio-gorabeherak jasotzeko datu-base espezializatu batean islatu da.

Bi ardatz nagusitan lan egiten da: arraza- edo etnia-diskriminazioaren biktimei laguntza, aholkularitza eta orientazioa eskaintzeko jardun-ardatz bat, eta funtsezko agente profesionalak zein arraza- edo etnia-diskriminazioaren biktima potentzialak informatu eta sentsibilizatzeko beste jardun-ardatz bat.

Europar Batasuneko diskriminazioari buruzko Eurobarometroa. Estatu espainoleko emaitzak. Eurobarometroak Europar Batasuneko diskriminazioari buruz egindako inkesta berri baten emaitzak eman zituen ezagutzera Europako Batzordeak joan den urtearen amaieran. Batzordeak Europako herritarrek hainbat arrazoiengatik diskriminazioaren inguruan agertzen dituzten pertzepzio, jarrera eta esperientziak ezagutu eta aztertzeko egin duen laugarren inkesta da. Landa-lana Europar Batasuneko 28 estatuetan egin zen 2015eko maiatzaren 30tik ekainaren 8ra bitarte. Hainbat talde soziodemografikotako 27.718 pertsonak erantzun zioten etxean aurrez aurre egin zieten inkestari. Estatu espainolari dagokionez, honako datu hauek eman zituen azterlanak:

- Estatu espainolean inkesta egin zuten pertsonen % 63ren ustez, etniagatik diskriminazioa zabaldua dago Espainiako gizartearen (2012an baino % 5 gehiagok adierazi zuen hori).
- Bestalde, pertsona horien % 16k adierazi zuten diskriminazio edo jazarpen motaren bat jasan zuela azken 12 hilabeteetan.
- Diskriminazioaren edo jazarpenaren biktimak izanez gero zer eskubide zituzten bazekitela adierazi zutenen ehunekoa % 41era iritsi da (2012an baino % 11 gehiago).
- Diskriminazioaren edo jazarpenaren biktimak izanez gero, inkesta egin zutenen % 51k nahiago izango lukete beren kasuaren berri poliziarri eman, % 12k abokatu bati, % 8k epaitegi edo auzitegiei, % 8k berdintasun-erakunde eskudunari, % 7k sindikatuei eta % 4k GKEei edo elkartei.
- % 27ren ustez, Estatu espainolean diskriminazio mota guztiei aurre egiteko egindako ahaleginak eraginkorrak izan ziren, % 36ren ustez "eraginkor samarrak", eta % 28ren ustez, berriz, "ez zuten balio".
- Inkesta egin zuten pertsonen % 75 ados zeuden diskriminazio-arriskuan zeuden pertsonen eta taldeen babes-maila areagotzeko neurri berriak hartu behar diren ideiarekin.

Diskriminazio-gertakarien eta/edo gorrotoak eta tolerantziarik ezak eragindakoen identifikazioa eta salaketa erraztera bideratutako gida praktikoa. Emakumearen eta Aukera

Berdintasunerako Institutuak, Tratu Berdintasunerako eta Diskriminazioaren aurkako Zuzendariordetza Nagusiaren bitartez, diskriminazio-gertakarien eta/edo gorrotoak eta tolerantziarik ezak eragindakoen identifikazioa eta salaketa erraztera bideratutako gida praktikoa bat argitaratu zuen 2015eko azaroan. Gida horrek honako alderdi hauei buruzko informazioa biltzen du:

- a) Diskriminazio motak eta diskriminazio-arrazoiak.
- b) Diskriminazioaren eta gorroto-delituaren aurka babesten duten arauak.
- c) Egoera errealak eta gertakarien aurrean nola jokatu behar den jakiteko gomendioak.
- d) Horrelako ekintzak salatzeko eskuragarri dauden baliabideak.

Materiala bi liburukitan egituratuta dago. Bata gertaera horien biktimak izan daitezkeen herritar guztiei zuzenduta dago, eta bestea, berriz, herritarren salaketa eta erreklamazioei erantzuteaz arduratutako profesionalentzat bideratuta.

Ikasgeletan arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren beste adierazpen batzuk detektatzen eta hari aurrea hartzen laguntzeko eskuliburua. Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiak (OBERAXE) "Ikasgeletan arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren beste adierazpen batzuk detektatzen eta hari aurrea hartzen laguntzeko eskuliburua" (Manual de apoyo para la prevención y detección del racismo, la xenofobia y otras formas de intolerancia en las aulas) argitaratu zuen joan den urtearen amaieran. Eskuliburua FRIDA Europako proiektuaren esparruan egin zen. Eskuliburuaren sei kapituluetan, honako alderdi hauek lantzen dira:

- Zer diren arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik eza, eta zergatik agertzen diren gure gizartean eta eskola-eremuan (bereziki).
- Zein den arrazakeriari eta arraza- edo etnia-diskriminazioari buruzko erreferentziako araudia.
- Nola detekta daitezkeen gertaera arrazistak, xenofoboak edo tolerantziarik ezari lotutakoak ikastetxeetan, eta nola jokatu behar den gertaera horien aurrean.
- Nolako eragina eta ondorioak dituzten gertaera horiek biktimgan.
- Zein diren ikastetxeetan bizikidetzak hobetzeko eta arrazakeriari aurrea hartzeko eskuragarri dauden tresnak eta estrategiak.

Materialak, halaber, autonomia-erkidegoek eta gizarte-erakundeek arlo horretan aurkeztutako hainbat jardunbide egoki eta esperientzia biltzen ditu.

deia • 2015/10/22

Gizartea



Imagen de archivo de varias personas de origen extranjero en una zona de la capital vizcaina. Foto: Zigor Alkorta

Los inmigrantes aportaron en 2012 631 millones de euros y recibieron 593

Un estudio concluye que los ingresos del colectivo en la Administración Pública vasca son mayores que sus gastos

J. Fernández

BILBAO – Los datos, además de positivos, son reales. Recogidos de estadísticas oficiales, representan la aportación económica (invisible eso sí para muchas personas) que la comunidad inmigrante extranjera realiza a las arcas públicas vascas vía IRPF, cotizaciones, IVA, ... tras restar ingresos y gastos: algo más de 38 millones de euros durante 2012, en plena depresión; y hasta 71 millones en 2008, antes de que se desatara la crisis. Y sí, reciben ayudas –incluso ha aumentado su cuantía porque son el colectivo en mayor riesgo de exclusión–, pero su contribución final ha sido constante en estos últimos años.

Así queda patente en el estudio *El impacto económico de la inmigración extracomunitaria en la CAPV* elaborado por el Observatorio Vasco de Inmigración-Ikuspegi, y cuya principal conclusión es que la población de nacionalidad extranjera residente de forma regularizada en la Comunidad Autónoma Vasca (el 6,6% del total, aproximadamente) genera más recursos económicos

para la Administración Pública en comparación con los gastos que le supone por el uso de servicios y prestaciones sociales. Es decir, aportan más de lo que reciben.

En términos generales, entre los años analizados –2008 y 2012–, las contribuciones de la población inmigrante extranjera han crecido en cerca de 200 millones de euros al pasar de 443 a 631 millones de euros. Esta circunstancia, explicó José Luis Madrazo, director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, tiene una relación evidente con las políticas de empleabilidad, las cotizaciones a la Seguridad Social –que pasan de 208 a 277 millones de euros– y el IRPF –que sube de 112 a 201 millones de euros–, “lo que demuestra una alta ocupación del colectivo en el mercado laboral vasco”, ilustró.

En el otro lado de la balanza, el gasto “imputable” a la población de nacionalidad extranjera en 2008 fue de casi 372 millones de euros y en 2012 la inversión pública en este colectivo creció hasta situarse por encima de los 593 millones de euros. Esta evolución al alza se debe fundamentalmente al incremento en 118

millones de euros de las partidas consignadas a prestaciones y servicios sociales, que se duplicaron al pasar de 118.328.670 a 236.840.810 millones de euros, detalla el informe presentado ayer que busca ofrecer una visión objetiva e integral del fenómeno de la inmigración y de su huella en las cuentas públicas.

Estos datos –agregó Gorka Moreno, director de Ikuspegi– son la con-

secuencia más directa de una crisis que ha afectado en mayor medida a este colectivo. Sin embargo, puntualizaba, también es cierto que en ese mismo período analizado la población extranjera engordó al pasar de 117.337 personas en 2008 a 151.894 en 2012. Un hecho que ayudaría a entender ese comportamiento, replicado también en los gastos “imputables” a este colectivo en educación

–pasa de 130 a 172 millones de euros–, sanidad –de 100 a 144 millones de euros– o vivienda –de 22 a 39 millones de euros–, por ejemplo.

DESMONTAR CREENCIAS En cualquier caso, insistía Moreno, a pesar del fuerte impacto de la crisis económica en el uso de los diferentes sistemas de bienestar –ayudas sociales, becas de estudio, alquileres...–, la población de nacionalidad extranjera genera un mayor número de recursos económicos para la Administración pública vasca en comparación con el gasto asociado al uso de los servicios de bienestar.

Una afirmación corroborada con los datos compilados en el documento y que desmonta la creencia más o menos extendida de que la población inmigrante acapara buena parte de los recursos sociales disponibles. En 2008, sin ir más lejos, esos 118 millones de euros transferidos en concepto de prestaciones y servicios sociales representaban el 7% del total: 1.681 millones de euros. En 2012 ese porcentaje fue del 11,2: de un total de 2.124 millones de euros, para ellos fueron destinados

SIN LA LLEGADA DE EXTRANJEROS

50.000 HABITANTES MENOS EN LA CAV

●●● **Impacto.** La inmigración extranjera ha permitido detener la pérdida de población que Euskadi sufre desde la década de los años 80 del siglo pasado. Este fenómeno, subraya el documento *El impacto económico de la inmigración extracomunitaria en la CAPV*, ha compensado la pérdida de población autóctona –que se sigue produciendo debido a la baja tasa de natalidad– e incluso ha posibilitado un aumento del padrón, “algo inédito” desde esa década. De hecho, apostillaba Moreno, sin la llegada de población extranjera durante estos últimos años, el censo de la CAV se habría reducido en 50.000 habitantes, según las estimaciones realizadas.

▪ **Diskriminazioak Europar Batasunean duen egoerarako hurbilketa.**

TXEKIAR ERREPUBLIKA. Romá haurrek eskolan hezkuntza jasotzeko aukera-berdintasunerako eskubidea sustatzen duen Eskolaren Legearen zuzenketa. Legeria berriaren helburuetako bat honako hau da: Europako Kontseiluaren eta Nazio Batuen erabaki eta txosten ugariari eta 2014an Europako Batzordeak Txekiar Errepublikaren aurka hasitako arau-hauste prozedurei erantzuteko Romá haurrak eta desgaitasuna dutenak hezkuntzan txertatzeko aukera-berdintasuna sustatzea. Aldaketarik garrantzitsuenak honako hauek dira:

- “Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen” definizio berria. Haur horien integrazioa behar dituzten babes-neurrietan oinarrituko da.
- “Babes-neurrien” definizio eta zerrenda berria.
- Ikasle guztientzako prestaketa-eskolak lehen hezkuntzako ikastetxeetan.

FRANTZIA. Arrazakeriari eta antisemitismoari aurre egiteko Ekintza Plan Nazionala. Planak 40 neurri eta 100 milioi euroko aurrekontua aurreikusten du 3 urterako, eta DILCRA (*Délégation Interministérielle à la Lutte Contre le Racisme et l’Antisémitisme*) erakundeak ikuskatuta ezarriko da. Erakunde horrek informazioa eman beharko die urtean behin Giza Eskubideen Aholku Batzorde Nazionalari, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari eta giza eskubideen arloan eskumena duten Europako agintariei.

Arazakeriaren eta antisemitismoaren aurkako borroka “kausa nazional handitzat” hartu zen 2015. urtean, eta, ildo horretan, komunikazio nazionalako kanpaina bat egingo da, GKEek arazakeriaren aurka egindako ekimenak finantzatzeko dira, eta Interneten zabaltzen diren gorroto-diskurtsoen aurkako diskurtsoa zabaltzeko mobilizazioa sustatuko da.

ALEMANIA. Eliza katolikoak leialtasun-betebeharrei buruz ezarrita dituen arauen aldaketa. Alemaniako Gotzainen Biltzarrak barne-araudia aldatu du eliza katolikoko eta haren erakundeetako langileei aplikatu beharreko leialtasun-betebeharrei dagokienez.

Arau berrien arabera, dibortziatu ondoren ezkontzea edo sexu bereko pertsona batekin bikote gisa erregistratzea kaleratzea justifikatzen duten leialtasun-betebeharren arau-hauste larritzat hartuko da, baina salbuespenezko inguruabarretan eta erregistratutako bigarren ezkontzak komunitatean nahasmendu handiak eragiten dituen baina ez. Horrek ondorio garrantzitsuak ditu erlijio-komunitateek enplegatuta dituzten pertsonak haien sexu-orientazioa dela-eta tratatzeko moduan.

ALEMANIA. Facebook, gorrotoaren aurka Interneten. Alemanian diskriminazioaren aurka egindako kanpainen ildotik, Facebookek berea egin zuen Berlingen, 2016. urtearen hasieran: “Adore zibikoaren aldeko ekimena”. Izen hori jarri zion munduko gizarte-sarerik handienak Interneten gorrotoaren aurka egiten duen borrokari. Milioi bat euro inguru inbertitu ditu Kaliforniako enpresak Europan argitalpen xenofoboari aurre egiteko zabalduetako kanpaina berrian. 2015eko azaroan, Hanburgoko hainbat

fiskaltzak Facebooken inguruko ikerketa bat bultzatu zuten gorroto-adierazpenak ez zabaltzeko behar adina egiten ez zuela susmatuta, eta horren ondorioz egin zuen kanpaina Mark Zuckerberg buru duen enpresak.

Facebookek xenofobiari, mehatxu zehatzei eta Interneteko «mobbingari» aurre egingo dion sare bat zabaldu nahi du Berlinetik Europarantz. Horretarako, Arvato enpresarekin elkartu da. Enpresa hori Bertelsmann enpresan sartuta dago, eta ehun enplegatu baino gehiago jarri ditu Facebooken eskura, honako helburu honekin: argitalpen kriminalak lehenbailehen identifikatzea eta ezabatzea, Angela Merkel kantzilerrak eskatu bezala.

GREZIA. ECRik Greziako arraza-diskriminazioari buruzko informazioa eman du. 2015eko otsailean, ECRik Greziako arraza-diskriminazioari buruzko txosten bat argitaratu zuen, eta bertan azpimarratzen denez, ez da zuzendu 3304/2005 Legea, tratu-berdintasunaren printzipioa (arrazak, jatorri nazionala, erlijioa edo beste sinesmen batzuk, desgaitasuna, adina edo sexu-orientazioa edozein izanik ere) aplikatzeari buruzkoa, aurreko txostenean hori eskatu bazuen ere. Zuzenketa horien artean, honako hauek eskatu zituen: kolorea, herritartasuna eta hizkuntza jasotzea, Legearen III. kapitulua gizarte-babesera, hezkuntzara eta ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko aukerara zabaltzea, asoziazio bidezko diskriminazioa jasotzea, agintari publikoek beren funtzioak betetzean diskriminazioari aurrea hartzeko zuzeneko betebeharra jasotzea eta GKEei kasuak auzitegietara eramateko (biktima jakin bat ordezkatu behar izan gabe) aukera ematea.

NORVEGIA. Romá jatorriko pertsonen gutxiengo nazional gisa 1850etik orain arte izan duten egoerari buruzko txosten nazionala. “Romá jatorriko pertsonen gutxiengo nazional gisa 1850etik orain arte izan duten egoerari buruzko txosten nazionala” 2015eko ekainean aurkeztu zitzaion Tokiko Gobernu eta Modernizazioko ministroari. Txostenaren helburua, nolana ere, Norvegiako agintari eta erakundeek 1850. urtetik orain arte Romá jatorriko pertsonentzat ezarritako politika eta neurriak dagokienez izan duten garapena aztertu eta deskribatzea izan da.

Batzordeak gai horren inguruan ezarri diren politikak eta talde horri ematen zaion tratua aztertu ditu. Talde horrek aurreko hamarkadetan jaso duen tratua aztertu ondoren, 20ko hamarkadan politika nazionalak eta tokiko politikek Romá jatorriko pertsonen tradizioak eta kultura ahuldu zituztela adierazi du Batzordeak. Batzordeak, gainera, hainbat gomendio ematen ditu herritar gehienak eta talde minoritario horren arteko adiskidetzea sustatzeko. Gomendio horietako gehienak diskriminaziorik ezari lotuta daude.

Batzordeak egindako lanaren ondorioz, Tokiko Gobernu eta Modernizazioko ministroak barkamena eskatu die publikoki talde minoritario horretako pertsonari.

ESKANDINAVIAKO HERRIALDEAK. Eskandinaviako herrialdeetan Errumaniatik iritsitako Romá etorkinei ematen zaian tratuari buruzko txostena. 2015eko ekainean, FAFO ikerketa-erakundeak Errumaniatik iritsi diren eta Eskandinaviako hiriburuetan eskean ibiltzen diren Romá pertsonen egoerari buruzko erreportaje bat argitaratu zuen. Kolektibo horretako 1.296 pertsonari elkarrizketa bat egin zitzaion, eta kalean eskatzeko estrategiei, Errumanian zuten bizitzari, emigratzeko arrazoiei

eta etorkizunerako aurreikuspenei buruz galdetu zitzairen. Erreportajearen arabera, kolektibo horren barruan kalez kale saltzen diharduten pertsonak uste baino diskriminazio txikiagoa jasan dezakete, baina kalteberak dira jazarpenaren eta babesgabetasunaren aurrean. Erreportajearen ondorioztatzen denez, pertsona horien inguruko mito asko eta asko ez dira egiazkoak: pobreak badira ere, ez daude trafikatzailen mende antolatuta, dirua behar-beharrezkoa dute eta oinarrizko premietan gastatzen dute, eta jarduera kriminalek ez dute zerikusirik eskean ibiltzearekin.

Romá jatorriko pertsona batzuk bizi dira Norvegian, baina iraganean Errumaniako saltzaile ibiltari asko iritsi ziren, gehienak Romá jatorrikoak. Gehienek ez dute bizileku-baimenik, eta turista-bisa batekin joaten dira Norvegiara. Erreportajeak agerian utzi ditu Eskandinaviako herrialdeetan Romá jatorriko etorkinen gizarteratzeari dagokionez garatu diren zenbait politikaren ondorioak. Agerian utzi du, halaber, Europar Batasuneko azpiegiturak langileen zirkulazio librea sustatzen badu ere ia ez dagoela inolako erregulaziorik pobrezia zirkulazio libreari dagokionez. Datu horiek jakiteak pobrezia transakzionalari lotutako erreakzio politikoei buruzko eztabaida susta lezake.

ERRUMANIA. Magistratura Batzorde Gorenak Romá jatorriko eta beste talde kaltebera batzuetako jendeak justiziara jotzeko duen aukerari buruz argitaratutako txostena. Magistratura Batzorde Gorenak Errumaniako talde kalteberak justiziara jotzeko duten aukerari buruzko azterlan bat argitaratu du, eta Romá jatorriko jendearengan oinarritu da bereziki. Azterlanak herritarrek –oro har– eta Romá jatorriko jendeak eta beste talde kaltebera batzuek –bereziki– justiziara jotzeko duten aukera ebaluatzea eta arlo horretan dituzten premiak eta oztopoak aztertzea du xede. Ondorioen artean, honako hauek aipa daitezke: “lege-azpiegiturak ez du talde kalteberen ebaluaziorik”, “lege-horniduretan ez da kontuan hartzen epaitegietako tasak oso garestiak direla talde kalteberentzat”, “justiziarekin lotutako informazioa badago, baina eskuratzea zaila da talde kalteberentzat”. Azterlanak ondorioztatzen duenez, halaber, aurreiritzi ugari daude justiziara jotzeko aukeraren inguruan, Romá jatorriko jendeak ez du konfiantzarik justizian (eta horrek eragina du justiziara jotzeko garaian), eta justiziak ez du errekonozitzen talde kaltebera horiek jasaten duten diskriminazioa (Romá jatorriko jendeak jasaten duena, bereziki).

ESLOVENIA. Parlamentuak zuzenketak egin dizkio Ezkontza eta Familia Harremanen Egintzari, eta, horren ondorioz, lan-eskubide gehigarriak baliatzeko aukera izatea ahalbidetu die sexu bereko bikoteei. 2015eko martxoan, Batzar Nazionalak Ezkontza eta Familia Harremanen Egintza zuzentzeko Egintza onartu zuen. Aldaketarik handiena sexu bereko pertsonen ezkontzak legeztatzean datza, sexu bereko bikoteen diskriminazio sistematikoa desagerrarazteko helburuarekin; era horretan, Esloveniako Konstituzioaren diskriminaziorik ezaren aurreikuspena beteko da.

Aldaketei esker, sexu bereko bikoteek (ezkonduta daudenek zein elkarrekin bizi direnek) lan-eskubide jakin batzuk baliatu ahal izango dituzte: gaixorik dagoen bikotekidea zaindu behar den kasuan kobratzeko eskubidea, ezkontzeagatik opor-egun batzuk hartzeko eskubidea eta bikotekidea hiltzen bada pentsioa jasotzeko eskubidea.

3. kapitulua

eraberean sarearen jarduera 2015ean

3. kapitulua. eraberean sarearen jarduera

Txosten honen hasieran adierazi bezala, Eraberean sareak bere ibilbidearen lehen urtean egin duen lanaren alderdirik esanguratsuenak jasotzea da helburuetako bat.

Lan hori bi lan-ardatzen inguruan egin da:

- **1. lan-ardatza: prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa.** Lan-ardatz honek gizarteraldaketako prozesuak bultzatzea du helburu, eta, horretarako, prestakuntzarako, zabalkunde-materialak sortzeko eta erakundeak, gizarte-erakundeak eta gizarte zibila aholkatzeko programak eta jardunak hartzen ditu kontuan.
- **2. lan-ardatza: arreta, laguntza eta aholkularitza.** Lan-ardatz hau jatorri, etnia, nazionalitate eta sexu eta generoko orientazio eta identitateagatiko diskriminazio-tratu edo diskriminazio-gertakari baten edo gorroto-delitu baten biktimak izan diren pertsona edo taldeentzako zuzeneko arretari lotuta dago.

Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago bi lan-ardatz horiek hiru batzorderen bidez garatu direla: Informazio eta Dokumentazio Batzordea, Prestakuntza eta Sentsibilizazio Batzordea eta Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordea.

3.1. 1. lan-ardatza: prebentzioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa

Lan-ardatz hau bi batzordek garatu dute: Informazio eta Dokumentazio Batzordeak eta Sentsibilizazio eta Prestakuntza Batzordeak. Hala ere, batzorde horien lan-eremua ez da itxia, eta zenbaitetan elkartu egiten dira eta proiektu eta/edo jarduera batzuk batera egiten dituzte.

Informazio eta Dokumentazio Batzordearen eginkizuna sarerako euskarriak sortzea da, bai barne-lanari dagokionez (diskriminazio-kasuei erantzuteko tresnak, adibidez), bai beste agente batzuekiko lanari dagokionez (sareko lanari lotutako informazio-jardunak, besteak beste).

Batzordearen funtzioak honako hauek dira:

- Sareko berezko lana egiteko zein arlo horretan diharduten beste agente batzuei eta herritar guztiei zabaltzeko interesa duen TBDEaren arloko informazioa eta dokumentazioa biltzeko proposamenak egitea.
- Sareak egiten duen lanari buruzko informazio-jardueren egutegia diseinatzea.
- Sarea haren barne-funtzionamendua zein aurkezpen publikoa erraztuko duen euskarri informatiko batez hornitzea.
- Sarea haren lanaren xede den arloan interesa duten eta sarea garatzean sinergiak sortzeko aukera ematen duten erakundeak eta pertsonak bilduko dituen datu-base eguneratu batez hornitzea.

2015. urtean, Informazio eta Dokumentazio Batzordea hilean behin egiten diren osoko bilkuren ondoren bildu da, eta beste bi aldiz ezohiko izaeraz (osoko bilkurarik izan ez denean), ekainean eta irailean. Halaber, azpimarratu beharra dago online modalitatean egiten den lana.

2015. urtean egindako produktu eta jardunen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- Sarearen egungo aplikazio informatikoa; sarbide murriztua du, antena bakoitzerako pasahitz indibidualizatu bat eskatzen du, eta detektatutako edo salatutako diskriminazio-gertakariak edo diskriminazio-ekintzak eta sarearen erantzuna eta jarraipena erregistratzea ahalbidetzen du.
- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunean, sareari buruzko oinarritzko informazioa txertatu da.
- Sareak bere hedapena errazteko euskarri-material bat dauka. Euskarri horrek, alde batetik, sareari, haren eginkizunari, eskaintzen dituen zerbitzuei eta sarea osatzen duten erakundeen harremanetarako datuei buruzko informazio orokorra emateko triptikoak eskaintzen ditu, eta, bestetik, tamaina txikiagoko liburuxkak. Azken horietan, erakunde bakoitzak Lurralde Historiko bakoitzean dituen harremanetarako datuak bereiz bilduta daude, interes bereziko tokietan banatzeko (hala nola jai-eremuetan, ferietan, topaketa irekietan eta kaleko jardueretan).
- 2015. urtean, sarearen ikuspegiaren baterako edo guztietarako esanguratsuak diren datak jasotzen dituzten sakelako eta mahaiko egutegi batzuk egin dira. Data horien artean, arraza-diskriminazioa desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna, LGTBlen

Harrotasunaren Eguna eta gorroto-delituen biktimen Europako Eguna aipa daitezke, besteak beste. Helburua ospakizun horiek baliatzea eta haien inguruan sarea ezagutzera ematen eta TBDEaren arloan sentsibilizatzen lagunduko duten ekintzak egitea da.

- TBDEaren aldeko fronte zabal bat osatuko duten pertsona eta erakunde laguntzaileen sare zabal bat sortzeko, pertsonen eta erakundeen harremanetarako datuak maila teknikoan, operatiboan edota irudiari eta testigantzari dagokienez egin dezaketen ekarpenaren arabera biltzeko aukera emango duen datu-base bat sortu da.
- Sarea hedatzeko eta sozializatzeko estrategiaren esparruan, hainbat aurkezpen-egintza egin dira. Horien artean, azaroan hiru Lurralde Historikoetan Eraberean sarea Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeei ezagutzera emateko egindako bilkurak azpimarratu behar dira. Bilkura horietan, hogeitaz geroz gizarte-erakunde inguruk hartu zuten parte lurralde bakoitzean, eta sarearen lehen aurkezpena egiteaz gain, sarearen hobekuntza eta intereserako alderdiak detektatu ahal izan ziren hainbat eremutan: prestakuntza-eskariak, alde aurretik kontuan hartu gabeko ekintza-ildoen inguruko proposamenak eta abar.
- Azkenik, 2015eko urrian, Biltzenek eta Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) antolatutako "Euskal Autonomia Erkidegoko Immigrazio eta Integrazioari buruzko V. Jardunaldietan" hartu zuen parte Eraberean sareak (lan-eremuko diskriminazioari buruzko mahai-inguruan, zehazki).

noticias de gipuzkoa • 2015/03/10



Protagonistas y colaboradores en la campaña contra el racismo, ayer en Donostia. Foto: R.P.

Deportistas “dan la cara” frente al racismo

NOMBRES PROPIOS COMO ELI PINEDO, DAVID DOBLAS O IMANOL AGIRRETXE PROTAGONIZAN LA NUEVA CAMPAÑA DE LA DIPUTACIÓN FORAL PARA FRENAR ESTA LACRA

Deportistas como la balonmanista Eli Pinedo, el futbolista Imanol Agirretxe o el baloncestista David Doblás “darán la cara” contra el racismo en una campaña organizada por la Diputación de Gipuzkoa con la que trata de concienciar a la ciudadanía sobre la importancia de rechazar los mensajes xenófobos. La campaña fue presentada ayer por el diputado general de Gipuzkoa, Martín Garitano, en una rueda de prensa en la que participaron también Eli Pinedo, David Doblás, el presidente de la Real Sociedad, Jokin Aperribay, Mikel Larrañaga en representación de la Sociedad Deportiva Eibar, el presidente

del Bera-Bera, Fernando Díez Mintegi, y el del Club Atlético San Sebastián, Carlos Benavides.

Garitano destacó la “pluralidad” de la sociedad guipuzcoana, un valor “positivo y enriquecedor” que debe convertirse en “elemento de cohesión”, al tiempo que mostró su preocupación por el aumento de mensajes xenófobos que “ponen en el punto de mira a determinados colectivos”. En este contexto situó la campaña que se pone en marcha con motivo de la celebración el próximo 21 de marzo del Día contra el Racismo bajo el lema *Dar la cara contra la discriminación racial*. Durante las próximas semanas el mensaje se

difundirá en espacios publicitarios en radio y televisión en los que los deportistas, como “personas referentes en la sociedad”, trasladarán la necesidad de enfrentarse al racismo. La ciudadanía también podrá participar en la campaña a través de la red social Twitter.

Garitano dijo que la práctica deportiva debe ser un “instrumento de convivencia”, resaltó, mientras que el jugador del Gipuzkoa Basket David Doblás apeló a la necesidad de profundizar en el conocimiento de otras culturas y confesiones como arma contra el racismo, ya que “en muchos casos” estas actitudes tienen su origen en el desconocimiento. -Eje

gara • 2015/03/10

Kirolari gipuzkoarrak, arrazakeriaren aurkako kanpainaren protagonista

Eli Pinedo, Naroa Agirre, Imanol Agirretxe eta David Doblasek hartu dute parte Gipuzkoako Aldundiak xenofobiaren kontra abiarazi duen kanpainan. Twitter bidez, gizarteak ere parte hartzeko aukera izango du.

GARA | DONOSTIA

Arrazakeriaren aurrean herritarak sentsibilizatzeko kanpaina abiarazi du Gipuzkoako Aldundiak, datorren martxoaren 21a Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta. Kanpainak "Eman aurpegia contra el racismo" du izenburutzat, eta goi mailako lau kirolari ditu protagonista: Naroa Agirre atleta, David Doblase saskibaloia, Eli Pinedo Bera Berako eskubaloia eta Imanol Agirretxe Realeko futbolaria.

«Gipuzkoa eta Euskal Herria anitzak dira herritarren jatorriari, identitateari edo kulturari dagokienez; aniztasuna aberasgarria da, eta aniztasun hori kohesio elementu bihurtu behar dugu, herritar guztien eskubide guztiak bermatuta», adierazi zuen atzoko aurkezpenean Martin Garitano ahaldu nagusiak.

Erantsi zuenez, erakundeak bi arrazoiengatik pentsatu zuen kirolari hauei kanpainan parte hartzeko eskaintzea: pertsona erreferentzialak direlako gipuzkoarren artean, batetik; eta kirola –zenbait kirol, bereziki– portaera arrazistekin lotzen delako askotan, bestetik.



Eli Pinedok aurpegia eman du arrazakeriaren aurka. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Bestalde, **Prestakuntza eta Sentsibilizazio Batzordearen** eginkizuna prestakuntza-proposamenak eta sentsibilizazio-jarduerak egitea da, sarearen berezko ekimenen diseinua eta garapena zein beste erakunde eta organismo batzuen ekimenekiko atxikimendua barnean hartuta.

Batzordearen funtzioak honako hauek dira:

- Diskriminazioaren biktima potentzialentzako, arloko gizarte-eragile garrantzitsuentzako eta gizarte zibilarentzako TBDEaren arloko oinarrizko prestakuntzari lotutako proposamenak egitea.
- Prestakuntza espezializatuaren premiak detektatu eta aztertzea, eta horretarako prestakuntza-plan bat lantzea. Plan hori sarea osatzen duten erakundeentzat, erakunde eta administrazio publikoentzat, gizarte-erakundeentzat eta iritziak sortu eta/edo ugaltzeko garrantzitsuak dien agenteentzat (sindikatuak, kultura-erakundeak eta komunikabideak, besteak beste) zuzenduta egongo da.
- Estatu espainoleko beste lurralde batzuetan TBDEaren arloan egiten diren prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzei buruzko informazioa sare osorako bildu eta ematea.

2015. urtean, Prestakuntza eta Sentsibilizazio Batzordea hilean behin bildu zen osoko bilkuren ondoren, eta beste bi aldiz ezohiko izaeraz, ekainean eta urrian, eta ez dugu ahaztu behar eginkizuna betetzeko beharrezkoa den online formatuan egindako lana.

Batzordeak 2015. urtean egindako lanaren barruan, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Sentsibilizazio-estrategia gisa, sarearen egutegiaren barruan data esanguratsu batzuk adierazi dira sareak lan egiten duen eremuetan, egun horietan produktuak ateratzeko edo jarduerak iragartzeko.
- Nagusiki zerbitzu publikoetan lan egiten duten langileei zuzendutako *Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren arloko Oinarrizko Gida* landu da, pertsona horien sentsibilizazioa bultzatzeko eta diskriminazio-kasuak detektatzen laguntzeko. Gidaren lehen atalean, TBDEaren arloko oinarrizko kontzeptuak, arau-esparru laburra, elkarrizketak egiteko teknikak eta interesa duten baliabideak daude jasota.
- Halaber, barne-prestakuntzako plan bat diseinatu da. Plan horrek honako ekimen hauek biltzen ditu:
 - “Prestatzeko Prestakuntzako” programa bat, sarea osatzen duten erakunde guztiek 2017. urtean TBDEaren arloko oinarrizko prestakuntza eman ahal izan dezaten.
 - Sarea osatzen duten erakundeentzako etengabeko prestakuntzako programa bat. Programa horren esparruan, honako prestakuntza-jardura hauek egin dira: “Bitartekotzarako hurbilketa”; Ertzaintzari eta Eraberean sareko erakundeei zuzendutako, Polizia eta

Larrialdietako Euskal Akademian (Arkaute) egin ziren “Gorroto- eta diskriminazio-delituei buruzko jardunaldien” arratsaldeko saioan garatutako eta Bartzelonako Probintzia Fiskaltzaren Gorroto eta Diskriminazio Delituen Zerbitzuko fiskal koordinatzaile Miguel Ángel Aguilar jaunak zuzendutako mintegi espezifikoak; sarea osatzen duten erakundeetako pertsonak, halaber, EHUK antolatutako “Aniztasuna, gutxiengoak eta komunikabideak” izeneko udako ikastarora eta Biltzenek Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan “Diskriminazio-egoerei aurre egiteko interseksionalitateari” buruz antolatutako jardunaldietara joan ziren.

3.2. 2. lan-ardatza: arreta, laguntza eta aholkularitza

Lan-ardatz horren barruan, Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak garatutako lana eta antenek diskriminazio-kasuen detekzioan eta arretan egiten duen lana sartzen dira.

Arreta, Aholkularitza eta Laguntza Batzordearen eginkizuna antenei diskriminazio-kasuen kudeaketa tekniko-juridikoan laguntzea da, organo juridiko espezializatua den heinean.

Batzordearen funtzioen artean, 2015ean landutako honako hauek azpimarratu behar dira:

- Antenen bidez lagundutako diskriminazio-kasuen artean estrategikotzat har daitezkeenak detektatzea (hau da, zuzenean kaltetutako pertsona edo taldearentzat ez ezik kolektibitate oso batentzat ere mesedegarria izango den irizpide-, arau- edo interpretazio-aldaketa bat eragin dezaketenak).
- Prestakuntza Batzordeari prestakuntza juridikorako proposamenak egitea.
- TBDEaren arloko dokumentazio juridiko espezializatua bilatu eta aurkeztea (jurisprudentzia, Europako araudia eta nazioarteko estandarren aplikagarritasuna, besteak beste).
- Diskriminazioaren biktimei laguntzeko prozesuetan esku hartzen duten beste agente eta/edo erakunde batzuekin koordinatzeko proposamenak egitea eta haiekin sarean lan egiteko protokoloak lantzea (Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, Fiskaltza Espezializatua, Ertzaintza, Emakunde eta Arartekoa, besteak beste).

Antenek diskriminazio-tratu baten edo gorroto-delitu baten biktimak diren pertsoneri edo taldeentzako **zuzeneko arretan** egiten duten lanari dagokionez, haien jardunaren **oinarrizko printzipioak** honako hauek dira:

- **Pertsona arretagune:** diskriminazio-tratu edo diskriminazio-gertakarien kasu indibidual zein kolektiboek arreta berezia eskaintzen zaie, banan-banan balioesten dira, eta bakoitzerako jardun-estrategia desberdin bat diseinatzen da. Nolanahi ere, kaltetutako pertsona edo taldearen borondate eta baimenpean egongo da estrategia hori. Lehentasunez gatazkak


elkarrizketa bidez konpontzeko prozesuak proposatuko badira ere (bitartekotza, adibidez), ez da lege-bidea baztertuko biderik egokiena dela ikusten bada.

- **Konfidentzialtasuna:** diskriminazio-kasu posibleen inguruko kontsulta eta arreta guztiak konfidentzialtasun-printzipioak babesten ditu. Diskriminazio-elementuren bati lotutako kasu, kontsulta edo kexei buruzko informazio eta datu guztiak informazio edo datu sentsibletzat hartuko dira, eta Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren arabera tratatu beharko dira.
- **Inpartzialtasuna eta kontraesana:** diskriminazio-kasuei erantzuteko prozedurak entzute inpartziala eta bidezko tratua bermatu behar die inplikaturako pertsona guztiei.
- **Objektibotasuna:** Eraberean sarea osatzen duten erakundeen zuzeneko arretan, inplikaturako pertsonak azaldu dituzten bezala deskribatuko dira gertakariak, eta honako alderdi hauek adieraziko dira: gertakarien inguruabarrak, eraginpean hartutako pertsonak, diskriminazioa gertatu den eremua, eraginpean hartutako oinarrizko eskubideak eta beste elementu garrantzitsu guztiak.
- **Lankidetzeta eta koordinazioa:** sarearen egitura bera eta helburuak kontuan hartuta, ezinbestekoa da sarea osatzen duten erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzeta.
- **Normalizazioa:** diskriminazio-tratu edo diskriminazio-gertakarien eta gorroto-delituen biktimen zuzeneko arretan, dauden zerbitzu normalizatuak (Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eta Orientazio Juridikoko Zerbitzua, besteak beste) erabiltzea eta kasuak horietara bideratzea sustatuko da.

2015. urtean, Eraberean sarea osatzen duten 12 erakundeek herritarren zerbitzura jarri zituzten arreta, laguntza eta aholkularitzako zerbitzuak, baina datu horiek ez dira EAEk jatorri, etnia, nazionalitate eta sexu eta generoko orientazio eta identitateagatiko diskriminazioari dagokionez agertzen duen errealitatearen adierazgarriak. Eta datuen azterketa kuantitatiboari dagokionez, alde batetik ezin dugu ahaztu 2015. urtea sarearen ibilbidearen lehena izan dela eta sarearen barruan zein kanpoan aurkezpen, hedapen eta prestakuntzari lotutako beste lan batzuk egin direla. Eta, bestetik, diskriminazio-tratu edo gorroto-delitu baten biktimak izan diren pertsona edo talde guztiek salaketak jartzeko geratzen den informazio- eta sentsibilizazio-zeregin handiaren adierazleak izan daitezke bildutako datuak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, 2015. urtean Eraberean sarearen esparruan lagundutako jatorri, etnia, nazionalitate eta sexu eta generoko orientazio eta identitateagatiko diskriminazio-kasuak 24 izan dira:


Arreta jasoduten kasuak, guztira



Arreta jaso duten diskriminazio-kasu guztietatik, % 67 arrazakeria- eta xenofobia-kasuak izan dira, hau da, jatorri, etnia eta/edo nazionalitateagatiko diskriminazio-kasuak. Horien barruan, kasuen % 50etan eraginpean hartutako pertsonak atzerritarrak izan dira, eta gainerako % 17an, berriz, ijito-herriko pertsonak. Arreta jaso duten kasuen gainerako % 33 LGTBifobiako kasuak izan dira, hau da, sexu eta generoko orientazio eta identitateagatiko diskriminazio-kasuak.

Aurreko kasuak honela banatu dira EAEko hiru lurralde historikoetan:

Arreta jaso duten kasuak, guztira




Sarean ordezkatuta dauden ikuspegiei (migrazioak, ijito-herria eta LGTBI) dagokienez, antenek Lurralde Historiko bakoitzean duten ezarpen-mailarekin zerikusia izan dezake banaketa geografiko horrek. 2016. urtean, diskriminazio-kasuetarako zuzeneko arretan hobetu beharreko alderdi gisa balioetsiko da alderdi hori.

Halaber, sarearen esparruan arreta jaso duten eta ijito-herria eraginpean hartu duten diskriminazio-kasuei dagokienez, ijitoen erakundeek historikoki bete izan duten zereginaren inguruko gogoeta egin beharra dago. Izan ere, zeregin hori kolektibo horretako pertsonak jasaten duten bazterkeria-egoeraren inguruko sentsibilizazioan eta salaketa publikoan oinarritu da (hezkuntza, etxebizitza, osasun eta enpleguaren eremuetan bereziki), diskriminazio-kasuen salaketan baino neurri handiagoan. Kasu horietan, arrazakeriari eta xenofobiari lotutako prozesu judizialean ibilbide luzeagoa egingo da. Hortaz, erronka handia da ijitoen elkarteek berek diskriminazio-kasuei lotutako zuzeneko arreta beren gain hartzea, baita dimentsio juridikoan ere. Eta, horri dagokionez, ezin ditugu ahaztu ijitoek diskriminazio-kasuak salatzeke dituzten zailtasunak, kolektiboaren barruko normalizazio-maila handiaren ondorioz nagusiki. Hau da, egoera horien biktimek ez dute beren burua biktimatzat hartzen, eta, beraz, ez dute sentitzen ezer salatu behar dutenik. Aipatu beharra dago, halaber, pertsona horiek salatzeke garaian erakunde eta administrazio publikoekin sentitzen duten mesfidantza.

Gasteiz. 2015eko ekaina. Auzoko baten irainak eta mehatxuak ijito-familia baten aurka. 2015eko ekainean, ijito-bikote gazte bat eta bi urteko alaba Gasteizko Gao Lacho Drom erakundera joan ziren, eta duela urtebetez geroztik alokairuan bizi ziren eraikineko auzoko batekin bizikidetzaz arazo larriak zituztela kontatu zuten. Aurreko maizterra pertsona beltza zen, eta auzoko horren jarrera arrazista eta larderiazkoaren berri eman zien maizter berriei. Eraikinean bizitzen hasi eta lehen hilabetean, irain arrazistak (*"Ijito txerriak, alde hemendik"*) agertzen zituzten kartel batzuk agertu ziren erkidegoaren iragarki-taulan. Halaber, Ertzaintzaren patruilak etxebizitzan agertzen hasi ziren, eztabaida eta liskar handien berri emateko deiak jaso ondoren (eztabaidak gezurrezkoak ziren erabat). Azken gorabehera 2015eko ekainaren 7an gertatu zen, auzokoa bikotearen leihorantz garrasika hasi zenean: *"Lapurrak! Txerriak! Ez dizuet bizitzen utziko, alde egin dezazuen! Ijito txerriak!"*. Familiak, izututa, Ertzaintzari deitu zion, eta gertakariak salatzeke aholkatu zioten.


2015ean arreta jaso duten azterketarekin jarraituz, eta diskriminazio-gertakaria edo diskriminazio-tratua jakinarazteko moduari dagokionez:

Kasuaren hasiera



Arreta jaso duten kasuen % 83 zuzenean kaltetutako pertsonak salatu dituzte sareko erakunderen batean, eta, beraz, sarearen eskumeneko arrazoiengatik diskriminazio-gertakarien edo diskriminazio-kasuen biktimentzat antenak erreferentzia bat direla ondoriozta daiteke. Bestalde, etorkizunerako hobekuntzari begira, azpimarratu beharra dago kasu gutxi bideratu dituztela beste elkarte batzuek sareko erakunderen batera. Horrek pentsarazten du hedapena hobetu eta beste erakunde eta/edo organismo batzuekin lankidetzan jarduteko sistemak edo protokoloak ezarri behar direla.

Arreta jaso duten pertsonen profilari dagokionez, haien jatorrizko herrialdea eta sexua kontuan hartuta bereizi dira datuak.


Arreta jaso duen pertsonaren profila**Jatorrizko herrialdea**

Arreta jaso duten pertsonen jatorrizko herrialdeari dagokionez, % 46 Estatu espainolekoak ziren (ia % 100 LGTBIei eta ijito-herriari lotutako kasuetan). Sexu eta generoko orientazio eta identitateगतिको diskriminazioaren kasu bakar batean, kaltetutako pertsona latinoamerikarra zen. Jatorri horrek diskriminazio anizkoitzeko kasu bat adieraz bazezakeen ere, kasu horretan diskriminazio-tratuaren edo diskriminazio-gertakariaren biktimaren jatorriak ez zuen garrantzirik izan. Kasu zehatz hori alde batera utzita, interesgarria izan daiteke sarearen ikuspegi guztietan arreta jaso duten kasuen arteko datu sentsibleak gurutzatzea (jatorria eta sexu edo generoko orientazio eta identitatea, adibidez) diskriminazio anizkoitzeko kasuak detektatzeko.

Atzerritarrek arrazakeriari eta xenofobiari lotuta jasan dituzten kasuei dagokienez, pertsonen % 21 Magrebekoak ziren (Maroko, Aljeria eta Mauritaniakoak), % 17 Latinoamerikakoak (Kolonbia, Dominikar Errepublika eta Perukoak), % 13 Afrika Beltzekoak (Nigeria eta Boli Kostakoak) eta % 4 Europakoak (Errumaniakoak).

Arreta jaso duen pertsonaren profila


Sexua



Arreta jaso duten pertsonen profilaren azterketarekin jarraituz, azpimarratu beharra dago sareko erakunderen batera diskriminazio-gertakariak edo diskriminazio-tratuak salatzen diren % 67 gizonak eta % 29 emakumeak zirela, hau da, gizonak emakumeen bikoitza baino gehiago zirela. Gainera, pertsona trans bakarra baino ez da joan. Hori ikusita, galdetu beharra dago emakumeek eta transek diskriminazio-egoerak gizonen baino neurri txikiagoan salatzen dituzten, eta nolako eragina izan dezakeen diskriminazio anizkoitzaren ikusezintasunak sexuagatiko diskriminazioa sareak lantzen dituen gainerako hiru arazoaren batekin gurutzatzen denean.


Bestalde, arreta jaso duten kasu guztien % 92tan, diskriminazio-zantzu garbiak agertu ziren, eta beste % 8an, berriz, diskriminazio-zantzurik ez zegoela balioetsi zen.

Diskriminazio-zantzuak



Diskriminazio motari dagokionez, arreta jaso duten kasuen % 78 zuzeneko diskriminazio-kasuak izan dira, eta gainerako % 22, berriz, zeharkako diskriminazio-kasuak. Hori bat dator zeharkako diskriminazio-kasuak identifikatzeko zailtasun handiagoarekin, baita kaltetutako pertsona edo taldeentzat ere.


Diskriminazio motak



Bilbo. 2015eko uztaila. Komunitatearen babesa bi auzokoren jazarpena jasaten zuten bi ijito-familiarentzat. Kaltetutako pertsonak bi ijito-familiako kideak dira, eta alokairu babestuko etxebizitza-erakin berean bizi dira. Bi familia horiek Bilboko Udal Etxebizitzak erakundearen kargu-hartzeak jaso zituzten, eraikin berean bizi ziren bi pertsonak salaketak aurkeztu ondoren (pertsona berak izan ziren bi kasuetan). Salaketak komunitateko bizikidetza zailtzen zuten eragozpenak eragiteagatik aurkeztu ziren (ateak danbateko batez ixteagatik, eraikineko sarrerako atea irekita uzteagatik edo elementu komunak ez zaintzeagatik, besteak beste). Kasu horretan irain arrazistarik izan ez bazen ere, bi familien ustez ijitoak zirelako agertu zuten jarrera hori auzokoek. Adierazi zuten ez zuten arazorik izan eraikineko beste inorekin, eta eraikineko bizikidetza-arau guztiak errespetatzen zituzten. Hasiera batean, Kalé Dor Kayikó elkartera jo zuten, eta Bilboko Udal Etxebizitzak erakundearen aurkezteko idazki bat idazten lagundu zieten bertan. Idazkian, eraikineko arauak ez betetzeagatik arazorik ez zegoela adierazten zen, eta gainerako auzokoen sinadurak erantsi ziren. Ondoren, 2015eko uztailan, Nevipen elkartera jo zuten diskriminazio-gertaera azaltzera, baina handik gutxira komunitateko giroak hobera egin zuen (auzoko horiekin bereziki), eta ez zuten aurrera egin nahi izan diskriminazio-tratuaren salaketarekin.


Diskriminazioa gertatu den eremuari dagokionez, salatutako egoeren % 91 eremu pribatuan gertatu ziren, eta gainerako % 9, berriz, eremu publikoan.

Diskriminazio-eremua



Eremu publikoan gertatu ziren kasuen % 100 LGTBI pertsonen kolektiboari lotuta zeuden. Kasuetako bat enpleguaren eremuan gertatu da, eta bestea, berriz, kudeaketa pribatuko babespeko etxebizitza batean.

Eremu publikoa



Gasteiz. 2015eko urtarrila. Babespeko etxebizitza baten arduradunek ez dute errespetatu askatasun osoz erabakitako genero-identitatea. 2014. urtearen amaieran, neska transexual bat Gasteizko Aldarte elkartearen bulegoarekin jarri zen harremanetan, bizi zen eta Arabako Foru Aldundiarena zen babespeko etxebizitzaren kudeaketaz arduratutako erakundeko langileek ez ziotelako askatasun osoz aukeratu zuen izenarekin deitzen, nortasun-agirian agertzen zen izenarekin baizik. Aldarte erakundeak eta etxebizitzaren arduradunek hainbat bilera egin ondoren, azken horiek adierazi zuten ez ziotela deituko nahi zuen izenarekin, izena legez aldatu arte. Kontuan hartu behar da 14/2012 Legeak, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoak, honako hau ezartzen duela Zioen Azalpenean: *“Transexualen egoera oso konplexua da eta arreta integrala eskatzen du, erregistroetako aldaketez harago doan arreta: genero-identitatea, nortasunaren eskubideen zati den aldetik, pertsonaren duintasunerako eskubidearekin lotzen da, eta, halaber, nortasunaren garapen askeari buruzko eskubideekin eta osasunerako, integritate psikofisikorako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideekin ere lotzen da”*. Beraz, pertsona batek sentitzen duen generoaren araberrako tratua jasotzeko eta, horren ondorioz, nahi duen eta aukeratu duen izenarekin deitua izateko eskatzen duenean, legez araututa dagoen eta bete behar den eskari baten aurrean gaude, eta erregistro-alderdietara eta betekizun formaletara jotzeak pertsona horren eskubideen arau-hauste nabarmena dakar.

noticias de gipuzkoa • 2015/12/24



“La aprobación de este decreto es un logro que se asemeja a haber subido a la punta del Everest”

SARAI MONTES
Miembro de Berdindu

Sarai Montes, José Luis Madrazo y Ares Piñeiro, durante la rueda de prensa de ayer en Bilbao.

Los transexuales vascos tendrán un ‘carné de identidad sexual’ previo al registro civil

Euskadi es la primera comunidad en la que estas personas podrán solicitar un documento con su nueva condición

✎ A. Garmendia
✎ Borja Guerrero

BILBAO—Euskadi es la primera comunidad autónoma en la que las personas transexuales pueden disponer de una documentación con la que podrán ser tratadas según la identidad de género que elijan durante su proceso de asignación sexual y hasta que se lleve a cabo la rectificación de su sexo en el Registro Civil.

Así lo anunció ayer José Luis Madrazo, director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, junto a Sarai Montes y Ares Piñeiro, miembros de Berdindu, el servicio de información, atención y asesoramiento a gays, lesbianas, bisexuales y transexuales del Gobierno Vasco. Madrazo explicó que el decreto aprobado regulará desde ahora la documentación administrativa de las personas transexuales en Euskadi, puesto que los miembros de este colectivo se enfrentan a “numerosos

obstáculos sociales” durante el desarrollo de sus derechos más fundamentales. Ahora, a través de este decreto, se “obligará a todos los poderes públicos, dentro de la Comunidad Autónoma Vasca, a respetar a la persona en su condición en el sexo que él o ella quiera tener”, explicó el director.

La ley vasca es posterior a la que reguló, a nivel estatal en 2007, el cambio de la asignación de sexo en el Registro Civil y, tal y como agregó el director, “la complejidad de la situación de estas personas requiere una atención integral que va más allá del ámbito meramente registral”. De hecho, el Parlamento Vasco sacó adelante una ley en 2012 de no discriminación por motivos de género y de reconocimiento de los derechos de este colectivo. “La transexualidad no es un fenómeno actual, el término se empezó a utilizar en el año 1940 para las personas que sufren una disociación entre el

LAS CLAVES

- **El documento.** Obliga a las administraciones públicas en Euskadi a respetar a la persona en cuanto a su condición sexual deseada.
- **Solicitud.** El proceso se inicia a partir de la solicitud de la persona interesada. Si es menor de edad, podrán solicitarlo sus representantes legales.
- **Inmigrantes.** Podrán utilizar esta documentación en Euskadi hasta que se produzca el cambio registral en su país de origen.

LA REGULACIÓN

UN NUEVO PASO TRAS LA LEY DE 2012
Desarrolla la ley aprobada en 2012 de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales.

sexo en el que nacen y el sexo al que sienten pertenecer”, recordó Madrazo.

Sarai Montes explicó que hasta ahora, con base en la ley del 2007, “las personas transexuales debían esperar un mínimo de dos años desde el momento en que empezaban el tratamiento hormonal para pedir una documentación acorde a su sexo; dos años en los que te encontrabas que para cualquier cosa para la que necesitaras el DNI tenías que estar dando explicaciones, y muchas veces esas explicaciones no valían para nada”. El trabajo del colectivo, desde que comenzó a demandar una documentación transitoria que se pueda utilizar hasta el cambio registral, ha sido, en palabras de Montes, “una labor titánica” y un logro que se asemeja “a haber subido a la punta del Everest”.


Ares Piñeiro, por su parte, expresó durante la rueda de prensa su deseo de que esta nueva medida contribu-

ya a acabar con la “discriminación” que sufre este colectivo, ya que “se ha dado un paso muy grande” aprobando este decreto. El procedimiento para conseguir esta tarjeta identificativa lo deberá solicitar la persona interesada –por sí misma o debidamente representada–, mientras que si quien lo solicita es menor de edad, podrán demandarla sus representantes legales. Asimismo, las personas inmigrantes también podrán utilizar esta documentación en Euskadi hasta producirse el cambio registral en su país de origen.

Según se desglosa del decreto aprobado por el Gobierno Vasco, las personas que posean esta tarjeta identificativa tendrán derecho, tanto en el ámbito sanitario como en el educativo, “a ser tratadas conforme a su identidad de género libremente determinada”, y a ser identificadas “por el nombre correspondiente a su identidad de género” que hayan escogido. ●

Eremu pribatuan gertatu diren diskriminazio-kasuei dagokienez:

Eremu pribatua



Kasuen % 33 etxebizitza lortzeko garaian gertatu dira, jabeek edo higiezinaren agentziek atzerritarrei etxebizitzak alokatu nahi ez zitelako edota arrazoi arrazista horiek berek eragindako bizikidetzagatazkak eragin zituztelako.

Kasuen % 5 hezkuntzaren eremuan gertatu ziren, arautu gabeko prestakuntzako ikastaro batean zehazki; pertsona batek gainerako ikasleen jazarpen arrazista jasan zuen, eta irakasleen eta ikastetxeko zuzendaritzaren jarrera pasiboa izan zen. Kasuen beste % 5 komunikazioaren eta interneten eremuan gertatu ziren, komunikabide batean argitaratu zen eta musulmanen aurkako gorrotora bultzatzen zuen artikulu bati lotuta.

Kasuen % 14 enpleguaren eremuan gertatu ziren: kaltetutakoen artean, alde batetik LGTBI kolektiboko pertsonak aipatu behar dira, sexu-orientazioagatik eta/edo genero-identitateagatik lankideekin gatazkak izan zituztenak, eta, bestetik, enplegu bila zebiltzan latinoamerikarrak (iruzur egin zieten, atzerritarrek lan-eremuan duten kalteberatasun berezia baliatuta).

Arreta jaso zuten kasuen % 10, bestalde, herritarren segurtasunaren eremuan gertatu ziren; eta, azkenik, Eraberean sarea osatzen duten antenek helarazitako kasuen % 33 "beste eremu batzuetan" gertatu ziren, eta beste grafiko batean aztertuko ditugu.

Gasteiz. 2015eko urtarrila. Segurtasun pribatuko jagoleen eraso arrazista merkataritzagune batean. 2014ko abenduaren 31n, 19:50ean, C Gasteizko Boulevard merkataritzagunera joan zen jostailu bat itzultzeraz, 6 urteko alabarekin. Saltzaileak esan zion ezin ziola itzuli, 20:00etan ixten baitzuten. Ck ez zuen amore eman ordutegiaren barruan zegoelako, eta saltzaileak segurtasun-zerbitzura deitu zuen. Segurtasun pribatuko bi jagole agertu ziren, eta Crekin eztabaidan hasi ondoren, eskuburdinak jarri zizkioten, jo egin zuten eta irain arrazistak esan zizkioten; eta, hori guztia, alaba adingabearen aurrean. Ondoren, bulego itxi batera eraman zuten, eta erasoarekin jarraitu zuten, bulegoan zegoen grabazio-kameraren atzean. Geroago, Ertzaintzako agente batzuk iritsi ziren; eskuburdinak kendu zizkioten, eta alaba aitaren ondora eraman zuten, baina ez zioten behar zuen osasun-laguntza eman. Azkenean, Ck anbulantzia bat eskatu ahal izan zuen, eta Txagorritxu Ospitalera eraman zuten. Medikuen txostena jaso eta, gau hartan bertan, salaketa aurkeztu zuen. Segurtasun-jagoleek ere salaketa aurkeztu zuten Cren aurka. CEAR-EUSKADI erakundeak haren abokatu-laguntza hartu zuen bere gain Eraberean sarearen esparruan, Cren kontaketa sendoa zela eta medikuen txostenarekin zein jasandako lesioen argazkiekin bat zetorrela baitzirudien. Aurrekoa gorabehera, 2015eko maiatzean Instrukzio Epaitegiak jardunen behin-behineko artxibatzea erabaki zuen, ez-zilegi penalaren zantzuak nahikoak ez zirela adierazita. Arabako Probintzia Auzitegiak artxibatze hori berretsi egin zuen bigarren auzialdian. Gainera, adierazi beharra dago ez zela oinarrizko eginbiderik egin gertakariak eta horien ondoriozko lege-erantzukizuna argitzeko, CEAR-EUSKADI erakundeak eskatu bezala (hala nola auzitegiko medikuak biktimari egindako azterketa eta salatutako segurtasun-jagoleen aitorpena).

noticias de álava • 2015/02/04



Imagen cedida por el denunciante donde se aprecian algunos de sus moratones tras la agresión. Foto: DNA

Una concentración silenciosa exigirá esta tarde en Gasteiz que los ataques xenófobos pasen a la historia. La protesta tiene como trasfondo una agresión con presuntos tintes racistas a un vecino de origen mauritano.

↳ Un reportaje de Carlos Mtz. Orduna | Fotografía José Ramón Gómez

Ya nada será igual para Cheikh

Sucedió el pasado 31 de diciembre, a escasas horas de entrar en el nuevo año. Cheikh Ould Sid Mohamed, un vecino de Gasteiz de origen mauritano que reside en la capital alavesa desde hace más de una década, acudió acompañado por su hija de seis años al centro comercial El Boulevard para cambiar un regalo que había comprado apenas unas horas antes a la pequeña. Llegaron con prisa, ya que la hora de cierre de la tienda de juguetes se aproximaba, pero a priori con el tiempo suficiente para realizar el trueque sin proble-

mas, también con el imprescindible ticket de compra. Eran cerca de las 19.50 horas, cuando todavía faltaban diez minutos para la clausura del negocio, pero Cheikh se encontró con la negativa de uno de sus dependientes. Según denuncia en declaraciones a DNA, "parece que tenían prisa por cerrar", teniendo en cuenta la fecha tal señalada de la que se trataba.

Cheikh exigió su "derecho" a ser atendido al ver que la tienda aún no había echado la persiana, "una falta de respeto" a su entender, y a partir de ahí se inició una discusión que ter-

minó con el cliente reducido por dos guardias de seguridad del centro, golpeado en repetidas ocasiones, encerrado en un cuarto al margen de su hija y posteriormente trasladado en ambulancia y atendido en el servicio de Urgencias del Hospital Santiago por diferentes contusiones.


El informe médico, al que ha tenido acceso este periódico, reflejó "múltiples hematomas lineales en extremidad inferior derecha", "dolor a la movilidad activa y pasiva de la muñeca derecha", una "inflamación con hematoma en cara exterior del

hombro derecho" y otro "hematoma a nivel región escapular derecha", entre otras lesiones. Su pequeña, triste testigo de los hechos, también debió ser asistida en Txagorritxu debido a un cuadro de ansiedad. En su declaración posterior ante la Ertzaintza, Cheikh denunció que uno de los guardias le insultó "con ánimo vejatorio refiriéndose a su país de origen y al hecho de ser extranjero". Extremadamente dolido y con los ojos humedecidos, Cheikh pone voz ante este diario a algunas de las palabras que debió escuchar aquel

día y que también denunció después ante la Ertzaintza: "Vete a tu país, hijo de puta" o "estás chupando nuestra sangre, gastando nuestros dineros" fueron, según su testimonio, algunas de esas expresiones. La víctima tardó varios días en restablecerse completamente de los dolores que los golpes recibidos le produjeron, los más fuertes y persistentes en un ascensor –siempre según su declaración–, lejos de ojos indiscretos y con una porra. El caso se dirime ya en instancias judiciales.

SIGUE EN PÁGINA 7

Eremu pribatua gertatu ziren eta aurreko grafikoan “beste eremu batzuk” kategorian sailkatuta geratu ziren diskriminazio-kasuen % 33 honako kategoria hauei dagozkie:



Kasu horien % 43 bide publikoan gertatu ziren (jasotako hiru kasuetan, beren sexu-orientazioa publikoki adierazi zuten LGTBIak izan ziren kaltetuak), % 14 garraio publikoan (Bilboko metroan gertatutako kasu bat), beste % 14 zerbitzu-sektorean, eta, azkenik, beste kasu batean (guztien % 14tan), itsu batek ONCE erakundearen afiliatu nahi izan zuen, baina nazionalitateagatik diskriminatu zuten.

Bilbo. 2015eko abuztua. Irainak eta eraso Aste Nagusian. 2015eko azaroan, kaltetutako pertsona Aldarte erakundearekin jarri zen harremanetan, hilabete horretarako zitazio judizial bat jaso baitzuen, abuztuan –Bilboko Aste Nagusian– izan ziren gertakari batzuk zirela-eta. Kaltetutako pertsona eta mutil bat elkarri musuka ari ziren Bilboko Udaletxeko zubian, eta bi neskek iraindu egin zituzten, “Marikoiak” deituta. Kaltetutako pertsonak “Bai, eta zer?” erantzun zien, eta nesketako batek berriz ere “Marikoi” deitu eta zaplasteko bat eman zion. Une horretan, neskekin zihoan talde bat agertu zen, eta lurrera bota, ostikadak eta ukabildak eman eta irain gehiago esan zizkieten, Bilboko Udaltzaingoaren bi auto agertu ziren arte. Ondoren, udaltzainek erasotzaileak identifikatu zituzten. Gertakarien biktima ospitalera eraman zuten, eta salaketa aurkeztu zuen. Epaiketan, Aldarteko abokatuaren asistentzia jaso zuen, eta zigor-epai batekin ebatzi zen bi lesio-delituegatik, Zigor Kodearen 22.4 artikulua astungarriarekin: “*sexu, sexu-orientazio edo sexu-identitateari lotutako diskriminazio-arrazoiegatik jardun dela ulertzen baita; izan ere, salatzailera beste mutil batekin musuka aritze hutsagatik, indarkeriaz eta pertsonaren duintasunaren aurka erreakzionatu zen*”.


Bilbo. 2015eko azaroa. Irain eta eraso homofoboak taberna batean. Erasotzailea identifikatzeko zailtasuna. 2015eko abenduan, Bilboko taberna batean eraso bat jasan zuen pertsona bat joan zen Aldarte erakundearen bulegoetara. Kaltetutako pertsona beste mutil batekin aritu zen musuka tabernan. Une jakin batean, ondoan zegoen hirugarren mutil bati lurrera zerbait erori zitzaiola ikusi zuen. Makurtu, eroritako gauza hartu eta hirugarren mutilari kolpetxo bat eman zion zangoan, haren arreta erakartzeko eta erori zitzaiona itzultzeko asmoz. Zangoa ukitu ziotela sentitu zuenean, pertsona horrek buelta eman eta *"Aizu! Ni ez naiz marikoia!"* esan zion kaltetutako pertsonari. Kaltetutakoak *"Homofoboa zara zu, horixe" erantzun zion.* Orduan, hirugarren mutilak ukabilkada bat eman zion begian. Hurrengo egunean, kaltetutako pertsona ospitalera joan zen eta salaketa aurkeztu zuen. Epaitegiak artxibatu egin zuen, egilea ezezaguna zelako. Txosten hau amaitu den egunean, artxibatze-autoaren aurkako errekurtsio bat dago jarrita, eta ebatzi gabe dago oraindik.

Hernani. 2015eko abendua. Nazionalitateagatiko diskriminazioa. ONCE Fundazioak Espainiako nazionalitatea duten itsuei baino ez die enplegua eskaintzen. 2015eko abenduan, Aljeriako nazionalitatea eta Estatu espainolean Erkidegoko erregimenean bizitzeko baimena zuen herritar itsu bat ONCE erakundeak Hernanin duen ordezkartzara joan zen erakundean afiliatzeko betekizunei eta itsu gisa eskubidez zegozkion zerbitzuei buruzko informazioa eskatzera. ONCEren bulegoan, ezin zela afiliatu esan zioten, betekizunetako bat Espainiako nazionalitatea izatea baita. Kaltetutako pertsonak SOS Arrazakeria Gipuzkoa erakundearekin lehen elkarrizketa egin ondoren, interesdunarekiko harremana galdu zen, baina kasua kudeatzen jarraitzea erabaki da. Izan ere, nazionalitateagatiko diskriminazio-kasu garbia da, eta estrategikoa ere izan liteke, ONCE erakundeak irizpidea aldatzeak onura handia ekarriko bailioke kolektibo handi bati. Kasu horretan, nolana ere, ezin da ahaztu ONCE erakundea zuzenbide publikoko korporazio bat dela, Espainiako lurralde osoan administrazio publikoen funtzio delegatuak betetzen dituela, erakundeko laneratze-zerbitzuak afiliatuek baino ez dituztela eskura (kupoiak saltzeko edo ONCEk merkaturatzen dituen beste joko-modalitate batzuetan aritzeko lanpostuak, adibidez), aniztasun funtzionala duten pertsonen langabezia-tasa % 85era iristen dela eta ONCE erakundeak monopolioa duela itsuen laneratzearen arloan zein loterien zozketa publikoen merkaturatzearen arloan. Txosten hau amaitu den egunean, kexa bat dago aurkeztuta Estatu Espainoleko Herriaren Defendatzailean, eta ebatzeko dago oraindik.

Azkenik, urratutako eskubideei dagokienez, gehien urratu den oinarritzko eskubidea osotasun moralerako eskubidea izan da (sareko erakunderen batean arreta jaso duten diskriminazio-kasuen % 39tan). Alderdi hori guztiz bat dator sarearen lanaren xede den arloarekin, osotasun moralerako eskubidea gizaki orok duen duintasunarekin lotuta baitago. Gainera, gure Ordenamendu Juridikoaren printzipio gidari bat da, eta pertsona baten edozein erabilera instrumentalen eta haren aurkako edozein kalteren

ezarpenaren debekua dakar, Konstituzioaren arabera legitimoa den helburu bati erantzuten dionean izan ezik. Haren atzetik, bigarren oinarriko eskubiderik urratuena askatasunerako eskubidea izan da (kasuen % 20tan). Osotasun fisikorako eskubidea kasuen % 11tan urratu da, lanerako eskubidea % 9tan, eta ohorerako, hezkuntzarako, etxebizitzarako eta intimitaterako eskubideak, berriz, % 5etan (bakoitza). Azkenik, osasunerako eskubidea kasuen % 2tan urratu da.

Urratutako eskubideak



Bilbo. 2015eko abendua. Eraso eta irain arrazistak metroan. Inork ez zuen ezer ikusi. 2015eko abenduan, Hk metroa hartu nahi zuen lanpostura joateko. Hilabete hartako jaiegunak zirela-eta, jende asko zegoen nasan. Metroa iritsi zenean, neska-mutil batzuek bultzatu egin zuten sartzekoan, eta Hk ez bultzatzeko eskatu zien. Une horretan, H atzerritarra zela konturatu zen taldea (Marokoko nazionalitatea zuen, zehazki). Bagoiko atea ireki zirenean, H sartu eta eseri egin zen; orduan, taldeak inguratu, agiraka egin eta iraindu egin zuen, eta neskak iletik tiraka hasi zitzaizkion. Hk zirkulutik ateratzea eta metrotik jaistea lortu zuenean, mutiletako batek bultzatu eta lurrera bota zuen. H nasan zegoela, metroko eta segurtasuneko langileak iritsi ziren, eta anbulantzia bat etorri zen. Ondoren, salaketa aurkeztu zuen. Txosten hau amaitu den egunean, salatutako pertsonak ikertu gisa deklaratzeko zitazioa zuten. Eraberean sareak hartu du bere gain Hren abokatu-laguntza, Aldarte elkartearen bitartez.

Diskriminazioaren Biktimei Laguntzeko Protokoloa

Eraberean sarearen jarduerari buruzko kapituluarekin amaitzeko, 2015. urtean Diskriminazioaren Biktimei Laguntzeko Protokoloa eguneratu eta hobetu da, sarea osatzen duten erakundeei koordinazioa erraztuko dien eta diskriminazio-tratu, diskriminazio-gertakari edo gorroto-delitu baten biktimak izan diren pertsona edo taldeei laguntzeko jardun-ereduak eskainiko dituen tresna bat eskaintzeko, batez ere diskriminazioaren arrazoiak jatorria, etnia, nazionalitatea eta sexu eta generoko orientazioa eta identitatea direnean.

Aurrekoa kontuan hartuta, Protokoloak zati generiko bat dauka (justifikazioari, helburuei, antolamendu-egiturari, lege-esparruari, jarduteko oinarrizko printzipioei, jokabidearen definizioari eta jardun-eremuari buruzko kapitulez osatua), eta sarearen lan-eremua osatzen duten arrazoietako baten ondoriozko diskriminazio-tratu bat jasan duten pertsona edo taldeentzako zuzeneko arretara bideratutako beste zati bat. Bigarren zati espezifikoa hori arreta, laguntza eta aholkularitzako prozesua zehazten zuen kapitulu batez (espedientearen hasiera, ikerketa eta kontrastea, kasuaren balioespena, jarduteko eta garatzeko estrategiaren zehaztapena, jarraipena eta amaiera, eta sistemaren etengabeko hobekuntza) eta diskriminazio-kasu baten aurrean jarduteko jarraibide zehatzak biltzen dituen eranskin batez (segurtasun-kidego pribatu eta publikoak, zerbitzuak, partikularrak, komunikabideak, lan-eremua eta eskuin-muturra) osatuta dago.

Eta, aurreko guztia, Eraberean sarea osatzen duen edozein erakundek proposatzen duen jardun orok kaltetutako pertsona edo taldearen borondate eta baimenpean egon beharko duen premisan oinarrituta.

4 . kapitulua

**esperientzia positiboak,
tratu-berdintasunaren
aldekoak eta
diskriminazioaren aurkakoak**

4. kapitulua. esperientzia positiboak, tratu-berdintasunaren aldekoak eta diskriminazioaren aurkakoak

Kapitulu honen edukian sartu aurretik, garrantzitsua iruditu zaigu Estatuan zein Euskal Autonomia Erkidegoan Eraberean sarearen barruan eta kanpoan pertsona guztien berdintasunerako eta duintasunerako eskubideen aldeko borrokan hainbeste erakundek egiten duten eta kapituluan jasota ez dagoen lana errekonozitzea. Edonola ere, arloko ekimen guztiak zehatz-mehatz jasotzea ez da txosten honen helburua.

Kapitulu honen helburua honako hau da: tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako esperientzia positiboek ekarpena egin dezaketek ekimenak, proiektuak eta/edo zerbitzuak azpimarratzea, eta sarearen epe ertain eta luzerako lanerako jarraibide edo erreferentzia posibleak adieraztea.

Aurrekoa kontuan hartuta, "jardunbide egokien" 8 adibide hautatu dira, honako irizpide hauen arabera:

- **Hainbat** jardun-eremuri lotuta egotea, arloan lan egiteko dauden modu desberdinak ikusarazteko: prebentzioa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta diskriminazioaren biktimentzako zuzeneko arreta.
- Hainbat agentek sustatuta egotea: erakundeak, gizarte-erakundeak edo plataforma mistoak.
- Hainbat lurralde-eremutan egitea: toki-eremua, Autonomia Erkidegoa, Estatu eta nazioartea.
- Lana sarean egitea edo lankidetzan oinarritutako lan egiteko modu bat sustatzea.
- Eraberean sarea iristen ez den beste diskriminazio-eremu batzuetan edo bestelako eremuetan lan egitea.

- Egiten den lana giza **eskubideen (eta, zehazki, berdintasun, duintasun eta diskriminaziorik ezeraiko eskubidearen) defentsan oinarrituta egotea.**

Azpimarratu beharra dago jardunbide horietako batzuk egunez egun lantzen dituzten pertsonen berek idatzi dituztela.

- **FRIDA proiektua, ikasgeletan arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren beste adierazpen batzuk detektatzeko eta haiei aurrea hartzeko.**

Ikasgeletan arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren beste adierazpen batzuk detektatzeko eta haiei aurrea hartzeko FRIDA proiektua Immigrazio eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusiak zuzentzen du, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiaren (OBERAXE) bitartez eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren Hezkuntza Berrikuntzarako eta Ikerketarako Zentro Nazionalarekin (CNIIE) lankidetzan, eta Europar Batasunaren finantzaketa jaso du, Enplegu eta Gizarte Segurantzarako Progress Erkidegoko programaren barruan.

Proiektua garatzeko, hezkuntza, psikopedagogia, tratu-berdintasun eta diskriminaziorik ezaren arloko lau adituren, beste erakunde batzuen (Barne Ministerioa eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa, adibidez) eta gobernu kanpoko erakunde askoren laguntza jaso da.

Proiektuaren arabera, hezkuntza-eremuan hasten gara pertsona desberdinekin bizitzen. Horregatik, eskolek gune inklusiboak izan behar dute, eta pertsonen aniztasuna ez da bizikidetzarako oztopotzat hartu behar eskoletan, aberasteko aukeratzat baizik.

Aurrekoa kontuan hartuta, irakasleak eta hezkuntza-komunitatea ikasgeletan arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren beste adierazpen batzuk prebenitu eta detektatzearan inguruan sentsibilizatzen eta horretarako prestakuntza hobetzen laguntzea eta migratzaileen eta gutxiengoaren integrazioaren irudi positiboa sendotzea du helburu proiektuak.

FRIDA proiektua 17 autonomia-erkidegoetako eta 2 hiri autonomoetako hezkuntza-sailetako eta lurralde-ordezkaritzetako prestakuntza eta bizikidetzaren arloko ehun eta hirurogeita hamar arduradun baino gehiagorengana iritsi da. Horiek guztiek 2015eko maiatzaren 11n Madrilen egin ziren koordinazio-bileretan eta 2015eko ekainaren 10 eta 11n, eta irailaren 23 eta 24an Madrilen eta Sevillan –hurrenez hurren– egin ziren bi sentsibilizazio-mintegietan parte hartu zuten.

Azken emaitza “Ikasgeletan arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren beste adierazpen batzuk detektatzen eta hari aurrea hartzen laguntzeko eskuliburu” izan da. Eskuliburu horren sei kapituluetan, honako alderdi hauek azaltzen dira: zergatik dauden arrazakeria, xenofobia eta tolerantziarik ezaren beste adierazpen batzuk gure gizartean eta, beraz, gure eskoletan; zein den egoeraren diagnostikoa Estatu espainoleko migratzaileei eta beste gutxiengo batzuei dagokienez, eta zein den erreferentziazko arau-esparrua; zer estrategia dauden eskuragarri eskolan aniztasuna kudeatzeko, bizikidetzara hobetzeko

eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzeko; zein diren eskola-ingurunean gertaera arrazistak eta xenofoboak, tolerantziarik ezaren beste mota batzuk edota diskriminazio-jazarpenera gertatzen ari direla edo gerta daitezkeela detektatzeko seinaleak; zein diren gertaera horien ondorioak; eta nola jokatu behar den gertaera horien kasuan.

Eskuliburuak, halaber, "Eranskinak" izenburuko kapitulu bat dauka, eta termino eta kontzeptuen glosategi bat, Estatuko eta Europar Batasuneko araudien bilduma bat, eta eskolan diskriminazio-gertaeraren bat gertatu den ebaluatzeko galde-sortak eta elkarrizketak biltzen dira bertan. Gainera, azken eranskinean, jazarpen-egoera edo diskriminazio-gertaera batean inplikaturako ikasleekin elkarrizketak egiteko gidoi bat dago.

Horrez gain, eskuliburuan bildutako funtsezko ideiak jasotzen dituen triptiko bat egin da formatu elektronikoa eta paperean, eta gaztelaniaz, katalanez, galegoz, euskaraz eta ingelesez aurkeztu da, banaketa zabala errazteko.

Honako estekan kontsulta daiteke eskuliburua:

http://explotacion.mtin.gob.es/oberaxe/inicio_descargaFichero?bibliotecaDatold=4070

- **Fiskaltzan Gorroto eta Diskriminazio Delitueterako Zerbitzu Espezializatuak sortzea. Polizia-kidegoen protokoloak.**

Fiskaltzan Gorroto eta Diskriminazio Delitueterako Zerbitzu Espezializatuak sortzea eta abian jartzea oso lotuta daude Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Lege Integralaren Proiektuarekin (2011). Legearen proiektu hori Parlamentuan izapidetzeko prozesua burutu ez bada ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Fiskaltza Delegatu bat izendatzea aurreikusi zuen legeak arlo horretarako.

Aurrekoaren ildotik, Fiskaltzak modernizazio-prozesu bati ekin zion, eta bertan murgilduta dago oraindik ere. Prozesu horren ildo nagusietako bat prozesu kriminal guztien ikerketa eta pertsekuzioa gero eta era eraginkorragoan egitea zen, eta da oraindik ere. Horretarako, tratamendu espezifiko eskaintzen zen ikerketaren eremuan zein epaitzearen eremuan berezitasunak dituztelako beharrezkoa zuten arloetan. Eraginkortasun hori frogatuta geratu da, bestalde, beste eremu batzuetan (hala nola ustelkeriari edo emakumearen aurkako indarkeriari lotutako delituetan).

Fiskaltzaren jardun espezifiko eta espezializatu, gainera, diskriminazioaren aurkako borrokaren eremuan diharduten erakunde eta elkarte askoren aldarrikapena izan zen.

Hortaz, Tratu Berdintasunaren aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Lege Integralaren Proiektua erabat izapidetu ez bazen ere, Fiskaltzak Berdintasunerako eta Diskriminazioaren aurkako Tutoretza Penalaren Ordezkaritza jarri zuen abian, Estatuko fiskal nagusiaren 2011ko urriaren 10eko Dekretuaren bidez. Dekretu horretan, diskriminazioaren eta biktimen babesgabetasunaren arazoaren aurrean erakundeek erantzun bat emateko beharra aipatzen zen bereziki.

Dekretu horren bidez, gutxienez fiskaltza bat izendatu ahal izan zen probintzia bakoitzean, Fiskaltzak arlo horretan eta zegokion lurraldean –eta, aldi berean, 2013ko martxoan behin betiko eratu zen sare nazionalen– egin beharreko jarduna koordinatzeko aginduarekin.

Azpimarratu beharra dago Fiskaltzaren barruan Estatu osoan beharrezkoa den koordinazioa, alde batetik Fiskaltzaren jardunak behar duen batasuna errazten baitu, eta, bestetik, beste erakunde publiko eta/edo pribatu batzuekiko lankidetzeta eta komunikazioa (biktimen eskubideak defendatzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeekin, adibidez).

Eta, hori guztia, probintzietako fiskaltza batzuk arlo horretan lanean arituak zirela ahaztu gabe: 2011. urtean, Sevillako Fiskaltzan Atal bat sortu zen helburu horrekin, Madrilgo eta Bartzelonako fiskaltzetan bezala. Azken fiskaltza hori aitzindaria izan zen arlo horretan; 2009. urtean, Gorroto eta Diskriminazio Delituen Zerbitzua sortu zuen, eta esperientzia hori izan zen eredu nazionalaren oinarria.

Gorroto- eta diskriminazio-delituak ikertzeko poliziaren protokoloak, bestalde, beharrezko tresnak dira biktimentzako arreta eta babesa bermatzeko eta ondorengo prozesu judiziala garatzeko, polizia-atestatua funtsezkoa baita gorroto-delitu bat identifikatzeko. Edonola ere, atestatu horretan, ikertutako gertakarien deskribapena, jasotako aitorten eta txosten guztiak eta delitu-jokabidearen diskriminazio-arrazoia egiaztatzea ahalbidetuko duten inguruabar guztiak bildu beharko dira zehatz-mehatz.

Ildo horretan, Kataluniako Mossos d'Esquadra izeneko kidegoa izan zen gorroto- eta diskriminazio-delituak ikertzeko protokolo espezifiko bat ezarri zuen lehena Estatu espainolean. Protokolo hori, 2010eko martxoaren 10ekoa, *“Gorrotoak edo diskriminazioak eragindako delituetarako prozedura”* izan zen, eta 2008. urtean du jatorria, *“Esku-hartze penala biktimaren orientazio afektibo-sexualak eta genero-identitateak eragindako delituetan”* izenburuko lehen protokoloa onartu zenean, alegia.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak ere badu Instrukzio bat, 2012. urtekoa eta *Ertzaintzak gorroto-delituen aurrean jarduteko prozedurari* buruzkoa.

Udaltzaingoan eremuan, zenbait herrik polizia-protokolo batzuk garatu dituzte ildo horretan (Fuenlabradako Udaltzaingoa, adibidez).

Azkenik, 2014. urtean, Barne Ministerioak 16/2014 Instrukzioa onartu zuen. Instrukzio horrek Polizia Nazionalari zein Guardia Zibilari zuzenduta dagoen *Segurtasun Indar eta Kidegoek gorroto-delituen eta diskriminazioari buruzko lege-arauak urratzen dituzten jokabideen aurrean jarduteko protokoloa* garatzen du.

Iturria: *“Manual práctico para la investigación y enjuiciamiento de delitos de odio y discriminación”*, Miguel Ángel Aguilar García zuzendua eta Kataluniako Generalitatearen Azterlan Juridikoen eta Prestakuntza Espezializatuaren Zentroak argitaratua.

http://justicia.gencat.cat/web/.content/home/ambits/formacio_recerca_i_docum/biblioteca_i_publicacions/publicacions/manual_investigacion_delitos_odio.pdf

- **Eskubideen Arretarako Bulegoa (OAD). Bartzelonako Udalaren Eskubide Zibilen aldeko eta Diskriminazioaren aurkako Agentzia.**

Eskubideen Arretarako Bulegoa (antzinako Diskriminazioaren aurkako Bulegoa) Europan aitzindaria den udal-zerbitzu bat da, eta pertsonen eskubideen hedapen eta defentsara bideratuta dago.

Zerbitzuak giza eskubideak sustatu, herritarren berdintasuna bermatu eta diskriminazio mota ooren aurka jarduten du.

1998ko abenduan jaio zen, eta arreta berezia eskaintzen die genero, sexu-orientazio, sexu-identitate, kultura, osasun fisiko eta mental, adin eta egoera ekonomikoagatik kalteberak diren kolektiboak.

Bartzelona giza eskubideekin konprometituta dagoen hiria da. Bulegoa herritarren eskubideak defendatzeko tresna segurua da.

Bulegoaren funtzioak:

- Diskriminazio- edo desberdintasun-tratuagatiko salaketak jaso eta ebatzea.
- Giza eskubideak hedatzea eta diskriminazio-jokabideei sentsibilizazio eta prestakuntzaren bidez aurrea hartzea.
- Hiriko giza eskubideak behatzea.

2015. urtean, 492 pertsonari eskaini zaie arreta eskubide-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan. Horrez gain, 187 pertsonari eman zaie informazioa eta aholkularitza, eta eskubide-urraketei lotutako 305 egoera aztertu dira. Halaber, 613 pertsona sentsibilizatu eta prestatu dira giza eskubideen eta diskriminaziorik ezaren arloan.

Bulegoak bitartekariaren funtzioa betetzen du eskubideen urraketei lotutako kexetan, eta aholkularitza juridiko eta psikologikoa eskaintzen du diskriminazioagatiko salaketak izapidetzeko.

Gure lanak hainbat balio ditu oinarri: talde-lana, zerbitzu publikoarekiko konpromisoa, konfidentzialtasuna, errespetua eta pertsonen ahalduntzea.

Diskriminazio-jarrerak edo diskriminazio-gertakariak salatzen dituzten pertsonetikiko eta eremu berean diharduten erakunde zibikoetikiko zuzeneko harremanak aukera ematen du honako hauek berehala identifikatzeko:

- Urratutako eskubideak.
- Urraketa horiek zein eremutan gertatzen diren.
- Urraketak jasaten dituzten kolektiboak.

Horixe da oinarria pertsonen eskubideen eta hirian gertatzen diren diskriminazioen erreferentziagune eta behatoki gisa jarduteko.

2015. urtean, honako eskubide hauei lotuta jaso dira kexa gehienak:

- Informaziorako eskubidea: % 31
- Duintasunerako eskubidea: % 24
- Lan-eskubideak: % 10
- Etxebizitzarako eskubidea: % 7
- Prestazio sozioekonomikoetarako eskubidea: % 6
- Beste eskubide batzuk: onarpena, familia, osasuna, irisgarritasuna eta abar.

Herritarrek eskubideei buruzko informazioa eskatu dute, edota salaketa jarri dute eskubideen urraketagatik, batez ere Administrazio Publikoaren eremuan eta, eremu horren atzetik, enpresa-eremuan eta partikularren artean.

Diskriminazioak jasan izanagatik kexa gehien jarri dizkiguten kolektiboak honako hauek izan dira:

- Etorkinak: % 31
- Egoera ekonomiko txarrean dauden kolektiboak: % 15
- Jatorriagatik: % 10
- Emakumeak: % 9
- Sexu-orientazio eta genero-identitateagatik: % 7
- Desgaitasun psikiko eta/edo fisikoagatik: % 5
- Beste batzuk: adinekoak, gaixotasun mentala dutenak, presoak eta abar.

Salaketen tratamenduari dagokionez, Eskubideen Arretarako Bulegoak bitartekotzari ematen dio lehenetsuna gatazkak konpontzeko elkarrizketa-bide gisa. Halaber, indarrean dagoen esparru juridikoa aztertu eta salaketa aurkezteko aukera ebaluatzen du.

Bulegoak zigor-zuzenbidearen, familiaren, lanaren, administrazioaren eta atzerritarren arloetan espezializatutako talde juridiko bat du. Eta kasua gorroto- eta diskriminazio-delituen aurkako Fiskaltzari jakinaraz diezaioke.

Giza eskubideen arloko hedapen-lanari eta diskriminazio-jokabideen inguruko prebentzio-lanari dagokienez, Bulegoak eskubide-berdintasunari lotutako guztiaren inguruan informatu, prestatu eta sensibilizatzen du: onartutako eskubideak eta horien bermeak. Eskubideen hedapena eta sustapena, jarreraren aldaketa eta diskriminazio-jokabideen prebentzioa lantzen dira.

Bulegoaren zeregina honako balio hauek sustatzea da:

- Desberdintasuna balio positibotzat hartzea.
- Bizikidetzak baketsua.
- Kolektiboen estigmatizazioa saihestea.

- Kontzientzia kritikoa sustatzea.
- Gizarte-aurreiritziak daudela egiaztatzea.
- Talde espezifiko gisa jasan daitezkeen diskriminazio errealeko egoerak detektatzea.

Gainera, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, hura garatzen duten konbentzioak eta Bartzelonako Hiria-aren berezko eskubideak zaintzeko mekanismoak herritarrengana hurbiltzen ditu.

2015. urtean, 613 herritarrek hartu dute parte gure tailerretan.

Informazio gehiago lortzeko: http://w110.bcn.cat/portal/site/DretsCivils/?lang=es_ES

- **Aniztasunaren Polizia Kudeaketarako Plataforma.**

Aniztasunaren Polizia Kudeaketarako Plataforma 2010. urtearen erdialdean sortu zen gizartearen ordezkarien eta polizia-zerbitzuen arteko topagune gisa, eta zerbitzu horietan jardun-prozedurak hobetzeko eta berdintasunezko polizia-tratu bat bermatzeko aldaketa batzuk bultzatu eta sustatzea zuen helburu.

Azken hamarkadetan, Espainiako biztanleriak bere historia modernoko eraldaketarik garrantzitsuenetako bat jasan du. Lehenago gure inguruko beste herrialde batzuetan gertatu zen bezala, aniztasuna gure gizarte-osaeraren ezaugarririk garrantzitsuenetako bat da gaur egun. Gure herrialdeak hasiera-hasieratik izan duen kultura- eta hizkuntza-aniztasunari beste herrialde eta kontinente batzuetatik iritsi diren, etnia askotakoak diren eta kultura eta erlijio desberdinak dituzten pertsona asko eta asko gaineratu zaizkio. Gizarte-aniztasunaren beste eremu batzuetan, aurrerapen historikoak lortu dira (hala nola LGBTlen edo desgaituen eskubideen onarpena), eta kolektibo desberdin asko eremu publikoan, gizartearen aurrean eta erakunde guztien aurrean agertzen hasi dira, herritarren parte gisa. Aldaketa garrantzitsu hori gorabehera, ez da bizikidetzaz gatazka larri sortu, eta Espainiako gizartearen heldutasuna eta tolerantzia islatzen du horrek. Hala ere, oraindik ere diskriminazio-arazo larriak daude, eta bide luzea egin beharra dago oraindik erakunde publikoek giza eskubideak berdintasunez baliatzeko aukera berma dezaten lortzeko. Hori guztia dela-eta, beharrezkoa da gizarte-zerbitzuetan jakintza handiagoa, sentsibilitate handiagoa, prestakuntza hobea, prozedura berriak, espezializazioa eta baliabideen gehikuntza lortzeko ekintzak egitea, era horretan gizarte-komplexutasun aberatsa ulertzeko, aniztasunari eraginkortasun handiagoarekin erantzuteko eta gure gizarte osatzen duten kolektiboentzako berdintasunezko eta errespetuzko tratua bermatzeko.

Plataforman, honako erakunde hauek hartzen dute parte eskubide osoko kide gisa: Udaltzaingoko Buru eta Zuzendarien Batasun Nazionala (Unijepol); Secretariado Gitano Fundazioa (FSG); Cepaim Fundazioa. Bizikidetzaz eta gizarte-kohesioa (CEPAIM); Accem; Plena inclusión; Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioa (FELGTB); RAIS Fundazioa; Tolerantziarik Ezaren aurkako Mugimendua (Mcl); Acoge Sarea (RA); Polizia Gay eta Lesbianen Elkarte (GAYLESPOL). Amnesty International (AI) eta Open Society Justice Initiative (OSJI) erakundeek behatzaile gisa parte hartzen dute.

Plataformaren helburuak honako hauek dira: segurtasun publikoaren arloko erantzukizuna duten agintariak eta polizia-kidegoak gizarte-aniztasuna kudeatzeko politikak sustatu beharren inguruan sentsibilizatzea; aniztasunaren kudeaketaren arloan poliziaren prestakuntzaren hobekuntza sustatzea; gorroto- edo diskriminazio-delituen estatistika-erregistro espezifikoa lortzea eta erakunde eskudunek arlo horretan polizia-jardunerako protokoloak ezartzea; polizia-zerbitzuak komunitate minoritarioetara hurbiltzeko eta herritarren segurtasunari lotutako politiketan parte hartzeko aukera bultzatzea; komunitate minoritarioetako pertsonentzako polizia-arretaren hobekuntza sustatzea; kaleko identifikazioen arloko polizia-jardunerako irizpideak zehaztea, "profil etnikoari" lotutako prebentzio eta kontrolerako neurriak ezartzeko; polizia-zerbitzuetan eta haien zerbitzu osagarrietan komunitate minoritarioetako pertsonak sartzeko ekintza positiboak sustatzea, eta polizia-zerbitzuek aniztasunaren arloan egiten dituzten jardunbide egokiak eta ekintza positiboak zabaldu eta errekonozitzea.

Gaur egun, honako jarduera hauek egiten ditu Plataformak: segurtasun publikoaren arloko agintari eskudunekin eta polizia-zerbitzuen arduradunekin hitz egitea eta haiek sentsibilizatzea, gizarte-aniztasunaren polizia-kudeaketa kontuan hartu eta txertatuko duten politika publikoak eta neurriak bultzatzeko; urtean behin Aniztasunaren Polizia Kudeaketari buruzko Mintegia antolatzea, polizia-zerbitzuetako arduradun eta profesionalen, beste zerbitzu publiko batzuen eta gobernuz kanpoko erakundeen parte-hartzearekin; urtean behin aniztasunaren polizia-kudeaketa egokia erakutsi duten polizia-zerbitzuentzako "Daniel Wagman" sariak antolatzea; hainbat polizia-zerbitzutan Polizia Identifikazio Eraginkorrerako Programa (PIPE) garatzea; polizia-zerbitzuei laguntzeko materialak eta baliabideak lantzea, hala nola Aniztasunaren Polizia Kudeaketarako Gida; polizia-kidegoen prestakuntza-curriculumetan askotariko gizartearen kudeaketari lotutako edukiak txertatzeko aukera sustatzea.

Aniztasunaren Polizia Kudeaketarako Plataformari buruzko informazioa zabalteko: <http://www.gestionpolicialdiversidad.org/> <https://www.facebook.com/gestionpolicialdiversidad/?fref=ts>

- **Hatento, etxerik gabeko pertsonen aurkako Gorroto Delituen Behatokia.**

Hatento Behatokiak etxerik gabeko pertsonari laguntzen dieten eta giza eskubideak defendatzen dituzten hainbat erakunderen indarrak, jakintza eta baliabideak batu nahi ditu, etxerik gabeko pertsonen aurkako gorroto-delituei buruzko jakintza fidagarria sortzeko eta delitu horiei aurre egiteko. Behatokia RAIS Fundazioak koordinatzen du, eta ASSÍS Centre d'Accollida erakundeak, Bokatas Elkartek, RAIS Euskadi Elkartek, UNIJEPOLek eta Zubietxe Elkartek osatzen dute.

Jarduteko, beharrezkoa da jakitea, eta horixe izan da, funtsean, planteatu dugun helburua. Fenomeno horri buruzko ezjakintasun handi eta sistematizatu bat dugu aurrean, etxerik gabeko pertsonari laguntzeko erakundeek haren norainokoaren inguruan genuen intuizioa gainditzen duena. Espainian etxebizitzarik ez duten pertsonen aurkako gorroto-delituen prebalentzia ezezaguna zen, eta ez genuen etxerik gabeko pertsonen aurkako delituen norainokoa eta eragina aztertu zuen ezein ikerketa eta datu-iturri fidagarririk.

Hatento Behatokiaren indar nagusia, nolahi ere, parte hartzen duten erakundeek eta beste agente batzuen agendan aporofobiagatiko gorroto-delituen fenomenoari era sistematizatuan erantzuteko beharra txertatzen datza.

Etterik gabeko pertsonen aurkako gorroto-delituen norainokoari eta haien espezifikotasunaren azpian dauden mekanismoei buruzko jakintza espezifikoa, zorrotza eta fidagarria sortzea Hatento Behatokiaren lehentasunetako bat izan da. Ezin dugu ezein fenomenoren aurrean erantzun integralik prestatu, fenomeno horri buruzko gutxieneko jakintza bat ez badugu. Ildo horretan, guretzat garrantzitsua da sortutako sareak behatoki, zaintza eta monitorizazioko ikuspegi bat edukitzea, eta horrela sortu zen gai horretan erreferentzia nagusi bihurtu den Hatento Behatokia. Sortu ahal izan dugun produkturik garrantzitsuen aurretik ez genuen jakintza-oinarri bat eman dugun ikerketa izan da. Ez dira pertzepzioak, benetako gertakariak eta bizitzak baizik. Eta gertakariak erakusten digutenez, elkarriketa egin duten pertsonen % 47,1ek adierazi dute aporofobiari lotutako gutxienez gorabehera edo delitu bat jasan dutela etxebizitzarik gabe bizi izan direnaldian. Emaizta hori eta beste batzuk Behatokiaren webgunean eskuragarri dauden ikerketa-txostenetan kontsulta daitezke: <http://hatento.org/>

Bestalde, Hatento Behatokiak garrantzi handia eman dio arazoa ikusarazteari. Horretarako, sentsibilizazio-kanpaina bat jarri du abian, eta, ildo horretan, komunikabideetan agertzeko ahalegin handia egin da, gaiari buruzko hiru bideo banatu dira (herritarrei, oro har, eta etterik gabeko pertsoneri eta erakunde espezializatuerei zuzenduak) eta webgune bat jarri da abian. Komunikazio-lan handi horri esker, arazoa inplikaturako beste agente batzuetara hurbildu ahal izan da, eta kasu gehienetan oso isolatuta bizi diren etterik gabeko pertsonen sektorearen mugak gainditu dira.

Aporofobiari lotutako gorroto-delituak agenda politikoan gorroto-delituen beste arrazoi batzuen maila berean txertatzeko asmo sendoa beste mugarri garrantzitsua izan da gure ekintzaren barruan. Etxebizitzarik ez duten pertsonen gorroto-delituen aurrean duten kalteberatasun berezia ikusaraztea eta babes-premia bereziak aldarrikatzea funtsezkoa izan da.

Funtsezkoa da ez ahaztea etxebizitzarako eskubidea zuzenean lotuta dagoela pertsonen bizi-kalitate, segurtasun eta osasunarekin, eta, beraz, oinarrizko gainerako eskubideekin elkarrengaitan duela. Gizarte demokratiko batek ezin du herritarren zati bat bere mugetatik kanpo abandonatuta utzi.

- **Together Proiektua (ELKARREKIN), gizarte zibila eta ordena-indarrak gorroto-delituak ikusarazteko ahalduntzea.**

Europar Batasunean arrazakerian eta xenofobian oinarritutako gorroto-delituei aurre egiteko ahaleginak gorabehera Europako egoerak hobera egiten ez zuela erakusten zuten adierazleak zeudela egiaztatu ondoren sortu zen Together Proiektua.

Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziaren (FRA) arabera, gorroto-delituen salaketarik eza arazo esanguratsua da oraindik Europa osoan. Askotan, biktimek ez dute gorroto-delitu gisa identifikatzen jasan duten krimena, edota ez dute salatzen beldurragatik edo agintariekiko mesfidantzagatik. Era berean, askotan ordena-endarrek, gobernuz kanpoko erakundeek eta biktimei laguntzeko taldeek ez dute jakintza espezifikorik delitu mota hori behar bezala identifikatu eta salatzeke. Horren ondorioz, gorroto-delitu asko salatu gabe, epaitu gabe, eta, beraz, ikusezin geratzen dira.

Horren aurrean, duela bi urte arlo horretan lan egiten hasi ziren egoitza Europar Batasuneko lau herrialdetan duten honako erakunde hauek Together Proiektuaren barruan, proiektuko titularkide gisa: SOS Arrazakeria Gipuzkoa eta SOS Racisme Catalunya Estatu espainolean, KISA Zipren, Organisation for Aid to Refugees – OPU Txekiar Errepublikan, eta Lunaria, CGIL Lombardia eta Erromako Unibertsitatea Italian.

Proiektuaren titulartasunean zuzenean inplikaturako erakundeez gain, honako erakunde hauek aritu dira bazkide laguntzaile gisa: Udaltzaingoko Buru eta Zuzendarien Batasun Nazionala – UNIJEPO, eta Kataluniako Udaltzaingoko Buru eta Kargudunen Elkartea – ACCPOLC, biak Estatu espainolean.

Azkenik, honako erakunde hauek babestu dute esplizituki Proiektua: Kataluniako Fiskaltza Nagusiaren gorroto- eta diskriminazio-delitueterako zerbitzu berezia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza, Integrazioarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua (Biltzen), Kataluniako Generalitatearen Migrazio Zuzendaritza Nagusia eta Milango Udalaren Udaltzaingo Saila.

Proiektuak bi urteko iraupena izan du lehen deialdian, 2014ko abenduaren 1etik 2016ko azaroaren 30era bitarte, eta 428.882,54 euroko aurrekontu-zuzkidura izan du. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen eta Herritartasunaren Programak zati bat finantzatu du.

Proiektuaren funtsezko ildoak prestakuntza, datuak biltzeko tresnen sorkuntza eta haien hedapena dira.

Proiektuaren helburuak honako hauek dira:

- Ordena-endarren eta gizarte zibilaren ahalmenak hobetzea, gorroto-delituak ikusarazteko.
- Ordena-endarrek eta GKEek gorroto-delituen identifikazio eta salaketaren eta biktimekiko elkarreraginaren arloan dituzten ahalmenak sendotzea.
- Gorroto-delituei buruzko datuen bilketa hobetzea, eta, horretarako, ordena-endar eta GKEentzako metodologia eta tresna estandarizatuak sortu eta ezartzea.
- Sareko lana eta ordena-endarren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaren sendotzea, gorroto-delituei buruzko informazioa elkartrukatzeko eta delitu horien jarraipena egiteko.

Helburu horiek honako ekimen hauetan gauzatu dira:

- Gorroto-delituen arloko prestakuntza integraleko programa bat landu da, Europako jardunbide egokietan oinarritua eta ordena-indarrei eta GKEei zuzendua.
- Ordena-indarrei zuzendutako protokolo bat eta GKEek datuak biltzeko tresna bat garatu da, gorroto-delituen salaketa errazteko.
- Gizarte zibilaren eta ordena-indarren artean informazioa elkartrukatzeko mekanismoen ezarpena sustatu da inplikaturako herrialdeetan.
- Gorroto-delituei buruzko lau txosten nazional eta konparazio-txosten bat landu dira, gizarte zibileko erakundeek bildutako datuetan oinarrituta. Horretarako, datuak biltzeko tresna erabili da.
- Gorroto-delituen salaketarik ezari buruzko nazioarteko konferentzia bat antolatu da.
- Proiektuaren balio erantsi gisa, Europako dimentsioa aipa daiteke, ordena-indarretako pertsonen gorroto-delituei buruz behar duten jakintzaren eta Europar Batasuneko estatuek kasuak salatzeko metodologiaren estandarizazioari dagokionez.

Proiektuari eta haren etorkizuneko garapenari buruz gehiago jakiteko: www.togetherproject.eu

- **Berdinu Zerbitzua: Berdinu Eskola eta Eskola Segurua.**

2000ko otsailaren 4an, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak legez besteko proposamen bat onartu zuen. Proposamen horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zitzaion abian jar zezan lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualei (LGTBI) eta haien ingurukoei informazioa, arreta eta aholkularitza eskaintzeko zerbitzu bat, Foru Aldundiekin eta euskal udal nagusiekin lankidetzan. Proposamen horretan, agerian utzi zen sexu-orientazio eta sexu-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako eta kolektibo horren eskubideen aldeko politika publikoak antolatzeko borondate irmoa.

Handik bi urtera, 2002ko azaroaren 4an, Legebiltzarrak bultzatuta eta Gobernu Akordio bidez abian jarrita, errealitate bihurtu zen Berdinu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikia Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzaren bitartez.

noticias de gipuzkoa • 2015/03/09

Gizartea



Dos mujeres se dan un beso cerca del registro civil donde pidieron poder casarse. Foto: Efe

UNO DE CADA CUATRO JÓVENES DICE SER AUTOR DE UN ACTO HOMÓFOBO

- “Las aulas vascas no ofrecen las garantías suficientes sobre la diversidad afectivo sexual”, aseguran desde Gehitu
- “Yo no desvelo mi opción sexual”, reconoce Ane, una adolescente lesbiana

↳ *Nekane Lauzirika*

DONOSTIA- “A mí, ni se me pasa por la cabeza decir mi orientación sexual en el centro escolar; tampoco doy pie a que me lo pregunten. Puede ser que algunos lo intuyan, pero desde luego no les doy la opción”, reconoce Ane, una adolescente lesbiana que vive su sexualidad sin tapujos, pero “con cierta precaución para no ser estigmatizada”. Su inquietud parece más que

justificada, teniendo en cuenta que uno de cada cuatro jóvenes vascos reconoce haber tenido algún comportamiento homóforo hacia algún compañero.

Ane está segura de que si le vieran con su pareja, se meterían con ella. “No creo que el aula sea aún un lugar libre de risitas y burlas para nosotras”, dice abiertamente esta joven. Esta adolescente comparte opinión con Aitor, un chico gay de Donostia, quien alude a un

estudio que sitúa la expectativa de agresión física en un 4%. “Nuestra situación”, dice Aitor, “está más normalizada que la de las chicas lesbianas; ellas lo tienen más difícil en centros escolares y en la sociedad en general, tal vez porque no tienen referentes sociales”, relata el joven, quien asegura no haber sido objeto de insultos, burlas o actitudes homóforas por parte de sus compañeros de instituto. “Seguro que he sido objeto de algún rumor, pero no me he enterado”.

VIVIR LIBREMENTE La orientación sexual y la identidad de género son características de la personalidad humana. Por ello, el derecho a vivir libremente la propia orientación sexual o identidad de género y a expresarlas sin temor son derechos humanos en el más pleno sentido de la palabra.

En esa línea trabaja *Berdingu*,

Servicio Vasco de Atención a Lesbianas, Gais, Bisexuales y Transsexuales (LGBT), adscrito al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales a través de su dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, que ofrece información y atención a estos colectivos así como a su entorno. Entre ellos figura la comunidad educativa y diferentes agentes sociales.

En junio de 2013 se puso en marcha *Berdingu Eskolak* al constatar una creciente demanda de formación y asesoramiento personalizado por parte de los centros educativos de vascos con problemáticas de discriminación de LGBT, menores o transexuales.

En el ámbito escolar, una investigación llevada a cabo en los territorios de Gipuzkoa y Bizkaia por las asociaciones Gehitu y Guztioek Elkarteak, integradas ambas en el Servicio Berdingu, ha recabado

información sobre las actitudes juveniles (13-16 años) referidas a la diversidad sexual. “Esto es realmente importante ya que tan solo a partir de certezas, con datos objetivos, podemos llegar a aprender de la realidad y configurar una política social realmente eficaz”, explica José Luis Madrazo, director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario del Gobierno Vasco, en plena coincidencia con los integrantes de Gehitu y el resto de las entidades que componen Berdingu.

Del estudio *Actitudes ante la diversidad afectivo sexual de las aulas vascas* se desprende que entre el 60% y el 62% del alumnado guipuzcoano y vizcaíno ha sido testigo de actitudes homóforas como burlas, insultos, habladurías y casi la mitad de ellos ha presenciado la exclusión que estas personas sufren.

Sexu- eta genero-aniztasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa eta arreta ematen duen zerbitzu publiko bat da Berdindu Zerbitzua. Zerbitzuaren funtzio nagusiak honako hauek dira:

- Lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualei (eta haien ingurukoei) eta sexu- eta genero-aniztasuneko adingabeen familiei arreta eta aholkularitza eskaintzea aztergai dugun eremuari lotutako gaietan.
- Hezkuntza-komunitateari, agente sozial eta profesionali, komunikabideei eta, oro har, gizarteari informazioa eta arreta eskaintzea, LGBTIfobia desagerrarazteko helburuarekin.
- LGTBI kolektiboaren inguruan berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako politikak diseinatu eta proposatzea.

Arreta jasotzen duten pertsona edo erakundeekin bat datozen hainbat mailatan egituratuta dago Berdindu zerbitzu publikoa:

- **Berdindu Pertsonak / Ibiltari:** Eskatzen duten LGTBlei, haien ingurukoei eta sexu- eta genero-aniztasuneko adingabeen familiei informazioa eta babesa eskaintzeko lanean dihardu. Zerbitzu hori hiru lurraldeetan eskaintzen da, eta *Aldarte* (Bizkaia, Araba), *Gehitu* (Gipuzkoa) eta *Errespetuz* (Ibiltari Zerbitzua) elkarteek kudeatzen dute. Azken elkarte horri dagokionez, adierazi beharra dago transentzako (transexual eta/edo transgeneroentzako) zerbitzu espezifikoa dela eta erabiltzaileari bizi den lekuan laguntzeko aukera ematen duela. "Berdinen arteko arretan" oinarritutako zerbitzua da. Ildo horretan, sexu-identitate bereko transexual batek eskaintzen dio arreta zerbitzuko erabiltzaile orori.
- **Berdindu Eskolak:** Berdindu Eskolak Zerbitzua zein Eskola Segurua Talde Egonkorra (geroago deskribatuko duguna) hezkuntza-eremua lehentasunezko jardun-eremutzat hartu zuten hainbat dokumentutan egiaztatu eta jasotako premiari erantzuteko sortu ziren¹.

¹ 2011-2013ko lan-plana, Eusko Jaurlaritzak sexu-orientazioarengatiko eta genero-identitatearengatiko diskriminazioaren aurka eta berdintasunaren alde abian jarritakoa. EAEko hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana. 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Berdinu Eskolak Zerbitzua *Guztiok* elkarteak kudeatzen du, eta lurralde osoko eskariei erantzuten die. Honako helburu hauek ditu:

- Ikastetxeei aholkularitza, orientazioa eta informazioa eskaintzea, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edo genero-adierazpenagatik diskriminazioa edo jazarpena jasaten duten ikasleen babesa hobetzeko.
- Irakasleak prestatzea eta sexu-, familia- eta genero-aniztasunaren ikuspegia praktikoki txertatzera bideratzea.
- Ikastetxeak sexu-, familia- eta genero-aniztasuna ikusarazi eta lantzeko premiaren inguruan sentsibilizatzea eta premia horren inguruko interesa piztea, bizikidetza hobetzeko eta ikasle guztien garapen pertsonal eta giza garapen askean laguntzeko.

Zerbitzua etengabe koordinatuta dago Berritzeguneekin (Hezkuntza Berritu eta Hobetzeko Laguntza Zerbitzuekin), eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskolei zein Bigarren Hezkuntzako institutuei zuzenduta dago. Orientatzaile, aholkulari, ikastetxeetako zuzendari eta, oro har, irakasleen eskariei erantzuten die. Ikastetxera joan eta bertako premiak ezagutu eta aztertu ondoren, Zerbitzuak 4-6 orduko oinarrizko prestakuntza ematen die irakasleei, haiek sentsibilizatzeko eta sexu-, familia- eta genero-aniztasunaz duten ikuspegia zabaltzeko. Halaber, hainbat material eta baliabide pedagogiko eskaintzen dira, eta bizikidetza-planean era eraginkor eta egonkorrean txertatu beharreko lan-plan bat diseinatzeko aholkularitza ematen zaio ikastetxeari.

Bestalde, 2013ko ekainean "Eskola Segurua Talde Egonkorra: eskolan homofobiari eta transfobiari aurre egitea eta aurre hartzea" jarri zen abian, Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzak eta Berdinuak LGBTI politikak aurkeztu eta kontrastatzeko aukera emango zuen eta euskal erakunde guztien parte-hartzearekin garatuko zen esparru bat sortzeko deitutako lan-bilkura batean. Gaur egun, Talde Egonkorra osatzen dutenak honako hauek dira: Arartekoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren Berdintasun Zuzendaritzak, Gasteizko Udala, BIKE, LGBTB taldeak (Aldarte, Errespetuz, Gehitu, Guztiok, Ehgam, Otxadar, Las Trans eta Sehaska), Hezkuntza Saileko hiru ordezkari, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ordezkari bat eta Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzaren Aniztasun eta Immigrazio Arloko ordezkariak.

Ekimenak Aitor Martxuetaren "Consecuencias del bullying homofóbico retrospectivo y los factores psicosociales en el bienestar psicológico de sujetos LGB" azterlanaren ondorioak izan zituen abiapuntu. Aitor Martxueta UPV-EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da, eta UPV-EHUko ordezkari-lanetan dihardu "Eskola Segurua" proiektuaren Talde Egonkorrean.

Proiektuak 4 fase ditu. Hona hemen fase bakoitzaren deskribapena eta helburuak:

I. fasea. Azterketa eta diagnostikoa (2013/2014 ikasturtea): homofobia eta transfobiaren prebentziarako eta aniztasun afektibo-sexualaren arretarako neurrien inguruko premiak eta arauzkoak ez diren

orientazio afektibo-sexualak dituzten pertsonen ongizate psikologikorako faktoreen inguruko premiak aztertu eta diagnostikatzeko azterketa enpirikoa.

II. fasea. Programaren diseinua (2014/2015 ikasturtea): eskuragarri dauden material didaktikoei eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten kideek aniztasun afektibo-sexualaren aurrean agertzen dituzten jarrerari buruzko azterketa. Programa abian jartzea eta ebaluazioa egitea.

III. fasea. Programaren behin betiko diseinua (2015/2016 ikasturtea): beharrezkoak diren materialak lantzea eta programa ezarri eta ebaluatzea.

IV. fasea. Programaren edizioa: programa editatu eta hedatzea, ahalik eta hezkuntza-komunitate gehienetan ezartzeko; nolana ere, inplikaturik dauden kolektiboen lankidetzara bilatuko da.

Gaur egun, adingabe transexualentzako arretari dagokionez hezkuntza-eremuan kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak jasoko dituen dokumentu bat lantzen ari da Eskola Segurua Talde Egonkorra.

Berinduri buruzko informazioa zabaltzeko:

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-berdhome/es/>

- **Biltzen Integrazioarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren prestakuntza-jarduera tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan.**

2004. urtean, lehen Immigrazioko Euskal Planaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Biltzen zerbitzua sortu zuen, honako helburu hauekin: euskal herritar guztien integrazioa sustatzea, jatorria, etnia, nazionalitatea, hizkuntza eta erlijioa edozein izanik ere, eta kultura-aniztasunaren eta bizikidetzaren kudeaketan aurrera egitea, herritartasun inklusibo baten ikuspegitik.

Helburu horiek lortzeko, zazpi lan-arlo ditu Biltzen zerbitzuak: Prestakuntza; Bizikidetzaren Sustapena Komunitate Eremuan; Informazioa, Dokumentazioa eta Jakintzaren Kudeaketa; Atzerritarren eta Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren arloko Kulturarteko Aholkularitza eta Aholkularitza Juridikoa; Sentsibilizazioa; Elkarleen Parte-hartzea eta Sendotzea; eta Zerbitzu Teknikoak.

Gainera, azken urteotan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren politika publikoetan eta Biltzen zerbitzuaren dinamikan bertan, diskriminazioaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta gorroto-delituen aurkako borroka txertatu da lanaren ardatz gisa.

Zehazki, Prestakuntzaren arloan, prestakuntza-zerbitzuak eskaintzen zaizkie administrazio publikoetako profesionalei zein hirugarren sektoreko erakundeei, eta, horretarako, Biltzen zerbitzuak eskaintzen duen

prestakuntza-katalogo bat dago. Halaber, modulu generikoak eta erakunde eskatzaileen premietara egokitutako modulu espezifikoak diseina daitezke.

Bestalde, prestakuntza-moduluak garatzean, Biltzen zerbitzua bakarrik inplika daiteke, edota beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun dezake (Eraberean sarea osatzen duten erakundeekin, adibidez).

Aurrekoa kontuan hartuta, Biltzen zerbitzuak bakarrik garatzen duen tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako prestakuntzaren barruan, honako ekimen hauek aipa daitezke:

- 2005. urteaz geroztik, aniztasunaren polizia-kudeaketaren arloko prestakuntza ematen die Biltzen zerbitzuak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren (Arkaute) promozioetako ikasleei, helburu bikoitzarekin: ikasleei aniztasunaren kudeaketaren arloko oinarrizko kontzeptu eta tresnak ematea eta ikasleak EAEko kultura-aniztasunera hurbiltzea, ikuspegi integral eta positibo batetik.
- 2015. urtean, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloko materia espezifikoa gaineratu zitzaion aurreko prestakuntzari, eta curriculum-izaera eman zitzaion Ertzaintzaren promozio berri guztientzat. XXIV. promozioaren kasuan, 2015. urtean 6 orduko iraupena izan zuen prestakuntza horrek, eta 126 pertsonak hartu zuten parte.
- Halaber, Biltzen zerbitzuaren prestakuntza-katalogoan, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko modulu espezifiko bat dago, eta honako helburu hauek ditu: alde batetik, arloko esparru juridikoari buruzko ikuspegi orokor bat ematea, eta, bestetik, ikuspegi hori tokiko esku-hartzearen eremuetan aplikatzea, ikasleei gure gizartearen parte diren pertsonen irudi ez-estereotipatua sustatzea ahalbidetuko duten kontzeptu- eta arau-elementuak eskaintzeko.

Prestakuntza-modulu hori Santurtziko (Bizkaia) Udaletxean eman zen 2015ean, eta 4 orduko iraupena izan zuen. 20 pertsonak hartu zuten parte moduluan, eta, horien artean, Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta Adikzioen Prebentziorako Udal Zerbitzuko profesionalak, enplegu-teknikariak, hezitzaileak, Ertzaintzako agenteak eta hirugarren sektoreko hainbat elkartetako pertsonak zeuden.

Bestalde, Biltzen zerbitzuak beste erakunde batzuekin lankidetzan garatzen duen prestakuntza-jardueraren barruan:

- 2015. urtean, Eraberean sarearen esparruan eta Arkauterekin eta SOS Arrazakeria Gipuzkoarekin lankidetzan, Gorroto eta Diskriminazio Delituei buruzko Jardunaldiak egin ziren. Jardunaldi horietan, Bartzelonako Probintzia Fiskaltzaren Gorroto eta Diskriminazio Delitueterako Zerbitzuko koordinatzaile Miguel Angel Aguilar jaunak eta Mossos d'Esquadra kidegoaren eta Bartzelonako Fiskaltzaren arteko koordinazioaren arduradun Albert Oliva jaunak hartu zuten parte, besteak beste.
- 2015. urtean, halaber, diskriminazio-egoerei ekiteko Interseksionalitateari buruzko Jardunaldi bat antolatu zuen Biltzen zerbitzuak, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan.

5 . kapitulua

ondorioak eta erronkak



5. kapitulua. ondorioak eta erronkak

2015. urtea Eraberean sarearen ibilbidearen lehen urtea izan bada ere, sarea osatzen duten erakundeek urte askotako esperientzia dute TBDEaren arloan eta diskriminazio-biktimentzako zuzeneko arretan.

Aurrekoa kontuan hartuta eta 2015ean sarearen esparruan arreta jaso duten kasuei zein diskriminazioaren errealitateari (hurrengo kapituluan landuko dugun errealitateari) buruzko azterketa egin ondoren, honako ondorio hauetara iritsi gara, eta, haiei lotuta, honako erronka hauek ondorioztatu ditugu:

ONDORIOAK

ERRONKAK

DISKRIMINAZIOAREN ERREALITEA:

- I. Hainbat adierazlek (asko herritarrei egindako inkestetan oinarrituta daude) egiaztatu dutenez, diskriminazioa gora egiten ari da urtez urte.
 - II. Diskriminazioaren edo gorroto-delituaren kasuei buruzko estatistika-datu gutxi daude eskuragarri errealitate horren dimensio kuantitatiboa eta kualitatiboa ezagutu ahal izateko.
 - III. Diskriminazio anizkoitza fenomeno ikusezina da oraindik ere, neurri handi batean diskriminazio mota horren inguruko ezjakintasunagatik, baina hainbat diskriminazio-arrazoiri lotuta jasotako salaketak gurutzatzeko adierazle partekatuak erabiltzen dituzten datu-baseak edukitzeko ezintasunagatik ere bai.
- I. Aldi berean, gora egin behar du erakundeen konpromisoak diskriminazioaren aurkako borrokan, eta, horretarako, TBDEaren arloan sentibilizatu eta prestatzeko estrategia integral eta iraunkorrek ezarri behar dira.
 - II. Datuak biltzeko segurtasuneko indar eta kidego publikoen, operadore juridikoen (bereziki fiskalen eta epaileen) eta TBDEaren arloan diharduten gizarte-erakundeen adierazleak erabiltzen dituzten sistemak ezartzea oso baliagarria izango litzateke diskriminazioaren biktimei arreta emateko prozesuetan esku hartze duten agente eta erakundeek bildutako informazioa batu, gurutzatu eta aztertzeko.
 - III. Diskriminazioaren biktimei arreta emateko prozesuetan esku hartzen duten agente eta erakundeak sentibilizatu eta prestatzeko estrategiak egitea eta datuak biltzeko sistemak arestian adierazitako ildoan hobetzea lagungarria izango litzateke diskriminazio anizkoitzaren errealitatea ikusarazteko.

- TBDEaren arloan sentsibilizazio handiagoa lortzen laguntzeko, hainbat komunikabiderekin (titulartasun publikoko komunikabideekin bereziki) estereotipoak eta aurreiritziak (batez ere jatorri, etnia, nazionalitate eta sexu eta generoko orientazio eta identitatean oinarritutakoak) ez proiektatzeko lankidetzak-akordioak lantzen ari gara Eraberean sarean.
- Halaber, ikasgeletan TBDEaren inguruan sentsibilizatzeko proiektu batean laguntzen ari da Eraberean sarean. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politiketako eta Hezkuntzako Sailburuordetzek bultzatu dute.
- Datuak biltzeko sistemei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuekin (hala nola Segurtasun Sailarekin edo Justizia Sailarekin) lankidetzan jarduteko formulak aztertzen ari da Eraberean sarean, Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren gidaritzapean, diskriminazioari buruzko datuen bilketari lotutako adierazle partekatuen adostasunean aurrera egiteko.
- Diskriminazio anizkoitzeko kasuei aurre egiteko, beren jarduera beste diskriminazio-arrazoien inguruan garatzen duten beste agente batzuekiko sareko lanean sakontzen jarraituko du Eraberean sareak.

ONDORIOAK

ERRONKAK

BIKTIMAK:

- IV. Kasu gehienetan, ez da salaketarik aurkezten. Askotan, diskriminazio-tratuen edo gorroto-delituen biktimen ezjakintasunagatik eta sentitzen duten beldur eta mesfidantzagatik gertatzen da hori.
- V. Askotan, diskriminazio-gertakarien eta/edo gorroto-delituen biktimek ez dute sentitzen ordaina jaso dutenik prozesu judizialaren ondoren.
- VI. Zailtasun handia dago prozesu judizialetan gorroto-delituei lotutako delitu motak aplikatzeko.
- IV. Babes- eta laguntza-sistema integralak eta eraginkorrak garatu behar dira diskriminazioaren biktimentzat, prozesu osoan lagun diezaieten.
- V. Justizia konpontzaileko mekanismoak ezartzea lagungarria izan liteke biktimei eragindako kaltearen erreparazioa hobea izateko.
- VI. Segurtasuneko kidego eta indar publikoentzako zein diskriminazio-gertakarien edo diskriminazio-tratuen ondoriozko prozesu judizialetan esku hartzen duten operadore juridikoentzako prestakuntza espezializatuko plan bat garatu behar da.

- Diskriminazio-biktimentzako zuzeneko arretari dagokionez, Eraberean sarea osatzen duten erakundeek erreferentzia-izaera handiagoa eduki behar dute diskriminazio-biktima potentziaiei dagokienez.
- Halaber, laguntza integrala eskaini behar zaie biktimei. Sareak baliabideren bat ez duenean (laguntza psikologikoa, adibidez), baliabide hori duten beste agente, erakunde edo zerbitzu batzuekiko (hala nola Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekiko, eta, ahal bada, izaera publikoa dutenekiko) sareko lanari emango zaio lehentasuna.
- Eraberean sareak lankidetzaren oinarrituta egongo diren eta biktimentzako ordaina bilatuko duten gatazkak konpontzeko mekanismoen erabilera sustatuko du.
- Eraberean sarea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin (Arkaute) lankidetzan jarduteko esparru bat lantzen ari da, Ertzaintzaren promozio berriak TBDEaren arloan prestatzeko, eta prestakuntza hori segurtasuneko beste kidego eta indar publiko batzuetara eta operadore juridikorik espezializatuenetara zabaltzeko helburua du.

ONDORIOAK

ERRONKAK

ARAUDIA:

- VII. Ez dago araudi integralik TBDEaren arloan.
- VII. TBDEaren arloko araudi integral batek diskriminazioaren aurkako araudiaren aplikazioa, sentsibilizazio- eta prestakuntza-estrategia iraunkorren ezarpena, diskriminazioaren biktimentzako babes- eta laguntza-sistemen zehaztapena eta datuak biltzeko sistemen hobekuntza erraztuko luke.
- Eraberean sareak EAE osorako TBDEaren arloko arau-esparru propio baten premiari buruzko gogoeta sustatuko du bere jardun-eremuetan.

6 . kapitulua eranskinak



Sakeleko egutegia:

Martxoak 21 - 21 de marzo Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Eguna Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial
Apirilak 8 - 8 de abril Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna Día Internacional del Pueblo Sitano
Maiatzak 17 - 17 de mayo Homofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna Día Internacional contra la Homofobia y la Transfobia
Ekainak 28 - 28 de junio LGBTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna Día Internacional del Orgullo LGTB
Uztailak 22 - 22 de julio Gorrote Delituen Biktimen Europako Eguna Día Europeo de las Víctimas de Delitos de Odio
Azaroak 16 - 16 de noviembre Ijito Herriaren Eguna Euskadin Día del Pueblo Gitano en Euskadi
Abenduak 18 - 18 de diciembre Migratzaileen Nazioarteko Eguna Día Internacional de las Personas Migrantes



eraberean

TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA
RED PARA A IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN

www.eraberean.net

6	URTARRILA-ENERO	OTSAILA-FEBRERO
1	4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29
0	MARTXOA-MARZO	APIRILA-ABRIL
2	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
0	MAIATZA-MAYO	EKAINA-JUNIO
0	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
0	UZTAILA-JULIO	ABUZTUA-AGOSTO
0	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
0	IRAILA-SEPTIEMBRE	URRIA-OCTUBRE
0	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
0	AZAROA-NOVIEMBRE	ABENDUA-DICIEMBRE
0	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Liburuxka generikoa:

Zer da eraberean?

eraberean Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako sare bat da, eta helburu dauka arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragin-diko diskriminazioari aurre egitea. Sali horrek eta inmigratzaileen, ijito herriaren eta LGBT kolektiboaren alde lan egiten duten zenbait gizarte erakundek osatzen dute sarea, eta bere egitekoa da tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea Euskadiko gizarte zibilaren eta politika publikoetan.

Zergatik?

Badakigulako gure ingurunean diskriminazioa egon badagoela, eta uste sendoa dugulako gure eskubideak ballatuta bakarrik egingo dugula aurre.

Zuri laguntzeko gaude

Aholkuak eta laguntza eskura jarriko dizkizugu:

- Biktimei zuzendutako laguntza:
 - Babesa
 - Aholkularitza Juridikoa
 - Solaskideak
 - Bitartekaritza
- Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko ekimenak: sentimenduzkoak, kontzientzia-erakundeak, informazioa eta prestakuntza.

Nola jarri harremanetan gurekin?

eraberean sarearen web orriaren bidez (www.eraberean.net), edo sarea osatzen duten erakunde bulegoen bidez, non adituek aholkularitza emango dizuten.

Ez ahaztu: **diskriminazioa** egon badago, baina zure **eskubideak** ere bai.

¿Qué es eraberean?

eraberean es una red impulsada por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco para luchar contra la discriminación por origen racial, étnico o nacional y por orientación sexual e identidad de género. Somos una red conformada por este Departamento y por diversas organizaciones sociales que trabajan en el ámbito de la inmigración, del pueblo gitano y de los colectivos LGBT y cuya misión es velar por la igualdad de trato y no discriminación en las políticas públicas y en la sociedad civil de Euskadi.

¿Por qué?

Porque somos conscientes de que la discriminación en nuestro entorno es una realidad y porque estamos convencidos de que tan sólo ejerciendo nuestros derechos podremos hacerle frente.

Estamos para ayudarte

Te ofrecemos:

- Asistencia directa a víctimas
 - Acompañamiento
 - Asesoramiento jurídico
 - Interlocución
 - Mediación
- Iniciativas de sensibilización, concienciación, información y formación dirigidas a promocionar la igualdad de trato y no discriminación.

Para contactar con nosotros

Puedes contactar con **eraberean** a través de la página web www.eraberean.net o bien a través de cualquiera de sus oficinas, donde personal especializado te asesorará al respecto.

Porque no lo olvides: **la discriminación existe, tus derechos también.**

ARABA

Aldarte 945 257 077

CEAIRI 945 266 805

Cruz Roja 945 222 222

Gao Lacho Drom 945 225 039

BIZKAIA

CITE-OCOO Bizkaia 944 243 424

Erespetuz 675 459 317

Nale Dor Kayiko 691 674 414

Neibem 946 526 989

GIPUZKOA

AGIFUGI 943 248 086

EHGAM 667 435 570

Geltzu 943 451 722

SOS Racismo 943 321 811

berdin!

biltzen

ARABA

Aldarte 945 257 077

CEAIRI 945 266 805

Cruz Roja 945 222 222

Gao Lacho Drom 945 225 039

BIZKAIA

CITE-OCOO Bizkaia 944 243 424

Erespetuz 675 459 317

Nale Dor Kayiko 691 674 414

Neibem 946 526 989

GIPUZKOA

AGIFUGI 943 248 086

EHGAM 667 435 570

Geltzu 943 451 722

SOS Racismo 943 321 811

berdin!

biltzen

eraberean
RED PARA LA IGUALDAD DE TRATO
Y NO DISCRIMINACIÓN



¡ESTAMOS PARA AYUDARTE!

www.eraberean.net
info@eraberean.net

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

eraberean
TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA
DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA



ZURI LAGUNTZEKO GAUDE!

www.eraberean.net
info@eraberean.net

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

Liburuxkak, Lurralde Historikoaren arabera:

eraberean
 RED PARA LA IGUALDAD DE TRABAJO
 Y SU DISCRIMINACIÓN

la **discriminación** existe,
 tus **derechos** también

no te calles, actúa

ELISKO JAKURLARITZA GOBIERNO VASCO
 DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

¿te han impedido acceder a un local por ser gitano o gitana?

¿tienes problemas en tu centro de trabajo por ser LGTBI?

¿no te alquilan un piso por ser inmigrante?

¿te han discriminado en algún recinto deportivo?

eraberean es una red impulsada por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco para luchar contra la discriminación por origen racial, étnico o nacional y por orientación sexual e identidad de género.

La red pretende prestar asistencia a todas aquellas personas que sufran o presencien situaciones discriminatorias de cualquiera de estos tipos.



Dónde encontrarnos

Aldarte

94 5 257 077
 aldararte@aldarte.org

CEAR

94 5 266 805
 era.berean@cear-euskadi.org

Cruz Roja

94 5 222 222
 paisvasco@cruzroja.es

Gao Lacho Drom

94 5 225 059
 gao@gaoalacho.com

eraberean
 TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA

diskriminazioa egon badago,
 baina zure **eskubideak** ere bai

ez isildu, ekin

ELISKO JAKURLARITZA GOBIERNO VASCO
 DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

eragotzi al ditzute inoiz lokalak batean sartzea ijito izateagatik?

ba al daukazu arazorik zure lantokian LGTBI kolektibokoa izateagatik?

ukatu al ditzute inoiz etxebizitza bat alokatzea etorkin izateagatik?

diskriminatu al zaituzte kirol-guneren batean?

eraberean Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bulzatutako sare bat da, eta helburu dauka arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitea.

Sareak laguntza eman nahi die era horretako diskriminazioa pairatu edo horren lekuko izan diren pertsona guztiei.



Hemen gaude

Aldarte

94 5 257 077
 aldararte@aldarte.org

CEAR

94 5 266 805
 era.berean@cear-euskadi.org

Cruz Roja

94 5 222 222
 paisvasco@cruzroja.es

Gao Lacho Drom

94 5 225 059
 gao@gaoalacho.com

eraberean
 RED PARA LA IGUALDAD DE TRABAJO
 Y SU DISCRIMINACIÓN

la **discriminación** existe,
 tus **derechos** también

no te calles, actúa

ELISKO JAKURLARITZA GOBIERNO VASCO
 DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

¿te han impedido acceder a un local por ser gitano o gitana?

¿tienes problemas en tu centro de trabajo por ser LGTBI?

¿no te alquilan un piso por ser inmigrante?

¿te han discriminado en algún recinto deportivo?

eraberean es una red impulsada por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco para luchar contra la discriminación por origen racial, étnico o nacional y por orientación sexual e identidad de género.

La red pretende prestar asistencia a todas aquellas personas que sufran o presencien situaciones discriminatorias de cualquiera de estos tipos.



Dónde encontrarnos

CITE-CCOO Bizkaia

944 243 424
 citebizkaia@euskadi.ccoo.es

Errespetuz

675 459 317
 errespetuz@hotmail.com

Kale dor Kayiko

691 674 414
 eraberean@kaledorkayiko.org

Nevipen

946 526 989
 nevipen@nevipen.org

 <p>eraberean TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA</p> <p>diskriminazioa egon badago, baina zure eskubideak ere bai</p> <p>ez isildu, ekin</p> <p>ELKINO JAURLAKITZA GOBIERNO VASCO</p>	 <p>eragotzi al dizute inoiz lokalak batean sartzea ijito izateagatik?</p> <p>ba al daukazu arazorik zure lantokian LGTBI kolektibokoa izateagatik?</p> <p>ukatu al dizute inoiz etxebizitza bat alokatzea etorkin izateagatik?</p> <p>diskriminatu al zaituzte kirol-guneren batean?</p>	<p>eraberean Eusko Jaurkitzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako sare bat da, eta helburu dauka arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitea.</p> <p>Sareak laguntza eman nahi die era horretako diskriminazioa pairatu edo horren lekuko izan diren pertsona guztiei.</p> 	<p>Hemen gaude</p> <p>CITE-CCOO Bizkaia 944 243 424 citebizkaia@euskadi.ccoo.es</p> <p>Errespetuz 675 459 317 errespetuz@hotmail.com</p> <p>Kale dor Kayiko 691 674 414 eraberean@kaledorkayiko.org</p> <p>Nevipen 946 526 989 nevipen@nevipen.org</p>
 <p>eraberean RED EN LA CALIDAD DE TRABAJO Y NO DISCRIMINACION</p> <p>la discriminación existe, tus derechos también</p> <p>no te calles, actúa</p> <p>ELKINO JAURLAKITZA GOBIERNO VASCO</p>	 <p>¿te han impedido acceder a un local por ser gitano o gitana?</p> <p>¿tienes problemas en tu centro de trabajo por ser LGTBI?</p> <p>¿no te alquilan un piso por ser inmigrante?</p> <p>¿te han discriminado en algún recinto deportivo?</p>	<p>eraberean es una red impulsada por el Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco para luchar contra la discriminación por origen racial, étnico o nacional y por orientación sexual e Identidad de género.</p> <p>La red pretende prestar asistencia a todas aquellas personas que sufran o presencien situaciones discriminatorias de cualquiera de estos tipos.</p> 	<p>Dónde encontramos</p> <p>AGIFUGI 943 248 086 asociacion@agifugi.org eraberean@agifugi.org</p> <p>EHGAM 667 435 570 ehgam@yahoo.com ehgamgipuzkoa@gmail.com</p> <p>Gehitu 943 451 722 info@gehitu.org info@gehitu.org</p> <p>SOS Racismo 943 321 811 eraberean@mugak.org</p>
 <p>eraberean TRATU-BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO SAREA</p> <p>diskriminazioa egon badago, baina zure eskubideak ere bai</p> <p>ez isildu, ekin</p> <p>ELKINO JAURLAKITZA GOBIERNO VASCO</p>	 <p>eragotzi al dizute inoiz lokalak batean sartzea ijito izateagatik?</p> <p>ba al daukazu arazorik zure lantokian LGTBI kolektibokoa izateagatik?</p> <p>ukatu al dizute inoiz etxebizitza bat alokatzea etorkin izateagatik?</p> <p>diskriminatu al zaituzte kirol-guneren batean?</p>	<p>eraberean Eusko Jaurkitzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako sare bat da, eta helburu dauka arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitea.</p> <p>Sareak laguntza eman nahi die era horretako diskriminazioa pairatu edo horren lekuko izan diren pertsona guztiei.</p> 	<p>Hemen gaude</p> <p>AGIFUGI 943 248 086 asociacion@agifugi.org eraberean@agifugi.org</p> <p>EHGAM 667 435 570 ehgam@yahoo.com ehgamgipuzkoa@gmail.com</p> <p>Gehitu 943 451 722 info@gehitu.org info@gehitu.org</p> <p>SOS Racismo 943 321 811 eraberean@mugak.org</p>